


ATAUNGO UDALERRIKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

HASIERAKO AGIRI ESTRATEGIKOA



2024ko maiatza



AURKIBIDEA

1	SARRERA ETA AURREKARIAK	3
2	IRIZPIDEAK, HELBURUAK ETA PLANAREN EZAUGARRIEN DESKRIBAPENA	4
2.1	INDARREKO PLANGINTZAREN BERRIKUSPENAREN JUSTIFIKAZIOA	4
2.2	IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK	4
2.3	IRIZPIDE ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK	5
3	PLANAREN DESKRIBAPENA	9
3.1	HIRI LURZORUAREN ALTERNATIBAK.....	9
3.2	LURZORU EZ URBANIZAGARRIAN PROPOSAMENAK.....	15
4	LURRALDEAREN INGURUMEN AZTERKETA	20
4.1	PLANAREN JARDUN ESPARRUA ETA KOKAPENA	20
4.2	KLIMA.....	21
4.3	INGURUNE FISIKOA.....	22
4.4	INGURUNE BIOTIKOA.....	33
4.5	NATURA INTERESEKO EREMUAK	47
4.6	PAISAIA	52
4.7	KULTURA ONDAREA.....	54
4.8	INGURUMEN ARRISKUAK	57
4.9	HIRIKO METABOLISMOA.....	67
4.10	MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA	68
4.11	INGURUMEN- ETA PAISAIA-UNITATE HOMOGENEOAK	69
4.12	INGURUMEN-ALDERDI GARRANTZITSUEN LABURPENA	75
5	BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN ANALISIA	77
5.1	LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO GIDALERROAK	77
5.2	BEASAIN -ZUMARRAGAKO (GOIERRI) EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE PLAN PARTZIALA.....	79
5.3	LURRALDE PLAN SEKTORIALAK.....	82
5.4	GAINONTZEKO PLAN SEKTORIALAK.....	87
5.5	BESTE PLAN ETA PROGRAMAK	89
6	AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBEI BURUZKO INGURUMEN AZTERKETA	94
6.1	ALTERNATIBEN INGURUMEN-AZTERKETARAKO METODOLOGIA	94
6.2	ALTERNATIBEN AZTERKETA	96
7	NATURA 2000 SAREAREN GAINEKO ERAGINA	136
8	ERAGINDAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ETA HERRITAR INTERESDUNEN PROPOSAMENA	138

I.Eranskina: Planoak

1 SARRERA ETA AURREKARIAK

Plan eta Programen Ingurumen Ebaluaketa Estrategikoa baliabide naturalak zaindu eta ingurumena babesteko prebentzio-baliabide egokia da. Baliabide honen bitartez ingurumen aldagaia kontutan hartzen da ingurumenaren gainean eragin nabarmena duten plan eta programei buruzko erabakiak hartzeko orduan.

Europar Batasunak plan eta programa hauek ingurumenaren aldetik aztertzeko garrantzia onartu zuen eta, hala, ekainaren 27ko 2001/42/CE Zuzentaraua ezarri zuen, hainbat planek eta programak ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeko.

Estatu mailan, zuzentarau hau apirilaren 28ko 9/2006 Legeak, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean dituzten eraginaren ebaluaketari buruzkoak, barneratu zuen. Ondoren lege hau, ingurumen ebaluaketari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak indargabetu eta ordezkaturia izan da.

EAEko esparruan, orain dela gutxi onartu den abenduaren 9ko 10/2021 Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legeak plan eta programen ingurumen ebaluaketarako prozedura ezartzen du, aurreko otsailaren 27ko 3/1998 Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorra indargabetu eta ordezkaturia. Horrez gain, indarrean jarraitzen du gaur egun 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.

Horrela, abenduaren 9ko 10/2021 Legeak II.A eranskinean Ingurumen-ebaluazio estrategiko (IEE aurrerantzean) arruntaren prozedura bete behar duten planak eta programak biltzen ditu, Hiri-Antolamendurako Plan Orokorrak (4. puntua) bertan aurkitzen direlarik.

Bestalde, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, 18. artikuluan zehazten duenaren arabera, organo sustatzaileak [Ataungo Udalak] hasierako agiri bat igorriko dio ingurumen arloko organoari [Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusia] artikuluko horretan bertan zehazten den edukia izango duena.

Horrela, dokumentu hau Ataungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren berrikuspenaren hasierako ingurumen agiria da. EKOLUR Ingurumen Aholkularitza, SLL enpresako honako teknikariek idatzi eta prestatu dute:

- Ibai Alcelay Iglesias (Biologian graduatua).
- Tomas Aranburu Calafel (Nekazaritzako Ingeniaritza Teknikoan Diplomaturia)
- Alexandra Egunez Zalakain (Biologian graduatua)
- Leyre Arteaga Lucas (Ingurumen Zientzietan graduatua)

2 IRIZPIDEAK, HELBURUAK ETA PLANAREN EZAUGARRIEN DESKRIBAPENA

2.1 INDARREKO PLANGINTZAREN BERRIKUSPENAREN JUSTIFIKAZIOA

Ataungo Hiri Antolaketako Arauen Testu Bategina 2005eko urriaren 18an onartu zuen behin betiko Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, eta 2005eko abenduaren 26an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (243. zk.).

Arau Subsidiario hauek inoiz ez bezalako hirigintza handitze eta hedapen garai batean idatzi eta onartu ziren, baina gaur egun, ia 20 urte beranduago, beronen garapen maila nahiko apala izan dela esan daiteke. Esate baterako, bere indarraldirako aurreikusitako etxebizitza berrietatik, egun laurdenak jaso du eraikuntza lizentzia, ia guztiak 2010. urtea baino lehen, eta ez da jarduera ekonomikoetarako azalera berririk garatu.

Bestetik, Estatuko nahiz Autonomia Erkidegoko araudian berriki egin diren aldaketek (LAG, Jasangarritasun Energetikoaren Legea, Klima Aldaketaren eta Trantsizio Ekologikoaren Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, EAeko Bizigarritasunari buruzko 80/2022 Dekretua...) eta gaur egun bizi dugun egoera klimatikoaren ondorioz onartu diren estrategiak aukera bat dira irizpide, helburu eta neurri iraunkorrak bilduko dituen hirigintza-plan bat hausnartu, pentsatu eta idazteko.

Horrek guztiak araudi orokorra eguneratzeko betebeharra ezartzen du.

2.2 IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Aurrekoa ikusita, eta 2023. urtean udala eta herritarren partehartzearekin buru den diagnosian nabarmen geratu den bezala, Ataungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspenaren helburu nagusian ondorengoak dira:

- Erronka demografikoari aurre egitea.
- Biztanleria gaztearen errotzea.
- Beasain-Ordizia-Lazkao eremuarekiko duen migrazio saldoa iraultzea.
- Bizimodu "alternatiboak" antolatzea.
- Tokiko nekazaritza-abeltzaintza eta ingurumen- zein kultura-ondarea ustiatuko dituen eredu ekonomikoa herri-nortasun berritu baten ardatza izatea.
- Eskualdearen eskakizunetara egokitutako funtzio ea zerbitzu osagarriak garatzea.
- Administrazioaren eta herritarren jarduna eta ekintzailtza bateratuak bultzatu eta erraztea.
- Hiri-eredua berrikustea.
- Elbarrena eta San Gregorio arteko lurraldea modu bateratuan garatu beharreko hiri-gune gisa ulertzea.
- Udalaz gaindiko lege, araudi edota plangintza tresna ugarietara egokitzea.

- Garapen jasagarria bultzatzea, ingurumen, ekonomia zen jasagarritasun sozialari dagokiona.

2.3 IRIZPIDE ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK

2.3.1 INGURUMEN ETA INGURUNE FISIKOAREN ALDERDIKO HELBURUAK

- 1) Biodibertsitate eta espazio naturalen babesa eta zaintza: babestutako espazio naturalen araudi eta mugapena jaso, eta ingurune fisikoaren konektagarritasuna bermatu.
- 2) Ibai-sarearen babesa eta berreskuratzea: ur ibilguak eta ibaiertzeko landaredi naturala babestu eta berreskuratu, eta baliabide hidrologikoak bermatu.
- 3) Ingurumen arriskuen prebentzioa: ingurumen arriskuak identifikatu, hauekin loturiko araudia aplikatu eta bere prebentzioa eta berreskurapena lehenetsi.
- 4) Nekazaritza eta baso lurzoruen babes eta birsorkuntza: baso autoktono eta nekazaritza lurzorua babestu eta indartu, eta baso-ustiapenen kudeaketa jasagarria bermatu.
- 5) Paisaiaren berreskuratze eta babesa: bat ez datozen elementuen zaharberitze eta paisaia-integrazio jarduketak sustatu.
- 6) Herritarren sentsibilizazioa eta ingurunearen ustiapen arduratsua sustatu: bideen balioa azpimarratu eta babesteko interes naturalistiko berezia duten guneen katalogoa egin.

2.3.2 NUKLEO LANDATARREI ZUZENDURIKO HELBURUAK

- 7) Baserriaren tipologia tradizionalaren berreskuratze eta babesa: lurzoru ez urbanizagarrian etxebizitza erabilera soila izango duten eraikin berrien eraikuntza saihestu, baserriak birgaitzea eta berrerabiltzea sustatu, baserrien eraikuntza gehigarriak antolatu eta arautu, egun dagoen "gutxieneko lurzatia" (20.000 m²) aztertu, lur-banaketari dagokionez.
- 8) Azpiegitura eta zerbitzu egokien zuzkidurak: herrigunea eta inguruko barreiatuen arteko komunikazioa hobetu, GI-3151, GI-3152, GI-4151 eta GI-4153 zaindu, hornitu eta sustatu, eta udalerriko bizitegi eremu guztietan argiteria, gasa eta edateko uraren hornikuntza sareak osatu eta hobetu.

2.3.3 ERREMU HIRITARRARI ZUZENDURIKO HELBURUAK

- 9) Hierarkizatutako eta gune-anitzeko kokaleku sistema finkatzea: nukleo nagusi baten garapena Elbarrena eta San Gregorio arteko lurraldea antolatuz, bi polo hauen arteko konektibitatea bermatu (oinezko, bizikleta, garraio publiko), Elbarrenako herrigunearen hierarkia eta erreferentzialtasuna indartzea, Astigarraga auzunea bizitegi programaren zein eskualde mailako ekipamenduen kokagune nagusi gisa hautatzeko aukera aztertzea, eta - Agrologiako balio altua duten lurzoruak eremu hiritarraren egiturazko elementu gisa antolatzea eta erreka-ertzen kolmatazioa saihestea.
- 10) Asentamendu sistemaren artikulazioa: Elbarrena eta San Gregorio auzuneen arteko oinezkoentzako, txirrindularientzako eta gainontzeko mugikortasun-bitarteko

jasangarrientzako hiri-izaerako bidea antolatzea, GI-2120 errepideari eta Agauntza ibaiari paralelo.

- 11) Hiri-paisaiaren ezaugarrien babesa: espazio libreen jarraitasuna eta konektagarritasuna bermatu, eta proposatutako dentsitate eta tipologiak lurraldearen ahalmenaren eta udalerraren izaeraren arabera egokitzea.

2.3.4 *BIZITEGI LURZORUAREN ALDERDIKO HELBURUAK*

- 12) Udalerraren bizitegi ahalmenaren berrikuspena: bizitegi ahalmena Lurralde Antolamenduko Gidalerroek ezarritakoaren arabera kuantifikatu, indarreko antolamenduan betegabeko ahalmena berrikusi, eta udalerriko bizitegi ahalmena birbanatu eta antolatu.
- 13) Etxebizitza duin baterako eskubidea: bere eskumenen barruan, hutsik dauden etxebizitzak alokairu-merkatuan jartzeko neurriak proposatu, ahal den neurrian babes ofizialeko etxebizitza alokairu sozialera bideratu, eta biztanleriaren zahartzeak dakartzan arazoei aurrea hartu.
- 14) Etxebizitza parkearen jasangarritasuna: zaharkitutako guneen birsorkuntza ahalbidetuko duten jarduerak sustatu, bizitegi-garapena zerbitzu eta ekipamenduen hornidurarekin orekan programatu, bizigune eremu berriak balio natural eta paisajistikoa gordetzea, eta gaur egungo zein etorkizuneko etxebizitzaren jasangarritasun energetikoa sustatu.

2.3.5 *JARDUERA EKONOMIKOEI ZUZENDURIKO HELBURUAK*

- 15) Basogintza eta landa-abeltzaintzaren babesa eta sustapena: baserriaren egungo zein etorkizuneko nekazal-abeltzaintza ekoizpen ahalmena mantendu, landa eremuko biztanleriaren belaunaldi erreleboa sustatu, nekazal- eta abeltzaintza-produktuen lehen eraldatze jarduerak udalerrian bertan merkaturatzea sustatu, eta basogintza jarduera eta lehen eraldatzea sustatu.
- 16) Industria jarduera finkatzea: Zubikoetako industria lurzoria finkatzea eta Ajarrestako garapena berraztertzea, eta udalerraren baliabide hidrológico edo eoliko anitzen ustiapenerako azpiegitura berrien balizko sorkuntza aztertu.
- 17) Zerbitzu sektorearen garapena: Elbarrena eta San Gregorion komertzio eta ostalaritza kontsolidatu, koherentea den sektore turistikoa bat sustatu, eta hirugarren adinekoentzako bizitegi, asistentzia eta aisialdirako zuzkidurak sustatu.

2.3.6 *EKIPAMENDU ETA ESPAZIO PUBLIKOEI ZUZENDURIKO HELBURUAK*

- 18) Ekipamendu zuzkidura finkatzea eta garatzea: ekipamenduak plangintza orokorrak azkenean onartutako lurralde ereduaren arabera antolatzea, ekipamenduen zuzkidura eskualdeko eskakizunen arabera garatzea eta antolatzea, Elbarrenan kultur eta administrazio zuzkidura finkatzea eta garatzea, Astigarragan ekipamendu orokorrak finkatzea eta berriak garatzea, San Gregorion tokiko ekipamenduak finkatzea eta garatzea, eta etxebizitza sozialak eta zuzkidura-bizitokiak barne-hartzeko udal ondarearen erabilera aztertu.
- 19) Espazio publikoen hiri-kalitatearen hobetzea: espazio publiko esanguratsuak Elbarrenan finkatzea eta garatzea, tokiko espazio publikoak finkatzea eta garatzea, espazio publikoan

ibilgailu pribatuen trafikoa murriztea, indarreko plangintzak izendatzen dituen espazio librean sistema orokorrak berrantolatzea, espazio publikoak eremu naturalekin lotzea, espazio publikoen eta gune berdeen arteko bereizketa baztertzea, ahal den neurrian Agauntza ibaia eremu publikoan txertatzea, eta espazio publiko osoaren irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzea.

2.3.7 GARRAIO ETA MUGIKORTASUNAREN ALDERDIKO HELBURUAK

- 20) Mugikortasun jasangarriaren sustapena: GI-2120 errepideari eta Agauntza ibaiari paralelo, Elbarrena eta San Gregorio auzuneen artean hiri-izaerako ibilbide jasangarri berria antolatzea eta sustatzea, *Kaxio* oinezkoen ibilbidearen proiektua berrestea, irisgarritasuna bermatu eta oinezko-ibilbideen sare lokala mantendu eta osatu, eta eskualdeko garraiobide publikoen azpiegiturak berrantolatu.
- 21) Ibilgailu pribatuaren integrazio eraginkorraren sustapena: ibilgailu pribatuaren erabilera murriztu, GI-2120 errepidearen eskualde areko komunikabide funtzioa berraztertzea, GI-2120 Elbarrena eta San Gregorio arteko ibilbide berriarekin bateragarri egitea, tokiko aparkamendu eskakizunak antolatzea, eta azpiegiturek biztanlerian eragiten dituzten erasanak aztertzea (kutsadura, zarata, etab.).
- 22) Landa eremuko bide sarearen mantenu eta garapena: GI-3151, GI-3152, GI-4151 eta GI-4153 finkatzea eta hornitzea.

2.3.8 AZPIEGITURAK ETA ZERBITZU SAREARI ZUZENDURIKO HELBURUAK

- 23) Ur edangarriaren horniketa sarearen hobekuntza: edateko uraren kalitatea bermatzera bideratutako eskuhartzeak sustatzea, eta hartune puntu eta arroetako uren zaintza.
- 24) Saneamendu sarearen hobekuntza: ur zikinen bilketa sarea osatzea eta hiri eta eteko sareen bikoizketa bultzatzea.
- 25) Argiteria publikoari jasangarritasun irizpideak aplikatzea: sare berriak etekin energetikoen irizpideekin diseinatu.
- 26) Telekomunikazio-zerbitzuen sarbidea bermatu: Telekomunikazio-zerbitzuen sarbidea puntako estandarretan bermatzea, proposatzen den garapen ereduaren funtsezko elementu gisa.
- 27) Energia berriztagarrien hedapena sustatu: gas hornikuntzaren sarea hedatzeari uko egin gabe, energia berriztagarrien instalakuntzek sor ditzaketen eskakizunak aurreikusi.

2.3.9 ONDAREARI ZUZENDURIKO HELBURUAK

- 28) Ondare arkeologiko eta eraikiaren kontserbazioa eta balioaren nabarmentzea: Euskal Herriko kultur ondare katalogoko elementuak edo udal mailan babesteko proposatutakoak dagokien babes mailarekin HAPON txertatu, aipatutako katalogoan jasota ez dauden elementu berriak proposatu, eta elementu kultural hauen balioa nabarmendu.

- 29) Ondare inmaterialaren kontserbazioa eta zaintza: plangintza berriak Ataunen euskararen erabilerari eragin diezazkiokeen ondorioak aztertu, eta bizi eredu eta bizibide tradizionalak zaindu.

3 PLANAREN DESKRIBAPENA

3.1 HIRI LURZORUAREN ALTERNATIBAK

Aurrerapen dokumentuan, 0 alternatibaz gain, hirigintza garapen berriak aurre ikusten dituzten 3 alternatiba proposatu dira Ataungo udalerrirako.

1., 2. eta 3. alternatibak aurreko atalean aipatutako helburuak burutzeko aukera ezberdinak dira. Nahiz eta bakoitzak antolamendu guztiz bideragarri eta koherente bat proposatzen duen, hautabideak ez dira eredu itxiak, eta horien guztien lurralde- eta sektore-proposamenak konbinatu ahal izango dira, planteatutako erronkei erantzungo dien eredu jakin bat hautatu arte.

Gainera, 1, 2 eta 3 alternatibek ontzat ematen dute Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) ezarritako gehieneko bizitegi-ahalmena (178 etxebizitza), eta bizitegi-programa txikiagoa proposatzen dute. 0 hautabideak finkatzen duen indarreko antolamenduak proposatutako eta ez gauzatutako etxebizitza kopurua ere hura baino txikiagoa da (112 etxebizitza).

3.1.1 0 ALTERNATIBA

Alternatiba hau Arau Subsidiarioek (AA.SS.) ezarritako antolamendu orokorrari dagokio, 2005ean onartuak, eta 2006ko eta 2009ko aldaketa puntualak barne hartuta. Beraz ez dira hirigintza garapenerako eremu berriki aurreikusten jada AA.SS.-etan onartuetatik haratago.

Hala ere, ikusi denez, AA.SS.-ek jasotako zenbait garapen ez dira oraindik gauzatu gaur egun, eta ondorioz, alternatiba honek aurreikusitako garapenak mantentzea suposatuko luke.

Ondorengo taulan 0 alternatibaren aurreikuspenak laburbiltzen dira, erabilera orokorretan banatuak, aurrez edo indarreko Arau Subsidiarioen babesean jada gauzatutakoak baztertuz.

1. Taula 0 Alternatibaren aurreikuspenen laburpena. (*): Jarduketa isolatuei edo zuzkidura jarduketei dagozkien etxebizitzak, bizitegi-programan zenbatzen ez dutenak.

HJE	AZALERA GUZTIRA	0 HAUTABIDEA. ERABILERA OROKORRAK									
		Bizitegiak			Jarduera ekonomikoak		Zuzkidurak		Espazio libreak + ibai ibilguak		Komunik. sarea
		Azalera	+		Azalera	+	Azalera	+	Azalera	+	Azalera
		m ² (l)	m ² (l)	Kop. (*)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (l)	m ² (l)
1 ZUBIKOETA	17.384	0	0 (0)	17.384	0	0	0	0	0	0	
2 AJARRESTA	20.561	0	0 (0)	20.561	10.553	0	0	0	0	0	
3 ELBARRENA E	78.486	67.648	70 (53)	0	0	1.886	640	3.269	0	5.683	
4 ELBARRENA M	24.180	18.043	0 (0)	0	0	682	0	1.302	0	4.153	
5 ASTIGARRAGA	41.003	24.936	20 (6)	0	0	15.877	0	0	0	190	
6 ARRONDO	29.326	26.947	0 (14)	0	0	0	0	365	0	2.014	
7 S.GREGORIO E	17.219	11.675	0 (7)	0	0	1.770	0	1.373	0	2.401	
8 S.GREG. M	18.833	14.815	14 (5)	0	0	1.711	1.130	635	635	1.672	
9 AIA	6.709	4.807	8 (6)	0	0	677	0	364	0	861	
OROTARA	253.701	168.871	112 (91)	37.945	10.553	22.603	1.770	7.308	635	16.974	

Indarreko antolamendu orokorrak egun eremu hiritarrean aurreikusitako 203 etxebizitzetatik 91 jarduketa isolatuei edo zuzkidura jarduketei dagozkie, eta arrazoi horregatik 0 hautabidean zenbatutako bizitegi-programa 112 etxebizitzakoa da, hau da, LAGek ezarritako gehieneko bizitegi-ahalmena baino 66 etxebizitza txikiagoa.

3.1.2 1. ALTERNATIBA

- **Zubikoeta** eremua (AIU1) egungo ezaugarri berberetan finkatzen da, baina **Ajarresta** eremuan AA.SS.-ek aurreikusitako lurzoru urbanizagarria (AIU2), jarduera ekonomikoetara bideratua, bertan behera uzten da eta lurzoru ez-urbanizagarri bezala sailkatzen da berriz ere, proposatutako lurralde ereduaren zuzenketarekin bat ez datorrelako.

- **Elbarrena ekialdea** eremuak San Martin auzoko herrigunearen zatirik handiena barne hartzen du, indarreko AIU3, AIU4, AIU6, AIU7, AIU8, AIU9, AIU11, AIU12 eta AIU13 bilduz.

Hautabide honek eremuko ekipamendu eta espazio libreak finkatzen ditu, baita plazako bizitegi garapena ere (50 etxebizitza), lurzorua udal jabetzakoa izanik, zeresan garrantzitsua izan behar baitu udalerriko biztanleria gaztea errotzeko helburuari begira.

Bestalde, bizitegirako zuzkidura-jardun gehienak finkatzen badira ere, indarreko AIU11 unitatea (Kerejeta, Urbitarte eta eskeletoa) adineko pertsonen zaintza integralerako ekipamenduaren kokagune gisa proposatzen da, eta esku-hartzearen bideragarritasuna bermatzeko asmoz, indarreko AIU13 unitateko bizitegi-garapena indartzen da, tipologia aldatu eta 32 etxebizitza antolatuz, besteren artean, AIU11ko etxebizitzaren birkokatzeari aurre egiteko asmoz.

Azkenik, Aitzarte errekaen ertza espazio libreen sistema orokor gisa izendatzen da, proiektu honetan berebiziko garrantzia duen bidegorria edo Elbarrena eta San Gregorio auzoak lotuko dituen ardatz nagusiaren abiapuntu bilakatzeko asmoz.

Elbarrena ekialdea eremuko bizitegi programak 117 etxebizitza berri aurreikusiko lituzke, 86 jardun integratuetan eta 31 zuzkidura-jardunetan.

- **Elbarrena mendebaldea** eremuak San Martingo herrigunearen gainontzeko zatia barne hartzen du, Agauntza ibaitik mendebaldera kokatzen dena, eta indarreko AIU5 eta AIU10 biltzen ditu. Eremu hau guztiz finkatutzat jotzen da, bertan kokatzen diren ekipamenduen eta espazio libreen sistema orokorrak barne, eta ez da inolako esku-hartze berezirik proposatzen.
- **Astigarraga** eremuak indarreko AIU14, AIU15 eta AIU16 unitateak biltzen ditu, eta udalerriko bizitegi-programaren kokagune nagusitzat ageri da hautabide berri guztietan.

Zehazki, "garapen baxuko" 48 etxebizitza berriren eraikuntza aurreikusten da (7 errepede ertzeko etxebizitzaren birkokapenetara bideratzen badira ere) egungo eraikinen atzealdea baliatuz, eta tartean jada aipatutako bidegorria edo ardatz nagusia txertatzen da.

Gainera, eremuari atxiki gabea bazegoen ere, indarreko plangintzak izendatzen duen espazio libreen sistema orokorra (2.695 m²) baztertzen da, eta haren orde 11.235 m² inguruko sistema orokor berri bat izendatzen da, eremuaren garapenari atxikia, Elbarrena ekialdea eremuarekiko

“harrotzea” bermatuz, baina hiri-bilbean guztiz txertatua eta udalerrri osoko herritarren zerbitzura dagoen zuzkidura moduan.

- **Arrondo** eremuak indarreko AIU17 unitatea hartzen du, eta bertako garapenaren helburu nagusia Elbarrena eta San Gregorio auzoak lotuko dituen ardatz berriari jarraipena ematea da. Aipatu ardatz nagusiaren bokazioa guztiz “hiritarra” da eta, bestelako arrazoirik ezean (Astigarraga eremuko, adibidez), bere trazadura errepideari paraleloa izango da. Beraz, eremuan zuzkidura-jarduneko 16 etxebizitza aurreikusten dira soilik, bizitegi-ahalmenean zenbatzen ez dutenak eta bidegorria gauzatzea beste helbururik ez dutenak.
- **Arinberriaga** eremuan indarreko izen bereko landa-gunearen azalera handitzen da zertxobait, kasu honetan hiri-lurzoru gisa sailkatua gainera.

Hemen lehen sektorearen garapenak behar dituen azpiegiturak aurreikusten dira, eremuaren zati bat aktibitate ekonomikoetarako eskainiz. Izan ere, eremuaren bilakaerak (Sara eremuko ekipamenduen sistema orokorrarekin batera) jarraipena ematen dio San Martin eta San Gregorio arteko lurraldean antolatu nahi den nukleo nagusiari.

Bertan gainera zuzkidura-jarduneko 4 etxebizitza aurreikusten dira soilik.

- **San Gregorio ekialdea** eremuak izen bereko auzoko herrigunearen erdia barne hartzen du, Agauntza ibaitik ekialdera kokatzen dena hain zuzen, eta indarreko AIU18, AIU21 eta AIU23 unitateak biltzen ditu. Eremu hau guztiz finkatutzat jotzen da, bertan kokatzen diren ekipamenduen eta espazio librean sistema orokorrak barne, eta ez da inolako esku-hartze berezirik proposatzen, eremuko mugaren erregularizatu eta ibai ertzeko sistema librean sistema orokorra izendatzeaz gain. Indarreko plangintzak aurreikusten dituen zuzkidura-jarduneko 7 etxebizitzak finkatzen dira.
- **San Gregorio mendebaldea** eremuak auzoko herrigunearen beste erdia hartzen du, Agauntza ibaitik mendebaldera kokatzen dena, eta indarreko AIU19, AIU20 eta AIU22 unitateak biltzen ditu. Eremuan indarreko plangintzak aurreikusitako 19 etxebizitza berriak finkatzen dira, 14 jardun integratuetan eta 5 zuzkidura-jardunetan, eta gainera, beste 8 etxebizitza berri ere proposatzen dira, 2005eko jatorrizko plangintzaren jardun integratua berreskuratuz.

Hautabide honek hiri-lurzoruko ekipamenduen sistema orokor gisa izendatzen du J.M. Barandiaran museoaren eta interpretazio zentroaren ingurune osoa, Olearratibelerdikoa baserria barne.

- **Aia** eremuak indarreko AIU24 eta AIU25 unitateak biltzen ditu, eta bertan 10 etxebizitza berri proposatzen dira, 4 jardun integratuetan eta 6 zuzkidura-jardunetan. Izan ere, indarreko plangintzak aurreikusitako 4 etxebizitza jarduera ekonomikoez ordezkatzeko dira, ostalaritzara eta ostatu ematera bideratutako ekimenak sustatu asmoz.

Alternatiba honen parametro orokorrak ondorengoak dira:

2. Taula 1. Alternatibaren aurreikuspenen laburpena. (*): Jarduketa isolatuei edo zuzkidura jarduketei dagozkien etxebizitzak, bizitegi-programan zenbatzen ez dutenak.

HJE	AZALERA GUZTIRA	1 HAUTABIDEA. ERABILERA OROKORRAK				
		Bizitegiak	Jarduera ekonomikoak	Zuzkidurak	Espazio libreak + ibai ibilguak	Komunik. sarea

		Azalera	+	Azalera	+	Azalera	+	Azalera	+	Azalera
	m ² (l)	m ² (l)	*Kop.	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)
1 ZUBIKOETA	17.384	0	0 (0)	17.384	0	0	0	0	0	0
2 ELBARRENA E	76.281	57.668	86 (31)	0	0	4.491	4.560	8.439	3.387	5.683
3 ELBARRENA M	24.180	18.043	0 (0)	0	0	682	0	1.302	0	4.153
4 ASTIGARRAGA	66.837	31.873	41 (0)	0	0	17.379	900	12.397	12.397	5.188
5 ARRONDO	29.326	26.947	0 (16)	0	0	0	0	365	0	2.014
6 ARINBERRI.	22.121	8.038	0 (4)	10.887	2.400	0	0	0	0	3.196
7 S.GREGORIO E	19.068	10.679	0 (7)	0	0	1.770	0	3.241	1.868	3.378
8 S.GREG. M	21.785	16.468	22 (5)	0	0	2.943	0	702	702	1.672
9 AIA	6.709	3.464	4 (6)	1.343	720	677	0	364	0	861
OROTARA	283.691	173.180	153 (69)	29.614	3.120	27.942	5.460	26.810	18.354	26.145

Alternatiba honetan aurreikusten den bizitegi programa 19 etxebizitzetan handitzen da AA.SS.-etan aurreikusitakoarekin, batik bat, jardun integratuetan aurreikusitakoak, hau da, bizitegi-ahalmenean zenbatzen direnak, 41 etxebizitzetan handitzen direlako. Aldiz, zuzkidura-jardunetan aurreikusitakoak 22 etxebizitzetan murrizten dira, bizitegi-ahalmenean zenbatzen ez diren arren.

Bizitegi-ahalmenari dagokionez, hazkundera batik bat Astigarraga (+21) eta Elbarrena ekialdea (+16) eremuetan gertatzen da, azken honetan bizitegi-programa osoa murrizten (-6) eta zuzkidurak zein espazio libreak nabarmen handitzen diren arren.

3.1.3 2. ALTERNATIBA

- **Zubikoeta** eremua (AIU1) egungo ezaugarri berberetan finkatzen da, hautabide guztietan bezalaxe, eta kasu honetan **Ajarresta** eremua (AIU2) ere finkatu egiten da, baina orain ekipamendu publikoen zuzkidurara bideratua, adineko pertsonen zaintza integralerako ekipamenduaren ordezkoko kokaleku gisa.
- **Elbarrena ekialdea** eremuan adinekoen zaintzarako ekipamendua desagertzen da ondorioz, eta oro har 0 hautabideko aurreikuspenak finkatzen dira, baina indarreko AIU13 unitateko bizitegi-garapena murrizten da (24tik 8ra), indarreko aprobetxamenduaren zati handiena merkataritzako jarduerara bideratu asmoz.
- **Elbarrena mendebaldea** eremuan 0 eta 1 hautabideetako ildoak finkatzen dira osotasunean.
- **Astigarraga** eremuan 1 hautabideko ildoak finkatzen dira, baina kasu honetan bizitegi-programa nabarmen handitzen da (48tik 72ra), orain ere horietako 7 errepide ertzeko etxebizitzetan birkokapenetara bideratu behar diren arren, eta tipologia "eraikuntza irekikoa" da. Horrela, espazio libreen sistema orokorraren azalera ere gehiago handitzen da (+3.509 m²).
- **Arrendo** eremuan 1 hautabideko ildoak finkatzen dira osotasunean.
- **Arinberriaga** eremuan 1 hautabideko ildoak finkatzen dira osotasunean.
- **San Gregorio ekialdea** eremuan 1 hautabideko ildoak finkatzen dira osotasunean.
- **San Gregorio mendebaldea** eremuan 1 hautabideko ildoak finkatzen dira eta gainera, hiri-lurzoruaren hazkunde neurtua proposatzen da Lauzti erreko errepidearen abiagunea baliatuz.

Horrela, “garapen baxuko” 10 etxebizitza berri proposatzen dira bertan, guztiak jardun integratuan, auzoarentzat 7.552 m² inguruko espazio libreen sistema orokorra eta 1.596 m² inguruko aparkalekua eskuratu asmoz.

Aipatu bi zuzkidurak auzoaren beharrak eta eskakizunak asetzeraz datozela, baita Lauzti erreka oinezkoen ibilbide turistikoari zerbitzu ematera ere.

- **Aia** eremuan indarreko AIU24 unitatea ezabatzen da eta eremua egungo egoeran finkatzen da, zuzkidura-jardunean aurreikusitako 6 etxebizitzak barne.

Alternatiba honen parametro orokorrak ondorengoak dira:

3. Taula 2. Alternatibaren aurreikuspenen laburpena. (*): Jarduketa isolatuei edo zuzkidura jarduketei dagozkien etxebizitzak, bizitegi-programan zenbatzen ez dutenak.

HJE	AZALERA GUZTIRA	2 HAUTABIDEA. ERABILERA OROKORRAK									
		Bizitegiak			Jarduera ekonomikoak		Zuzkidurak		Espazio libreak + ibai ibilguak		Komunik. sarea
		Azalera	+		Azalera	+	Azalera	+	Azalera	+	Azalera
		m ² (l)	m ² (l)	Kop. (*)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (l)	m ² (l)
1 ZUBIKOETA	17.384	0	0 (0)	17.384	0	0	0	0	0	0	
2 AJARRESTA	20.561	0	0 (0)	0	0	18.412	3.920	0	0	2.149	
3 ELBARRENA E	76.281	58.563	58 (53)	3.988	1.600	1.886	640	6.161	1.272	5.683	
4 ELBARRENA M	24.180	18.043	0 (0)	0	0	682	0	1.302	0	4.153	
5 ASTIGARRAGA	66.837	28.364	65 (0)	0	0	17.379	900	15.906	15.906	5.188	
6 ARRONDO	29.326	26.947	0 (16)	0	0	0	0	365	0	2.014	
7 ARINBERRI.	22.121	8.038	0 (4)	10.887	2.400	0	0	0	0	3.196	
8 S.GREGORIO E	19.068	10.679	0 (7)	0	0	1.770	0	3.241	1.868	3.378	
9 S.GREG. M	34.576	19.624	32 (5)	0	0	2.943	0	8.254	8.254	3.755	
10 AIA	2.758	1.393	0 (6)	0	0	728	0	364	0	273	
OROTARA	313.092	171.651	155 (91)	32.259	4.000	43.800	5.460	35.593	27.300	29.789	

Laburbilduz, hautabide honek 1 hautabidearen bizitegi-ahalmena errepikatzen du ia (+2 etxebizitza), nahiz eta zuzkidura-jardunetan aurreikusitako etxebizitzak dezente handitzen diren (+23, 0 hautabideko kopuru berbera), batik bat, Elbarrena ekialdea eremuan indarreko AIU11 unitateko bizitegi-garapena finkatzen delako.

Hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzorua ia beste 3 hektarea handitzen da 1 hautabidearekiko (+29.401 m²), batik bat Ajarresta eremua berreskuratu delako eta ondorioz, zuzkidurako lurzorua (+15.858 m²) eta espazio libreen lurzorua (+8.783 m²) dezente hazi baitira. Jarduera ekonomikoetara bideratutako lurzorua (+2.645 m²) eta komunikazio sarearena (+3.644 m²) apalago hazi dira, eta bizitegi lurzorua murriztu egin da (-1.529 m²).

Kasu honetan ere, San Martin eta San Gregorio auzuneak lotuko dituen ardatz nagusirako 1 hautabideko irizpideak errepikatzen dira.

3.1.4 3. ALTERNATIBA

- Hautabide guztietan bezala, **Zubikoeta** eremua (AIU1) egungo ezaugarri berberetan finkatzen da eta, 1 hautabidean bezala, **Ajarresta** eremuan aurreikusitako lurzoru urbanizagarria (AIU2) bertan behera uzten da eta lurzoru ez-urbanizagarri bezala sailkatzen da. Beraz, 1 hautabideko ildoak errepikatzen dira.
- **Elbarrena ekialdea** eremuan 2 hautabideko ildoak finkatzen dira oro har, baina bi aldaketa proposatzen dira: batetik, indarreko AIU8 unitatean bizitegi-programa handitzen da (60 etxebizitza); bestetik, indarreko AIU13 unitatean ekipamendu publikoen zuzkidura aurreikusten da, adineko pertsonen zaintza integralerako ekipamenduaren ordeko kokaleku gisa, 2 hautabideko jarduera ekonomikoaren orde.
- **Elbarrena mendebaldea** eremuan 0, 1 eta 2 hautabideetako aurreikuspenak finkatzen dira.
- **Astigarraga** eremuan 2. hautabideko ildoak finkatzen dira, baina kasu honetan bizitegi-programa muturrera eramaten da (72tik 84ra), orain ere "eraikuntza irekikoa" tipologian eta horietako 7 errepide ertzeko etxebizitzak birkokapenetara bideratu behar dira. Kasu honetan, espazio libreen sistema orokorraren azalera 1. hautabidekoa da.
- **Arrondo** eremuan 1 eta 2 hautabideetako ildoak finkatzen dira osotasunean.
- **Arinberriaga** eremuan 1 eta 2 hautabideetako ildoak finkatzen dira osotasunean.
- **San Gregorio ekialdea** eremuan 1 eta 2 hautabideetako ildoak finkatzen dira osotasunean.
- **San Gregorio mendebaldea** eremuan 0 eta 2 hautabideetako ildoak nahasketa proposatzen da, izan ere, indarreko plangintza finkatzeaz gain, hiri-lurzoruaren hazkunde neurtua proposatzen baita, 2 hautabidean bezala, Lauzti erreka errepidearen abiagunea baliatuz.
- **Aia** eremua, aukera osagarri gisa, lurzoru ez-urbanizagarriko landa-gune gisa izendatzea proposatzen da, Plan Berezi baten bidez mugatu eta auzoaren beharrei modu xehatuagoan erantzun asmoz.

Beraz, alternatiba honen parametro orokorrak hurrengoak izango dira:

4. Taula 3. Alternatibaren aurreikuspenen laburpena. (*): Jarduketa isolatuei edo zuzkidura jarduketei dagozkien etxebizitzak, bizitegi-programan zenbatzen ez dutenak.

HJE	AZALERA GUZTIRA	3 HAUTABIDEA. ERABILERA OROKORRAK									
		Bizitegiak			Jarduera ekonomikoak		Zuzkidurak		Espazio libreak + ibai ibilguak		Komunik. sarea
		Azalera	+		Azalera	+	Azalera	+	Azalera	+	Azalera
		m ² (l)	m ² (l)	Kop. (*)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (l)	m ² (l)
1 ZUBIKOETA	17.384	0	0 (0)	17.384	0	0	0	0	0	0	
2 ELBARRENA E	76.281	58.563	68 (53)	0	0	5.874	2.240	6.161	1.272	5.683	
3 ELBARRENA M	24.180	18.043	0 (0)	0	0	682	0	1.302	0	4.153	
4 ASTIGARRAGA	66.837	31.873	77 (0)	0	0	17.379	900	12.397	12.397	5.188	
5 ARRONDO	29.326	26.947	0 (16)	0	0	0	0	365	0	2.014	
6 ARINBERRI.	22.121	8.038	0 (4)	10.887	2.400	0	0	0	0	3.196	
7 S.GREGORIO E	19.068	10.679	0 (7)	0	0	1.770	0	3.241	1.868	3.378	

8 S.GREG. M	31.624	17.971	24 (5)	0	0	1.711	1.130	8.187	8.187	3.755
OROTARA	286.821	172.114	169 (91)	28.271	2.400	27.416	4.270	31.653	23.724	27.367

Beraz, hautabide honek bizitegi-programa handiena proposatzen du, 260 etxebizitza berri, bai jardun integratuetan (169), baita zuzkidura-jardunetan ere (91, 0 eta 2 hautabideetan bezala). Bizitegi-ahalmenaren handitzea, kasu honetan, Elbarrena ekialdea (+10) eta Astigarraga (+12) eremuetan burutzen da, San Gregorio mendebaldea eremuan aldiz bizitegi-ahalmena murriztu egiten baita (-8).

Laburbilduz, hautabide honetan hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzoruaren azalera murriztu egiten da 2. hautabidearekiko (-26.271 m²), eta 1. hautabideko hedapenera hurbiltzen da berriz ere. Izan ere, Ajarresta eta Aia ezabatuz, eremu kopuru txikiena baitu hautabide honek, eta gainera, San Gregorio mendebaldea eremuan ere sailkatutako azalera murriztu egiten baita.

Ondorioz, zuzkidurako lurzoruaren azalera nabarmen murrizten da 2 hautabidearekiko (-16.384 m²), baita gainontzeko erabileren lurzoria ere, askoz modu apalagoan izan arren.

Azkenik, hautabide honek ere San Martin eta San Gregorio auzuneak lotuko dituen ardatz nagusirako 1. hautabideko irizpideak finkatzen ditu.

3.2 LURZORU EZ URBANIZAGARRIAN PROPOSAMENAK

3.2.1 LURZORU EZ URBANIZAGARRIAREN ZONAKATZEA

Aurrerakin fase honetan lurzoru urbanizaezinaren zonakatzeko globalerako proposamen bat aurreratzeko da, Planaren ondorengo faseetan zehaztuko dena. Proposatutako eremuetako erabileren erregulazioa LAGetan eta Nekazaritza eta Basogintzaren LAPean xedatutakotik abiatuko da. Hala ere, udal-eskumenetik doitu daiteke.

Aipatu, Ataungo udalerriaren kasuan lurzoru ez urbanizagarriaren antolamendua baldintzatuta dagoela ere udal barrutiaren zati handiena (% 76) Aralar Parke Naturalaren barnean egonagatik eta, ondorioz, beronen antolaketa eta kudeaketarako onartutako era askotariko udalaz gaindiko araudiak aplikatu beharko dira. Dena den, udalerriaren garapen sozio-ekonomikoarentzat oztopo bat izatetik urrun, parke naturala Plan Orokorrek sustatzen duen lurralde eredu berriaren funtsezko eragile bat bihurtu nahi da.

Gauzak horrela, HAPOaren aurrerakinak lurzoru ez-urbanizagarriko antolamendu-aukera ezberdinak aurkezten ditu, hiri-lurzorurako eta urbanizagarriko aurkeztutako proposamenekin bat etorritik.

Zehazki, ondorengo kategoriak ezartzen dira:

- Nekazaritza-abeltzaintza eremua.
 - Balio estrategiko altua: Laborantzarako lur estrategikotzat kontsideratuak dauden lurak dira. Hori dela eta, bere mantenua eta zaintza lehentasunezkoak dira eremu hauetan beste erabileren aurrean.
 - Trantsiziozko Landa Paisaia: Nekazaritza eta abeltzaintzara zuzendutako malda ertaineko lurrek osatzen dute. Lursail hauek belardiez eta zuhaitz masa txikiez osatuta

daude. Balio estrategiko altua duten lurrekin edo baso eremuekin kontaktuan daude, orokorrean, hauetako joera batera bideratuak.

- Basoa: Orokorrean basoez osatuta dagoen lur eremua. Basoaren balioa zaindu eta sustatu nahi den lur saila.
- Ibai ibilgua eta bere ertzak babesteko eremua: Ibai ibilgua eta bere babeserako ertzak osatzen duten eremua. Lur ez urbanizagarrian kokatzen diren ibaiaren zatiak, kanpo utziz hiri lurra eta lur urbanizagarria. Ertzak ibaiaren mailaren arabera babes tarteak dute, Ibai eta Erreken Ertzak Antolatze Lurralde Plan Sektorialak agintzen duen moduan.
- Sistema Orokorrak: Zuzkidura erabilerara bideratutako lurzorua, besteak beste, espazio libre eta ekipamenduko kolektibo publikoak, ekipamendu kolektibo pribatuak eta komunikazio-azpiegiturak eta -sareak, beti ere, hiritargo osoari zerbitzu ematen diotenak.

Aipatu beharra dago, Ataunen ez dela identifikatu landatutako zein naturalizatutako landare inbaditzaileen masa nabarmenik (*Robinia pseudoacacia*, *Eucalyptus sp.*, etab.), ezta higadura handia jasaten duten lurrak. Ondorioz, ez da bertan ingurumen hobekuntzarako eremurik irudikatzen.

Bestalde, batasuneko intereseko habitatak eta lurraldean interes handia duten bertako basoak masa sakabanatuak eratzen dituzte. Horregatik, eta lurzoru ez urbanizagarriaren antolaketa lurraldeko eskala maila handiago batera egokitzeko, aipatutako habitatak, Basoa zein Nekazaritza-Abeltzaintza eremuei atxikitu zaizkie. Hala ere, duten garrantziagatik, Baldintzatzaile gainarri bezela grafiatu dira, eta beraien babesa eta hobekuntza bertan ezarritako araudi espezifikoarekin bermatuko da.

Aipatutako kategoriez gain, landa lurzoruan ondorengo baldintzatzaile gainjarriak ezartzen dira:

- Arrisku naturalak eta klima aldaketa:
 - C.1. Uholde arriskua duten eremuak. Birgertatzealdiak
 - C.1.a. Ibaiaren lehentasunezko fluxu eremua
 - C.1.b. Birgertatzealdiak: 10, 100 eta 500 urte
 - C.2. Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten eremuak
 - C.3. Higadura arriskua duten eremuak (%50etik gorako maldak)
 - C.4. Sute arrisku handia edo oso handia duten eremuak
 - C.5. Kutsatuta egon daitezkeen eremuak
 - C.6. Eremu akustikoak
- Azpiegitura berdea:
 - C.7. Erreserba eta nukleo guneak
 - C.7.a. Aralarko Kontserbazio bereziko Eremua (KBE)
 - C.7.b. Oria garaiko Kontserbazio bereziko Eremua (KBE)
 - C.8. Intereseko landaredia
 - C.8.a. Lurralde intereseko basoak
 - C.8.b. Interes komunitarioko habitatak

C.9. Ibai korridoreak

- Beste baldintzatzaileak:

C.10. Faunaren babes eremuak

C.10.a Bisoi europarra

C.10.b Elur-lursaguaren IBE

C.10.c Ferra-saguzar handiaren IBE

C.10.d Muturluze piriniarraren IBE

C.10.e Hegazti nekrofagoen IBE eta elikatzeko babesgunea

C.11. Onura publikoko mendia

C.11.a 2015.1

C.11.b 2015.2

C.11.c 2015.3

C.12. Interes geologikoko eremuak

C.12.a Ataungo domoa

C.13. Interes hidrogeologikoko eremuak

C.14. Plan hidrologikoaren eremu babestuak

C.14.a Hiri-hornidurarako hartuneen babes eremua

C.14.b Babes bereziko ibai tarteak

C.15. Katalogatutako ikus-arroak

C.16. Ondare kulturala

Horrez gain, hurrengo faseetan udalerriko azpiegitura berdea osatuko duten elementuak identifikatuko dira, ondorengoetan oinarrituko direnak:

- Udalerrri mailan:
 - Lekuko lotura korridoreak
 - S.O. Eremu libreak
 - Oztopo nagusiak
 - Lurrazaleko urak
- Udalerriz gaindiko azpiegitura berdearen elementuak:
 - EAEko Korridore ekologikoen sarea:
 - Gipuzkoako azpiegitura berde sarearen proposamena
 - Goierriko Lurraldearen Zatikako Plana

3.2.2 LANDA GUNEA

Bestetik, lurzoru ez-urbanizagarrian antolamendu kategoriek eta baldintzatzaile gainjarriek ezarritako markoan, Aurrerakinak proposamen ezberdinak egiten ditu **Arinberriaga**, **Ergoiena** eta **Aia** auzuneen

antolaketari dagokionez, hiri lurzoruaren eta urbanizagarriaren antolaketa alternatibekin batera aurkezten direnak (ikusi 3.1 atala).

Indarreko plangintzaren arabera, Arinberriaga eta Ergoiena landa-gune gisa izendatuak daude (2/2006 Legearen 29. artikulua) eta Aia hiri-lurzoru gisa sailkatua dago.

Bada, Aurrerakinean Arinberriaga auzunea hiri-lurzoru bezala sailkatzea proposatzen da, esan bezala, eremuaren bilakaerak jarraipena ematen baitio San Martin eta San Gregorio arteko lurraldean antolatu nahi den nukleo nagusiari, eta bertan lehen sektorearen garapenak behar dituen azpiegiturak aurreikusten dira.

Ergoiena auzunea aldiz landa-gune gisa mantentzen da hautabide guztietan, proiektu honetan mugatzen den hiri-eremutik kanpo kokatzen delako batetik, eta bere landa-izaerak erantzun berezituak eskatzen dituelako bestetik. Horretarako, landa-gunearen garapena Antolamenduko Plan Bereziaren bidez egitea proposatzen da, bere eskumenen artean eremuaren hedapena bera eta haren antolamendu xehatua izango lituzkeena, bizitegi-programa barne, auzokideen eskakizunei erantzun eta auzunearen beharrei konponbidea eman asmoz.

Azkenik, Aia auzunearentzat bi aukerak aurreikusten dira, hau da, hiri-lurzoru gisa garatu ahal izateko hautabide ezberdinak edo, Ergoiena auzunean bezala, landa-gune gisa Antolamenduko Plan Bereziaren bidez garatzeko aukerak jasotzen dira.

Ondorengo taulan landa-guneen antolaketarako hautabide ezberdinen arteko alderaketa aurkezten da:

5. Taula Landa guneetan aurreikusten diren hautabideen laburpena. (*): Jarduketa isolatuei edo zuzkidura jarduketei dagozkien etxebizitzak, bizitegi-programan zenbatzen ez dutenak.

Auzunea	Hautabidea							
	0		1		2		3	
	Azalera	Bizitegiak	Azalera	Bizitegiak	Azalera	Bizitegiak	Azalera	Bizitegiak
	m ² (l)	Kop.(*)	m ² (l)	Kop.(*)	m ² (l)	Kop.(*)	m ² (l)	Kop.(*)
ARINBERRIAGA	15.979	(9)	Hiri-lurzorua		Hiri-lurzorua		Hiri-lurzorua	
ERGOIENA	41.935	(7)	41.935	(7)	41.935	(7)	41.935	(7)
AIA	Hiri-lurzorua		Hiri-lurzorua		Hiri-lurzorua		6.709	(8)
LANDAGUNEAK	57.914	(16)	41.935	(7)	41.935	(7)	48.644	(15)
HIRI-LURZ. + LANDAG.	311.615	112 (107)	325.626	153 (76)	355.027	155 (98)	335.465	169 (106)

3.2.3 SISTEMA OROKORRAK

Azkenik aipatu, lurzoru ez urbanizagarrian, indarreko plangintzak izaera orokorreko esku-hartzeak proposatzen zituela jarduera ekonomikoen alorrean, guztiak Aralarko Parke Naturalaren barnean kokatuak.

Esate baterako, Erremedio eta Marumendi izeneko eremuetan ostalaritzako erabilerak hartzeko zedarritzen ziren, hurrenez hurren, 380.573 m² eta 104.681 m² inguruko azalerarekin. Bestetik, 42.119 m²-ko azalerarekin, Imatzenea eremua zedarritzen zen “erabilera industrial ez kutsagarriak” hartzeko.

Esku hartze hauek ez dira inoiz gauzatu, eta HAPOaren berrikuspenak aipatutako eremuak desklasifikatzea proposatzen du.

Horien ordeztan, Aurrerakinak Lizarrusti ingurua Aisialdiko eta ingurumen-zabalkundeko gunea gisa izendatzea proposatzen du, eta Antolamenduko Plan Bereziaren bidez garatzea.

Horrek guztiak Lizarrusti inguruan egun aurki eta etorkizunean proposa daitezkeen azpiegitura turistikoak antolatzea du xede, eskualdeko izaera izango duen (LAG) eta lurraldeari atxikia egongo den jardura turistikoa sustatuz, udalerriko eredu sozio-ekonomikoa dibertsifikatzea helburu izango duena.

Nolanahi ere, Lizarrusti ingurua Aralar Parke Naturalaren barnean kokatzen da eta, arestian esan bezala, bertan proposatzen den edozein jarduerak haren antolaketa eta kudeaketarako onartutako era askotariko araudia bete beharko du.

4 LURRALDEAREN INGURUMEN AZTERKETA

Atal honetan Ataungo udalerrriaren ingurune fisiko eta biotikoaren karakterizazio orokorra era xehatuan jasotzen da.


4.1 PLANAREN JARDUN ESPARRUA ETA KOKAPENA

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren jarduera-eremua Ataungo udalerrri osoa da. Udalerrria Goierri eskualdean dago, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren hego-ekialdean. Udalerrriaren zati esanguratsu bat (azaleraren %75) Aralar Parke Naturalaren barruan dago. Ataunek 58,36 km²-ko azalera du gutxi gorabehera eta 10x10 km-ko UTM lau lauki hauen artean aurkitzen da: 30T WN66, 30T WN76, 30T WN65 eta 30T WN75.

Udalerriko mugaketari dagokienez, iparraldean Lazkao eta Zaldibiako udalerriekin egiten du muga; ekialdean Enirio-Aralarrekin; hegoaldean Nafarroako Foru Komunitateko lurraldeekin; hego-mendebaldean Gipuzkoako Partzuergo Txikiarekin eta azkenik, mendebaldean Idiazabalekin egiten du muga.

Bertara iristeko GI-2120 errepidea erabili daiteke, N-1 errepidea Beasainen atzean utzita. GI-2120 errepideak udalerrria zeharkatzen du iparraldetik hego-ekialderaino, San Martin auzotik Lizarrustiko leporaino zehazki, non Nafarroako lurraldean sartzen den. Errepide honetatik beste lau tokiko errepide ateratzen dira: GI-6151, Aitzarte aldera; GI-3151, Aiako auzora; GI-4152, Motasorora; eta GI-3152 Lauztierreka auzora doana.

Udalerrriaren egiturari dagokionez, oso zabaldua dago auzo ugarietan eta biztanleria gehiena San Martin, San Gregorio eta Aia auzogunetan bizi da.




1. Irudia Ataungo udalerraren kokapena.

4.2 KLIMA

Ataungo udalerririk klima epel ozeanikoa du, orokorrean tenperatura leunekin, hezetasun erlatibo handia eta prezipitazio ugari, baita hilabete lehorrenetan ere.

Ataunen bertan ez da inongo estazio meteorologikorik kokatzen, baina udalerritik kilometro gutxitara, Ordiziako udalerrian zehazki, estazio meteorologiko bat aurki daiteke (C043). Euskalmetek argitaratutako 2023ko txosten meteorologikoan erregistratutako datuen arabera, urteko batz besteko tenperatura 14,2°C-koa izan da, eta guztira 996,9 l/m² prezipitazio bildu dira urte osoan zehar.



2. Irudia Batez besteko tenperaturak, maximoak, minimoak eta prezipitazio-diagrama. Oriziko estazio meteorologikoa. Iturria: 2023ko txosten meteorologikoa, Euskalmet.

4.3 INGURUNE FISIKOA


4.3.1 OROGRAFIA¹

Morfologiaren ikuspegitik bi eremu ezberdin bereizi daitezke:

- Mendialdea: Agauntza ibarretik bi alboetara zabaltzen den mendi malkartsuak, Aralarko Parke Naturalaren mugapeko altitude handieneko lurra barneratzen dituena udalerraren ekialdean. Gehienetan eremu hauek basogintzara zuzendutako erabilera dute, orografia lagungarri den tokietan baserrietako jardueri lotutako larreak eta laborantzak tartekatzen direlarik, eta Enirio-Aralarren goi-larreetako eremu zabalak Aralarreko kota altuetan.
- Behealdea: Agauntza ibaiaren ibarretako eremu estuak, non egoitzetarako eta industriadetako hiri-lur gehienak kokatzen diren, eta baita EAEko Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak balio estrategiko altukotzat hartzen dituen lurra ere.

¹ GeoEuskadi. Euskal Autonomia Erkidegoko Datu Espazialen Azpiegitura.

Udalerraren orografia hobeto ulertzeko, azalera lurzoruaren maldaren arabera sailkatu da, eta lurraldearen hedadura malda tarteen arabera kalkulatu da.



3. Irudia Ataun udalerriko maldak.

6. Taula Ataungo udalerriko malda tartek eta hauen azalerak.

Malda tartea (%)	Azalera (ha)	Udalerriko zenbatekoa (%)
0-10	133,21	2,28
10-20	334,94	5,74
20-30	679,49	11,65
30-50	2.326,36	39,88
50-75	2.115,01	36,26
75<	244,46	4,19

Nabarmentzekoa da lurzoru lauak, %10 baina malda txikiagoa duten eremuak, oso gutxi direla, hau da, 133 ha inguru, udalerriko azaleraren %2,3 bakarrik. Eremu oso malkartsuek, aldiz, %50 baina malda handiagoa duten eremuek, 2.359 ha inguruko azalera hartzen dute, udalerriko azaleraren %40.

4.3.2 EZAUGARRI GEOLOGIKOAK^{2,3}

Euskadiko mapa geologikoaren arabera, Ataungo udalerrria behe kretazeoko materialen gainean kokatzen da nagusiki, udalerrriaren hegoaldea izan ezik, bertan behe-goi kretazeoko materialak agertzen dira.

7. Taula Ataungo udalerrrian aurkitzen diren unitate geologikoak

Unitate geologikoak	Iragazkortasuna	Azalera (ha)	Udalerrriaren ehunekoa (%)
038 - Moluskuen eta oolitoen kareharriak	Altua pitzaduragatik	23,57	0,40
041 - Kareharri urgoniar masiboak edo banku metrikoetan, errudistekin eta koralekin. Tokian bertan olistolitoak	Ertaina pitzaduragatik	638,29	10,95
043 - Kareharri urgoniar ezpuruak	Ertaina pitzaduragatik	444,42	7,62
049 - Tokian-tokian estratifikatutako hareharri silizeoak, edo konglomeratikoak edo ferruginosoak. Lutita-iraganaldiak	Ertaina porositategatik	213,68	3,67
050 - Hareharriak, batzuetan karetsuak, eta lutitak tartekatua. Oso tokian-tokian, maila bolkaniko edo kong-ekin	Baxua porositategatik	1.034,22	17,74
051 - Arrailak, slump-ak, lutita beltzak. Tokian-tokian megaturbiditak	Ertaina porositategatik	30,13	0,52
056 - Lutita karetsuak edo silizeoak, ale oso fineko hareharri ilunak. Oso tokian-tokian konglomeratikoak	Baxua porositategatik	72,80	1,25
087 - Kareharri konglomeratikoak eta hareatsuak	Ertaina pitzaduragatik	14,06	0,24
088 - Kareharri bioklasikoak eta kare-arrakala konglomeratikoak	Altua pitzaduragatik	8,51	0,15
089 - Lutitak, hareharriak, tuparriak. Tokian bertan kareharri hareatsuak, errudistak edo ostreituak	Baxua pitzaduragatik	742,90	12,74
090 - Hareharriak eta lutitak	Baxua porositategatik	5,46	0,09
091 - Margak, kareharriak, arrailak eta turbiditak. Limolitak eta hareharriak. Kalkarenitak eta margak	Baxua pitzaduragatik	1.669,46	28,64
092 - Hareharri silizeoak edo kareharriak, kareharri hareatsuak. Localm. Konglomeratikoak edo lutitekin edo arrakalarekin	Ertaina porositategatik	2,84	0,05
094 - Kare-arrailak, tuparriak, turbiditak. Errudisten kareharriak tokian-tokian	Ertaina pitzaduragatik	758,34	13,01
095 - Margak, limolita ilun silizeoak eta hareatsuak (Itziarko margak)	Baxua pitzaduragatik	15,02	0,26
184 - Alubioi-metaketak, alubioi-kolubialak	Ertaina porositategatik	86,86	1,49

² Mapa Geológica del País Vasco (1:200.000), 1991. Ente Vasco de Energía (EVE).


³ Geoeuskadi. Euskal Autonomia Erkidegoko Datu Espazialen Azpiegitura (Litologia, Geomorfologia, Interes Geologikoko Lekuak).

185 - Metaketa kolubialak	Altua porositateagatik	69,02	1,18
GUZTIRA		5.829,60	100,00

Ataunen aurki daitekeen unitate litologiko nagusia margak eta kareharriak dira, hareharriak ere agertzen direlarik. Litologiaren aldetik, udalerrian aurki daitezkeen materialak hurrengo taulan bildu dira:

8. Taula Ataunen aurkitzen diren unitate litologikoak.

Unitate litologikoak	Azalera (ha)	Udalerraren ehunekoa (%)
Gainazaleko metaketak	155,89	2,67
Ale lodiko harri detritikoak (hareharriak)	216,52	3,71
Detritiko txandakatuak	1.885,52	32,34
Karbonogabeko margak	15,02	0,26
Kareharri ezpuruak eta kalkarenitak	1.216,83	20,87
Kareharriak	670,37	11,50
Margokareharriak, kareharrizko margak eta kalkarenitak txandakatzea	1.669,46	28,64
GUZTIRA	5.829,60	100,00



4. Irudia Ataungo unitate litologikoak.

Horretaz gain, nabarmentzekoa da udalerraren ipar-ekialdean EAeko Interes Geologikoko Guneen zerrendan sartutako eremu bat dago:

- “Ataungo domoa”: Kareharri urgondarrez osatuta eta 1.000 metro baino gehiagoko gailurrak dituen domoa da. Interes zientifiko nabarmena du, batez ere balio tektoniko/estrukturala eta geomorfologikoa.

Egun duen eraztun itxurak atentzioa deitzen du, orogenia piriniarraren ondoriozko indarrek bertako indar perpendikular batzuekin elkarreaginez, lurrazala gorantz altxatu zen kupula itxurako mendi bat sortuz. Herrian Aitzarte bezala ezagutzen da⁴.

9. Taula Ataungo Domoaren datu orokorrak.

Ataungo domoa	Azalera (ha)	Azalera udalerrian (ha)	Udalerraren ehunekoa (%)
	2.267,47	1.839,75	31,56

4.3.3 EDAFOLOGIA ETA AHALMEN AGROLOGIKOA

Litologia, orografia, klima, landaretza eta, batzuetan, erabilera historikoa bezalako aldagaiek udalerrian banatzen diren lurzoru motak baldintzatzen dituzte.

Gipuzkoako lurraldean eskala txikian egindako aurretiazko azterketa edafologikoen arabera, Ataunen gehien aurkitzen diren lur-motak kanbisol eutrikoa, lubisol ortikoa eta akrisol humikoa dira, hiruetatik gehiena kanbisola izanik.

2014an argitaratutako Zoru-baliabidearen munduko oinarri erreferentzialaren arabera, kanbisolak klima guztietan eta lur lau zein menditsuetan aurki daitezke. Ama arrokak meteorizazio arina jasatearen ondorioz eraten dira eta ez dira ilubiazio bidez eraturako buztin, materia organiko eta Al/Fe konposantuen horizonte nabarmenik agertzen. Hala ere, lurzoru motan honetan bereizketa-horizonte hasiberri baten eraketa azaltzen da.

Lubisolak buztinezko bereizketa edafogenetikoa duten lurzoruak dira, hau da, beheko geruzak goiko geruzak baino buztin eduki gehiago izaten du buztinaren migrazioa dela eta. Akrisoletan ere buztinaren migrazioa ematen da.

Hedadura txikiagoan, udalerrian flubisolak agertzen dira. Lurzoru hauek ibai-metaketatik garatutako lurzoru gazteak dira. Azkenik, litosolak ere agertzen dira, sakonera gutxikoak. Hauek ohikoak dira eskualde menditsuetan.

10. Taula Ataungo udalerrian aurkitzen diren lur-motak.

Lur-motak		Azalera (ha)	Udalerraren ehunekoa (%)
Kanbisol	Kanbisol eutrikoa	1.488,88	40,26
	Kanbisol gleikoa	541,41	
	Kanbisol distrikoa	313,20	
Lubisol	Lubisol ortikoa	1.327,81	34,65
	Lubisol kaltzikoa	584,00	
	Lubisol gleikoa	105,36	

⁴ <https://www.ataunturismoa.eus/eu/ondarea/ondare-naturala/>


Akrisol	Akrisol humikoa	1.238,05	1.238,05	21,27
Flubisol	Flubisol eutrikoa	36,61	133,82	2,30
	Flubisol kromikoa	97,21		
Litosol		74,05		1,27
Lurzorurik gabe		8,58		0,15
U-ibilgua		5,83		0,10

Horretaz gain, Ataungo udalerrian mota agrologiko ezberdinak agertzen dira.

- Azaleraren gehiengoa baso lanerako baino erabil ezin daitezkeen lurrek estaltzen dute, udalerrri osotik zehar banatzen dira udalerrriaren % 80 hartuz.
- Larre-bokazioa duten lurzoruek, %20-30 arteko maldak dituztenak, udalerrri osoan zehar zabaltzen dira, udalerrriaren % 14 inguru.
- Nekazaritzarako balio ez duten lurrak malda handiko eremuetan aurkitzen dira batez ere, ingurua zaintzeko edo paisaietarako beste erabilpenik ez dutenak. Badira ere zenbait gune hiritartuak, auzoetako herriguneen inguruan batez ere. Guztira, udalerrriaren % 4 da mota honetakoa.
- Alubioi estuetan eta pilatutako malda txikiko mendi-hegaletan dauden ahalmen handieneko lurrak Agauntza ibarraren inguruan aurkitzen dira. Guztira, 105 ha inguru dira mota hauetako lurzoruek, udalerrriaren % 1,8 bakarrik.

11. Taula Mota agrologikoak Ataunen.

Mota agrologikoak	Azalera (ha)	Udalerrriaren ehunekoa (%)
III. Alubioi estuetan eta pilatutako malda txikiko mendi-hegaletan dauden lurrak	62,13	1,07
IV. Malda txikiko mendi-bizkarretan eta %20 < ko malda duten mendi hegaletan lantzeko lursailen mugan dauden lurrak	43,97	0,76
VI. Lantzeko zailak diren lurrak, iraunkortasunez larretarako edo egurretarako erabiltzen direnak soilik	802,07	13,78
VII. Baso lanerako baino erabil ezin daitezkeen lurrak	4.681,02	80,40
VIII. Nekazaritzarako balio ez duten lurrak, ingurua zaintzeko edo paisaietarako beste erabilpenik ez dutenak	232,88	4,00



5. Irudia Ataungo mota agrologikoak.

1988an Gipuzkoako Mota Agrologikoen Mapa egin zen⁵. Urte horretatik gaur egunera (35 urte) bitartean izandako aldaketak ezin dira oso garrantzitsutzat jo. Nolanahi ere, nabarmendu behar da eremu urbanizatuak handitu egin direla, batez ere ahalmen handieneko (III. eta IV. motak) mota agrologikoetako lursailei eragin dietenak.

12. Taula Mota agrologikoen bilakaera.

Mota agrologikoak	Azalera 1988 (ha)	Azalera 2022 (ha)	Bilakaera (ha)	Bilakaera (%)
III	69,50	62,13	- 7,38	- 10,6
IV	45,78	43,97	- 1,81	- 4,0
VI	803,62	802,07	- 1,55	- 0,2
VIII	4.681,49	4.681,02	- 0,47	0,0
VIII	221,66	232,88	+ 11,21	+ 5,1

Nekazaritza eta Basogintzarako Lurralde Plan Sektorialak (2014ko urriko behin betiko onarpena) soilik udalerrri azaleraren %23 zehazten du landa-lurraren antolamendua; izan ere, gainerakoa Babestutako Naturagunea baita, Aralar Parke Natural eta Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE), eta Sare honetako Agauntza ibaia KBE ere bai.


LPSaren arabera, udalerriko antolamendu kategoria bakoitzak hurrengo azalera hartzen du:

⁵ Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako Mota Agrologikoen Mapa. 1988.

13. Taula Basogintza eta nekazaritzarako LPSaren antolamendu-kategoriak udalerrian.

Antolamendu kategoriak	Azalera (ha)	Udalerraren ehunekoa
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	37,21	0,64
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	326,57	5,61
Basoa	936,01	16,08
Basoa-Mendi Urria	39,81	0,68
Larre Menditarra	2,59	0,04
GUZTIRA	1.342,19	23,05

LPSaren arabera azalera gehiena baso eremuak hartzen du, udalerraren % 16. Balio estrategiko altua duten eremuak Agauntza ibaitik gertu topa daitezke, udalerraren azaleraren % 0,64-a bakarrik estaliz.



6. Irudia Nekazaritza eta Basogintzaren LPSaren antolamendu-kategoriak udalerrian.

4.3.4 HIDROLOGIA

Sare hidrografikoa

Onartu berri den Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arabera (2022-2027 zikloa, 35/2023 Errege Dekretuaren bidez onartua) Ataungo udalerrian Planaren aplikazio-eremuaren barruan sartzen da. Zehazki, Oriako Unitate Hidrologikoan kokatzen da.


Oria UH-koa bi arro nagusietan banatzen da Ataungo udalerrian: Agauntza eta Zaldibia. Udalerriazaleraren % 96,23 Agauntza arroari dagokio, eta gainerako % 3,77 Zaldibikoari.

Udalerrian hiru ur-masa identifikatu dira: Agauntza ibaia I, Agauntza ibaia II, eta Zaldibia ibaia.

Udalerrri azaleraren % 80,97 Agauntza ibaia I-ek hartzen du, 4.690 ha baino gehiagoko azalerarekin. Agauntza ibaia II udalerrriaren iparraldeko jasotzen ditu eta honek udalerrriaren % 15 hartzen du. Azkenik, Zaldibia ibaia udalerrriaren ipar ekialdeko urak jasotzen ditu, eta udalerrri azaleraren ia %4 dagokio.

14. Taula Ur masa Ataungo udalerrian.

Arro isurialdea	Kodigoa	Azalera (ha)	Udalerrriaren ehunekoa (%)
Agauntza ibaia I	ESO20MAR002560	4.692,28	80,97
Agauntza ibaia II	ESO20MAR002540	883,77	15,25
Zaldibia ibaia	ESO20MAR002570	218,72	3,77



7. Irudia Sare hidrografikoa Ataungo udalerrian.

Uren kalitatea^{6,7}

2022-2027 Plan Hidrologikoan egindako sare hidrografikoaren jarraipen eta egoera ebaluazioaren arabera, Agauntza ibaia I arro isurialdea osatzen duten ur-masak izaera naturalekoak dira. Gainera, ur-masen egoera ekologikoa zein kimikoak kalitate ona adierazten dute. Hala ere, 2019ko balorazioa, aurretik egindako balorazioetan oinarritzen da presio esanguratsurik ez izateagatik.

⁶ Anbiotek & Cimera, 2020. Ibaien egoera biologikoaren jarraipena egiteko sarea. 2019ko Emaizten txostena. URA.

⁷ Laboratorios Tecnológicos de Levante & Ekolur, 2020. Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien egoera kimikoaren jarraipena egiteko sarea. 2019ko Emaizten txostena. URA.

15. Taula Agauntza Ibaia I arro isurialdearen ur-masen kalitatea.

Escenario PH2			Escenario PH3			Estado Ecológico					Estado Químico					Estado Total				
EE	EQ	E	EE	EQ	E	15	16	17	18	19	15	16	17	18	19	15	16	17	18	19
B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B*	B	B	B	B	B*	B	B	B	B	B*

Era berean, Agauntza Ibaia II arro isurialdea osatzen duten masek ere izaera naturala dute, eta kalitateari dagokionean orokorrean egoera onean aurkitzen dira, hauen egoera ekologiko zein kimikoa ona izanik.

16. Taula Agauntza Ibaia II arro isurialdearen ur-masen kalitatea.

Escenario PH2			Escenario PH3			Estado Ecológico					Estado Químico					Estado Total				
EE	EQ	E	EE	EQ	E	15	16	17	18	19	15	16	17	18	19	15	16	17	18	19
B	B	B	B	B	B	Mo	B	B	B	B	B	B	B	B	B	PB	B	B	B	B

Amaitzeko, Zaldibia Ibaia arro isurialdeko ur masen egoera ere ona da.

17. Taula Zaldibia Ibaia arro isurialdearen ur-masen kalitatea.


Escenario PH2			Escenario PH3			Estado Ecológico					Estado Químico					Estado Total				
EE	EQ	E	EE	EQ	E	15	16	17	18	19	15	16	17	18	19	15	16	17	18	19
B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B

Lurpeko urak

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arabera (2022-2027 zikloa), Ataungo udalerrria Hegoaldeko sinklinorioan (ES017MSBT017-006) eta Aralar (ES017MSBT013-014) lurpeko ur-masen gainean kokatzen da. Hegoaldeko sinklinorioak ia 4.000 ha-ko azalera hartzen du Ataunen udalerrri azaleraren % 67 estaliz. Aralarreko lurazpiko ur-masak ia 2.000 ha-ko azalera du udalerrrian, % 32 estaliz. Aldi berean bi sektoreak kalitate orokor ona aurkezten dute.

Horretaz gain, Ataunen lau urpeko ur-masen sektore agertzen dira eta lauak Aralar ur-masaren barruan kokatzen dira.

EAEko lurpeko uren kontrol sareko azken datuen arabera, Aralarreko ur-masak Osinberde iturburuko (SC58) kontrol-estazioan egoera kimiko ona du.



8. Irudia Ataungo udalerrian aurkitzen diren lurrazpiko ur-masak eta sektoreak.


Eremu Babestuen Erregistroa (Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrologikokoaren Plan Hidrologikoa)⁸

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrologikoko Plan Hidrologikoko eremu babestuen erregistroak barne hartzen ditu ingurune urtarrarekin zerikusia duten eta Erkidegoko araudia eta beste araudi batzuk aplikatuz babestuta dauden eremuak. Zehazki, Ataungo udalerraren barruan eremu hauek aurkitzen dira:

- Hornidurarako ura hartzeko lurrazaleko hartuneak:
 - o Agostuzarreta, Albizta, Asinaltza, Remedios eta Soroitxar iturburuak
 - o Aiaiturrieta iturburua
 - o Otsinberde iturburua
- Habitat eta espezieak babesteko eremuak: KBE/ZEC ES2120011 Aralar eta KBE/ZEC ES2120005 Oria Garaia
- Babes berezia duten ibai-tarteak:
 - o Agauntza ES017TIME1610100294
 - o Zaldibia ES017TIME1610100295

⁸ Real Decreto 35/2023, de 24 de enero, por el que se aprueba la revisión de los planes hidrológicos de las demarcaciones hidrográficas del Cantábrico Occidental, Guadalquivir, Ceuta, Melilla, Segura y Júcar, y de la parte española de las demarcaciones hidrográficas del Cantábrico Oriental, Miño-Sil, Duero, Tajo, Guadiana y Ebro.

- Bestelako babes figurak: Espezie mehatxatuen interes bereziko eremuak (Ugaztunen babesa *Galemys pyrenaicus*)



9. Irudia Eremu Babestuen Erregistroan identifikatzen diren elementuak Ataungo udalerrian.

4.4 INGURUNE BIOTIKOA

4.4.1 LANDAREDIA ETA LURZORUAREN ERABILERAK


Atal hau osatzeko oinarrizko erreferentzia gisa, Geoeuskadiko habitaten, egungo landarediaren eta lurzoruen erabileren kartografia (1:10.000 eskala) kontsultatu da. Halaber, Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistema kontsultatu da. Ondoren, 2022ko ortoargazkia fotointerpretatuz eta EAEko Baso Mapa (2022) erabiliz, egun dagoen errealitatea islatzeko egokitzapenak egin dira, landa-lanaren bidez egiaztatu direnak. HAPOaren helburu eta eskumenei dagokionez, landarediaren zehaztapen lanak, orokorrean, udalerrian Parke Naturaletik kanpo dauden eremuetara mugatu dira.

4.4.1.1 Landaredi potentziala eta lurzoruen erabilera

EAEko Landaretza Serieen Maparen arabera, Ataungo udalerrian azalera gehiengan harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa agertzen da, erdialdetik iparraldera hedatuz. Hegoaldean aldiz, azalera handiarekin ere pagadi azidofiloa azaltzen da. Tarteka beste espezie batzuen baso formazioak agertu beharko lirateke, hala nola, artadi kantauriarra, hegoaldera begira eta sakonera txikiko lurzoruetako hegal malkartsuetan batez ere. Era berean, formazio horien artean, ur-ibilguzuei lotutako haltzadi kantauriarra egongo litzateke.

18. Taula Ataungo landaredi potentzialaren azalerak.

Landaretza	Azalera (ha)	Udalerriaren ehunekoa (%)
Harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa	2.167,18	37,23
Pagadi azidofiloa	2.116,97	36,37
Artadi kantauriarra	690,90	11,87
Pagadi kaltzikola edo eutrofikoa	481,54	8,27
Haltzadi kantauriarra	315,52	5,42
Karaitzetako komunitate-komplexua	44,94	0,77
Amezitia	3,79	0,07




10. Irudia Ataungo landaredia potentziala.

4.4.1.2 GAUR EGUNGO LANDAREDIA ETA LURZORUAREN ERABILERAK

Gaur egungo landarediari erreparatuz, nabaria da giza jarduerak eragin duten aldaketa. Pagadien kasuan, ikus daiteke pagadi azidofilo zein basofilo edo neutroaren hedadura nahiko egonkor mantendu dela urteekin, nahiz eta honen azalera murriztu den. Era berean, artadi kantauriarrak eremu berdinean jarraitu du eta bere azalera ere zerbait murriztu da.

Harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoaren kasuan ordea, askoz ere nabariagoa da giza jardueraren eragina. Eremu horretan zehar landaketa ezberdinak eta belardi zein larreak aurki daitezke gaur egun. Hala ere, nabarmenezkoa da gaur egun, udalerriaren azaleraren gehiengoa (%52) bertako basoek estaltzen dutela, guztira 3.000 ha inguruko eremua hartuz.

Ondorengo taulan Ataunen identifikatutako lurzoruaren erabilera eta landaredia multzo nagusiak biltzen dira, eta bakoitzaren deskribapen orokorra egiten da.



11. Irudia Udalerriko gaur egungo landarediaren eta lurzoruaren erabilerak.

19. Taula Udalerriaren landaredia eta lurzoruaren erabilerak eta bakoitzaren azalera.

Lurzoruaren erabilera	Azalera (ha)	Udalerriaren %
Bertako basoak	3.014,41	51,64
Harkaiztietako landaredia	16,07	0,28
Sastrakadiak	270,08	4,63
Belardi eta larreak	729,13	12,49
Ur ibilguak	4,26	0,07
Baso landaketak	1.732,92	29,69
Baratza eta frutarbolak	25,78	0,44
Eremu artifizializatuak	38,48	0,66

1. Bertako basoak

Unitate honetan espezie autoktonoen baso-habitatak sartzen dira. Gizakiak uneren batean esku hartu badu ere, asaldurarik gabe eremuan garatuko litzatekeen landaredi potentzialari erantzuten diote. Orokorrean, kudeaketa maila baxua jasan dute eta, ondorioz, naturaltasun- eta biodibertsitate-maila handia dute. Guztira 3.000 ha inguruko azalera hartzen dute, hau da, udalerriaren azalaren % 52, batez ere Aralar Parke Naturalaren barne dauden eremuetan, udalerriaren hegoaldean eta Agauntza ibaitik ekialdera, domoaren inguruan.

Unitate honetan nagusitzen den habitata pagadiak dira (EUNIS G1.62 eta G1.64), 1.860 ha azalerarekin. Hego eta ekialdeko kota altuetan garatzen dira, tamaina handia duten aleez osaturiko basoak eratuz. Bigarrenik, *Quercus robur* nagusitzen deneko baso azidofioloak daude (EUNIS G1.86), orotara 540 ha azalerarekin. Baso hauek Lizarrustirako bidearen bi alboetan zabaltzen dira, masa handiak eratuz, eta Parke Naturaletik kanpo ere bere presentzia aipagarria da, naiz eta masa txikiago eta sakabanatuagoak eraten dituen baso landaketen eta bestelako erabileren artean. Bestetik, artadiak (EUNIS G2.121) baita presentzia esanguratsua dute GI-2120 errepidetik ekialdera. Bi lerrokadura nagusietan zabaltzen dira, errepidearen eta domoaren arteko maldetan, guztira, 300 ha hartuz.

Azkenik, duten interesagatik, ibaiertzeko haltzadia (EUNIS G1.21(Z)) aipatu beharra dago, gutxi gorabehera 37 ha hartzen dituelarik Agauntza ibaia eta Lauztierreka eta larrainsoroetako erreketan zehar. Orokorrean kontserbazio egoera oso ona dauka, naiz eta zenbait puntuetan, batez ere hirigunean zehar, hauen hedadura murriztua izan.

Aipatutakoez gain, udalerrian presentzia txikiagoa duten beste baso habitat batzuk ere badaude: amezti eurosiberiarra, hostozabalen baso mistoa, bertako espezieen heskaiak, ibaiertzeko lizardia, kararrizko arroiletako baso mistoa, sahastiak eta urkidiak.

Adierazi beharra dago ere *Robinia pseudoacacia* zuhaitz aloktono inbaditzailearen presentzia ikuskatu dela puntu batzuetan hiriguneetatik gertu zabaltzen dituen basoetan.



Ibaiertzeko haltzadia Agauntza ibaian, hirigunean zehar.



Quercus robur nagusitzen den basoak eta bertako espezieen heskaiak.



Pagadia Lizarrusti inguruan.



Landazabala eta baso mosaikoa, hariztiarekin kota baxuetan eta artadia kota altuagoetan.

Artadia.



Baso naturala eta baso landaketen mosaikoa *Robinia pseudoacacia* ale sakabanatuekin.

2. Harkaiztietako landaredia

Parke Naturalaren barnean, domoaren harkaiztietan, substratu harritsuak dituen baldintzetara egokitutako landaredia garatzen da (EUNIS H3.2), konposizio floristiko oso desberdina duena, besteak beste, altuera, argi kantitatea eta hezetasunaren gradientearen arabera. Hemen espezie ohikoenak *Onosmetalia frutescens*, *Potentilletalia speciosae*, *Asplenium petrarchae*, *Polypodium australis*, *Saxifraga media*, *Potentilletalia caulescens*, eta *Asplenium trichomanes* dira. Unitate honek interes ekologiko handia du, eta udalerrian 16 ha hartzen ditu.

3. Sastrakadiak

Sastrakadiak habitat erdinaturalak dira, basoaren aurreko ordezipen-faseari dagozkionak. Besteak beste, artzaintzarako eta abereentzako ohe-bilketarako mantendu izan dira historikoki, bertan txilardiak garatuz *Genista sp.* zein *Ulex sp.*-rekin (EUNIS F7.44 eta F4.23(X)) edota *Ulex europaeus*-en otadiak (EUNIS F3.15), interes ekologiko handia izan dezaketenak. Hala ere, badira beste zenbait sastrakadi baso landaketak moztu ondoren bertan behera utzitako eremuetan garatu direnak, gaur egun erabilera espezifikorik ez dutenak, eta birsortzen ari diren baso gazteek ordezkatzeko dituztenak, iratzedia, arantzadi edo lahardiarekin. Hauen interes ekologikoa txikiagoa da biltzen dituzten espezieengatik, dena dela, potentzialtasun handia dute, denborarekin, bertan baso naturalak garatzeko. Guztira, Ataunen sastrakadiak 270 ha biltzen dituzte.

4. Belardi eta larreak

Unitate honetan belardiak garatzen diren habitat erdinaturalak biltzen dira, batez ere eremu lauetara mugatzen direnak, historikoki abeltzaintzarako eta laborantzarako erabili izan direnak. Habitat hauek azalera handiko lursail irekiak bezala konfiguratu dira, eta heskaiak eta zuhaixka- eta baso-ale isolatuak izateaz gain, flora- eta fauna-aniztasun handia izan dezakete, baita balio ekologiko handia ere.

Ataunen eremu lauak Agauntza eta beste errekek eratzen dituzten bailaretara mugatzen dira batik bat, gaur egun herriguneei eta baserriei estuki loturik. Azken urteotan hauen azalera murrizten joan da, hiriguneeen hedapenarekin eta abeltzaintzaren eta beste erabilera tradizionalak bertan behera uztearen ondorioz.

Gaur egun, Ataunen, guztira 729 ha biltzen dituzte, eta ezaugarri ezberdinak dituzten larreak identifikatzen dira, hala nola, floristikoki interes handia duten larratu gabeko segabelardi atlantiarrak (EUNIS E.2.21), Albiztiak eta Mesobromion taldeko larreak (EUNIS E1.26), Agrostis eta Festuca-ren mendiko larreak (EUNIS E1.72) eta belardi eta larre alpetar, azpialpetar era oromediterraneoak (EUNIS E4.4).

Merezi du aipatzea belardi hauek jasotzen duten kudeaketaren arabera ere (sega kopurua, abere kopurua, etab.) beren ezaugarriak asko aldatu daitezkeela, garatzen diren espezieen dibertsitatea moldatuz, eta ondorioz, batzuen sailkapena oso aldakora izan daiteke denboran zehar.



Domo inguruko harkaitzak.



Baso naturala birsortzen ari den sastrakadia.



Sastrakadi eta baso natural gaztea.



Segabelardiak eta belardi larratuak.



Larratuak ez dauden belardiak.



Maiz segatzen diren larreak.

5. Ur ibilguak

Unitate honetan zuhaitz estaldura txikia duten Agauntzaren ibai-tarteak sartzen dira, batez ere hiriguneetan zehar. Hala ere, ibaira lotuta garatzen den landaredia haltzadiaren berezko espeziekin bat dator, haltza eta lizarrekin nagusiki, eta baita makal, astigar eta urritzekin. Habitat honek interes ekologiko altua du eremu urtarrari loturiko faunaren dispersio eta mugimendurako.

6. Baso landaketak

Lurraldearen ezaugarri morfologikoek (malda handiek batik bat) lurzoruaren erabilera baso ustiapenetera bideratzea bultzatzen dute neurri handi batean. Zentzu honetan, baso-landaketek 1.730 ha hartzen dituzte Ataunen. Espezie ugari ustiatzen dira, baina koniferoak dira nagusi; zehazki intsignis pinua (*Pinus radiata*), douglas izeia (*Pseudotsuga menziesii*), larizio pinua (*Pinus nigra*) eta alertzea (*Larix sp.*).

Landaketa hauek formazio artifizialak dira nagusiki, aldizkako mozketen bidez modu intentsiboan ustiatzen diren monolaborantzez osatuak; beraz, biodibertsitate urria dute eta funtzio ekosistemiko mugatuak dituzte.

Aipatu beharra dago, EUNIS kartografiaren arabera *Robinia pseudoakazia* espezie inbaditzailearen bi landaketa identifikatzen direla Ataunen, bat Lazkaoko mugan, eta bestea Lizarrustiko bidean. Kanpo lanean ez dira masa hauek identifikatu, gaur egun erabilera hauetara erabiltzen ez direla esan nahiko lukeena, baina Lazkaoko mugan bai identifikatu direla ale sakabanatu batzuk beste landaketen inguruan.

7. Baratza eta frutarbolak

Baserri eta nekazal erabilerekin loturik Ataunen 25 ha identifikatzen dira zeinek baratza erabilera duten edota frutarbolak landatu diren. Eremu hauek, orokorrean, interes agrologiko handiko lurretan kokatzen dira, eta aproposak dira erabilera hauetarako, baina ez dute interes berezirik biodibertsitate eta ekologiarik dagokionez.

8. Eremu artifizialak

Azkenik, unitate honetan eraldaketa maila handia duten eremuak biltzen dira, eraikin, bide, urbanizazio edo bestelako azpiegiturekin okupaturik egoteagatik. Orokorrean landarediarik gabeko eremuak dira,

edo agertzen diren espezieak ruderal eta nitrofiloak dira, interes ekologikorik gabekoak. Ataungo hiri gune nagusiak sartzen dira kategorian honetan, eta baita harrobia ere. Guztira, 40 ha inguru biltzen ditu.



Landaredia estaldurarik gabeko Agauntza ibaiaren tartea.



Koniferoen baso landaketen mosaikoa malda handiko mendi magaletan.



Baso landaketak, duela gutxi moztutako landaketak eta landaketa gazteak.



Frutarbolak etxebizitzaren inguruan.



Baratzak belardi eta etxebizitzaren inguruan.



Hiri eremua.

4.4.1.3 INTERES BEREZIKO LANDAREDIA

Eusko Jaurlaritzako EAEko habitaten mapak jasotzen duenez⁹, Ataunen Europar Batasunaren Intereseko Habitat ezberdinak topa daitezke.


Lehen adierazi bezala, azkeneko urteotan aldaketak ageri dira lurraldearen landaredian, eta ondorioz, Eusko Jaurlaritzako mapan jasotako Batasuneko Intereseko Habitaten azalerak ez dator guztiz bat gaur egungo egoeraren arabera moldatutako landarediaren azterketatik eratorriko azterketarekin. Hala ere, gogoratu beharra dago moldaketa hauek Aralar Parke Naturaletik kanpo Ataunen dauden lursailetara mugatu direla soilik.

Ondoren, Eusko Jaurlaritzako EAEko habitaten mapatik eta HAPOrako moldatutako kartografiatik eratorritako datuak konparatzen dira. Ikusi daitekenez, aldaketak orokorrean txikiak dira eta, behar bada, aipagarriena *Ulex sp.* txilardien murrizpena izan daiteke. Onen arrazoia da, eremu hauetako batzuk naturalki baso autoktono gazteei utzi diotela lekua.

20. Taula Batasunaren Intereseko Habitatak Ataungo udalerrian eta hauen azalerak.

Kod.	Batasunaren Intereseko Habitatak	EAEko habitaten maparen arabera		HAPOrako moldatua	
		Azalera (ha)	Udalerraren %	Azalera (ha)	Udalerraren %
4030	<i>Ulex sp.</i> nagusitzen den txilardi atlantiarra	36,17	0,62	27,31	0,47
4090	Txilardi kaltzikola atlantiarra, <i>Genista</i> -rekin	16,23	0,28	16,23	0,28
6170	Zelai eta larre alpetarrak, subalpinoak eta oromediterraneo kaltzikolak	60,98	1,04	60,98	1,04
6210	Albiztiak eta <i>Mesobromion</i> taldeko larreak	42,00	0,72	42,00	0,72
6510	Larratu gabeko segabelardi atlantiarra	510,05	8,74	503,90	8,63
8210	Harkaizti basikoetako landaredia	16,14	0,28	16,14	0,28
9120	Pagadi azidofilo atlantiarra	1.559,98	26,73	1561,33	26,75
9230	Amezti eurosiberiarra	0,98	0,02	1,75	0,03
9260	Gaztainadiak edo gaztain-landaketa zaharrak	0,82	0,01	2,57	0,04
9340	Artadi kantauriarra	298,05	5,11	299,81	5,14
6210*	Albiztiak eta <i>Mesobromion</i> taldeko larreak	16,29	0,28	13,07	0,22
6230*	<i>Agrostis</i> eta <i>Festuca</i> -ren mendiko larreak	93,85	1,61	94,16	1,61
9180*	Kararrizko arroiletako baso mistoa	26,56	0,46	26,56	0,46
91E0*	Ibaiertzeko haltzadi eta lizardi eurosiberiarra	38,96	0,67	37,34	0,64

⁹ <https://www.geo.euskadi.eus/geobisorea/>



12. Irudia Batasunaren Intereseko Habitatak Ataungo udalerrian

Bestalde, Europako Arteztarauak hariztiak eta bestelako hostozabal interesdunak garrantzi komunitarioko habitat gisa hartzen ez baditu ere, balio ekologiko handiko formazioak dira, eta ez dute oso azalera handia Gipuzkoako lurraldean; izatez, asko murriztu dira beste formazio batzuen alde (larreak, baso-berritzeak, e.a.). EAEko natura babesten duen 2/2013 Legeak lurraldean dauden bertako baso-masak babesteko interesa nabarmendu du.

4.4.1.4 Flora espezie mehatxatuak

EAEko Natura Babesteko 16/94 Legeak sortutako Fauna eta flora Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoaren arabera, Ataungo udalerria barne hartzen dituen 10x10 Km-ko UTM kuadriletan (30T WN66, 30T WN76, 30T WN65 eta 30T WN75) agertzen diren landare mehatxatuak ondorengo kategorietan sailkatzen dira. Datuak Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemaren bidez bildu dira.

21. Taula Ataungo udalerria inskribatzen den 30TWN66, 30TWN76, 30TWN65 ETA 30TWN75 (10X10 km) kuadriletan agertzen diren flora espezie mehatxatuak. *B: Bakana; K: Kaltebera, GA: Galtzeko arriskuan; IB: Interes Berezia.

Espezieak	Mehatxu kategoria*	Habitat nagusia
<i>Allium victorialis</i>	B	Harkaitz eta larreak
<i>Armeria pubinervis Boiss</i>	B	Itsaslabarrak
<i>Arnica montana</i>	K	Belardi, txilardi eta sastrakadiak
<i>Carlina acaulis subsp. caulescens</i>	B	Belardiak

<i>Crepis pyrenaica</i>	K	Belardiak
<i>Festuca rubra</i>	K	Dunak
<i>Geum pyrenaicum</i>	K	Harkaitz eta dunak
<i>Geum rivale</i>	GA	Harkaitzak
<i>Himantoglossum hircinum</i>	B	Belardiak
<i>Ilex aquifolium</i>	IB	Basoak
<i>Lycopodium clavatum</i>	B	Belardi, txilardi eta sastrakadiak
<i>Narcissus pseudonarcissus subsp. nobilis</i>	IB	Txilardi eta sastrakadiak
<i>Paris quadrifolia</i>	B	Baso eta belardiak
<i>Pedicularis foliosa</i>	B	Harkaitzak
<i>Petrocoptis pyrenaica</i>	B	Harkaitzak
<i>Quercus robur</i>	IB	Basoak
<i>Ranunculus aconitifolius</i>	GA	Hezeguneak
<i>Ribes petraeum</i>	B	Harkaitzak
<i>Ruscus aculeatus</i>	IB	Basoak
<i>Taxus baccata</i>	IB	Basoak
<i>Tofieldia calyculata</i>	K	Orotarikoa
<i>Tozzia alpina</i>	K	Goi-mendiak
<i>Trollius europaeus</i>	K	Baso eta larreak
<i>Veratrum album</i>	IB	Belardiak
<i>Viburnum tinus</i>	IB	Basoak

4.4.2 INTERESEKO FAUNA

Espezie mehatxatuen EAEko katalogoaren arabera, Ataungo udalerria aurkitzen den 10 x 10 km-ko UTM laukietan hurrengo espezieen aipamenak egiten dira. Datuak Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemaren kontsulta bidez bildu dira.

Espeziea	Izen arrunta	Mehatxu kategoria	Habitat nagusia
EGAZTIAK			
<i>Accipiter gentilis</i>	Aztore arrunta	B	Basoa
<i>Accipiter nisus</i>	Gabirai arrunta	IB	Basoa
<i>Acrocephalus scirpaceus</i>	Lezkari arrunta	B	Hezeguneak
<i>Actitis hypoleucos</i>	Kulixka txikia	B	Ibaiak eta lakuak
<i>Alcedo atthis</i>	Martin arrantzalea	IB	Ibaiak eta lakuak
<i>Anthus campestris</i>	Landa-txirta	IB	Landazabala
<i>Aquila chrysaetos</i>	Arrano beltza	K	Basoa, landazabala
<i>Asio flammeus</i>	Zingira-hontza	B	Orotarikoa
<i>Athene noctua</i>	Mozoloa	K	Landazabala
<i>Bubo bubo</i>	Hontza handia	B	Harkaitzak
<i>Burhinus oedicnemus</i>	Atalarra	GA	Landazabala

<i>Caprimulgus europaeus</i>	Zata arrunta	IB	Landazabala, sastrakadia
<i>Certhia familiaris</i>	Basoetako gerri-txoria	B	Basoa
<i>Charadrius dubius</i>	Txirritxo txikia	K	Ibaiak eta lakuak
<i>Ciconia ciconia</i>	Amiamoko zuria	B	Hezeguneak
<i>Ciconia nigra</i>	Amiamoko beltza	B	Hezeguneak
<i>Cinclus cinclus</i>	Ur-zozoa	IB	Ibai-ibilguak
<i>Circaetus gallicus</i>	Arrano sugezalea	B	Basoa, sastrakadia
<i>Circus aeruginosus</i>	Zingira-mirotza	B	Hezeguneak
<i>Circus cyaneus</i>	Mirotz zuria	IB	Landazabala
<i>Coccothraustes coccothraustes</i>	Mokolodia	IB	Basoa
<i>Corvus corax</i>	Erroia	IB	Orotarikoa
<i>Dryobates minor</i>	Okil txikia	IB	Basoa
<i>Dryocopus martius</i>	Okil beltza	B	Basoa
<i>Emberiza hortulana</i>	Miarritza	IB	Landazabala
<i>Emberiza schoeniclus</i>	Zingira-berdantza	B	Hezeguneak
<i>Falco columbarius</i>	Belatz txikia	B	Belardiak
<i>Falco peregrinus</i>	Belatz handia	B	Harkaitzak
<i>Falco subbuteo</i>	Zuhaitz-belatza	B	Basoa
<i>Ficedula hypoleuca</i>	Euli-txori beltza	B	Basoa
<i>Glis glis Linnaeus</i>	Muxar grisa	K	Basoa
<i>Grus grus</i>	Kurrilo arrunta	IB	Hezeguneak
<i>Gypaetus barbatus</i>	Ugatza	GA	Harkaitzak
<i>Gyps fulvus</i>	Sai arrea	IB	Harkaitzak
<i>Hieraaetus pennatus</i>	Arrano txikia	B	Basoa, landazabala
<i>Jynx torquilla</i>	Lepitzulia	IB	Landazabala
<i>Lanius senator</i>	Antzandobi kaskagorria	K	Sastrakadiak
<i>Larus fuscus</i>	Kaio iluna	IB	Kostaldea
<i>Merops apiaster</i>	Erlaxoria	IB	Pitzadura lurzoruak
<i>Milvus milvus</i>	Miru gorria	GA	Basoa, landazabala
<i>Monticola saxatilis</i>	Harkaitz-zozo gorria	IB	Harkaitzak
<i>Monticola solitarius</i>	Harkaitz-zozo urdina	IB	Harkaitzak
<i>Neophron percnopterus</i>	Sai zuria	K	Harkaitzak
<i>Nyctalus leisleri</i>	Gau saguzar txiki	IB	Basoa
<i>Nycticorax nycticorax</i>	Amiltxori arrunta	B	Hezeguneak
<i>Oenanthe hispanica</i>	Buztanzuri horia	IB	Landazabala
<i>Pandion haliaetus</i>	Arrano arrantzalea	K	Baso eta hezeguneak
<i>Pernis apivorus</i>	Zapelatz liztorjalea	B	Basoa
<i>Phoenicurus phoenicurus</i>	Buztangorri argia	K	Basoa
<i>Phylloscopus trochilus</i>	Txio horia	B	Basoa, sastrakadia
<i>Podiceps cristatus</i>	Murgil handia	IB	Hezeguneak
<i>Prunella collaris</i>	Mendi-tuntuna	IB	Harkaitzak
<i>Pyrrhonorax graculus</i>	Belatxinga mokohoria	IB	Harkaitzak
<i>Pyrrhonorax pyrrhonorax</i>	Belatxinga mokogorria	IB	Harkaitzak
<i>Regulus regulus</i>	Mendi erregetxo	IB	Basoa
<i>Riparia riparia</i>	Uhalde-enara	K	Ibai eta lakuak

<i>Saxicola rubetra</i>	Pitxartxar nabarra	IB	Baso eta sastrakadiak
<i>Spinus spinus</i>	Tarina	IB	Basoa
<i>Streptopelia turtur</i>	Usapala	GA	Landazabala
<i>Sylvia cantillans</i>	Txinbo papargorritzta	IB	Baso eta sastrakadiak
<i>Tachybaptus ruficollis</i>	Txilinporta txikia	B	Hezeguneak
<i>Turdus torquatus</i>	Zozo paparzuria	IB	Basoa
<i>Upupa epops</i>	Argi-oilarra	K	Landazabala
UGAZTUNAK			
<i>Eptesicus serotinus</i>	Baratze-saguzarra	IB	Harkaitzak, eraikuntzak
<i>Felis silvestris</i>	Basakatua	IB	Basoa
<i>Martes martes</i>	Lepahoria	B	Basoa
<i>Mustela lutreola</i>	Bisoi europarra	GA	Ibai-ibilguak
<i>Mustela putorius</i>	Ipurtatsa	IB	Ibai-ibilguak
<i>Myotis daubentonii</i>	Ur-saguzarra	IB	Ibaiertzeko basoak
<i>Myotis emarginatus</i>	Geoffroy saguzarra	K	Haitzuloak
<i>Myotis myotis</i>	Arratoi-belarri handia	GA	Haitzuloak
<i>Pipistrellus kuhlii</i>	Khul pipistrela	IB	Orotarikoa
<i>Pipistrellus pipistrellus</i>	Pipistrela txikia	IB	Orotarikoa
<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	Ferra-saguzar handia	K	Haitzuloak
<i>Rhinolophus hipposideros</i>	Ferra-saguzar txikia	IB	Haitzuloak
NARRASTIAK			
<i>Timon lepidus</i>	Gardatxoa	IB	Orotarikoa
<i>Zamenis longissimus</i>	Eskulapioren sugea	IB	Basoa
<i>Zamenis scalaris</i>	Eskailera sugea	IB	Orotarikoa
ARRAINAK			
<i>Cobitis calderoni</i>	Mazkar arantxaduna	GA	Ibaiak
INTXEKTUAK ETA BESTELAKO HEXAPODOAK			
<i>Oxygastra curtisii</i>	Burruntzi	K	Ur-ibilguak

Aurreko taulan azaldutakoaren arabera, aipatutako espezieak hurrengo kategoriatan banatzen dira:

- "Galtzeko arriskua": 7 espezie.
- "Kaltebera": 13 espezie.
- "Bakana": 22 espezie.
- "Interes berezia": 38 espezie.


Aipatu beharra dago, Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan agertzen diren 439 espezie guztien artean, Ataungo udalerrria barne hartzen duten 10x10 UTM laukietan 104 fauna zein flora espezie aurkitu direla. Hau da, Katalogoan agertzen diren espezieen ia %25 eremu honetan aurki daitezke.

4.4.2.1 Faunarentzat intereseko eremuak

EAeko Ingurumen Esparru Programak lehentasunezko banaketa-eremuak, interes bereziko eremuak eta arriskuan dauden flora- eta fauna-espezieen gune sentikorrek babesteko beharra ezartzen du, kudeaketa-plana izan ala ez.

Aralarreko KBEaren eremua bat dator ugatzaren Interes Bereziko Eremuarekin (IBE). Honekin batera, eremu horren barruan, elur-lursaguaren IBEa aurkitzen da orban txikietan banatuta. Bestalde, udalerriko mugen barruan ipar-mendebaldean Ferra-saguzar handiaren IBE kokatzen da. Azkenik, Agauntza ibaiak eta Zaldibia ibaiak hartzen duten eremuak bat datoz muturluze pirinarraren eta bisoi europarraren IBEekin. Bi espezie hauek onetsitako Kudeaketa-Plana^{10,11} dute beren babeserako Gipuzkoako lurralde historikoan.

Horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Batasunaren intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Plan Bateratuaren arabera, Ataungo udalerriaren ekialdeko eta hegoaldeko eremua, Aralarreko KBEarekin bat datorrena, Interes Bereziko Eremutat eta Elikaduraren Babesguneztat hartzen da espezie nekrofago, ugatza, sai zuria eta sai arrearentzat.



13. Irudia Faunarentzat Interes Bereziko Eremuak (IBE) Ataungo udalerrian.

¹⁰ ORDEN FORAL de 12 de mayo de 2004 por la que se aprueba el Plan de Gestión del Desmán del Pirineo *Galemys pyrenaicus* (E. Geoffroy, 1811) en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. BOG 28-05-2004.

¹¹ ORDEN FORAL de 12 de mayo de 2004, por la que se aprueba el Plan de Gestión del Visón Europeo *Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761) en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. BOG 28-05-2004.

4.5 NATURA INTERESEKO EREMUAK

4.5.1 EREMU NATURAL BABESTUAK

Natura Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko *abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 28.* Artikuluaren arabera, naturagune babestu izango dira baldintza hauetako bat, gutxienez, betetzen badute eta naturagune babestu deklaratzeko badira:

- a) Bertako natura-sistema edo -elementuak adierazgarriak, apartekoak, hauskorak edo mehatxatuak izatea edo interes berezikoak izatea ekologia, zientzia, paisaia, geologia edo hezkuntzaren aldetik.
- b) Gunea berariaz izatea dibertsitate biologikoa, geodibertsitatea eta aurrekoei lotutako natura-eta kultura-baliabideak babestu eta iraunarazteko gune izatea.

Abenduaren 13ko 42/2007 Legeak eremu babestuko sistema bat ezartzen du, hiru mailatan sailkatuta:

- Naturagune babestuak
- Natura 2000 Sareko eremu babestuak
- Nazioarteko tresnek babestutako eremuak

Naturagune babestuak honako mailatan sailkatzen dira:

- a) Natur Parkeak
- b) Natura-erreserbak
- c) Itsas inguru babestuak
- d) Natura monumentuak
- e) Paisaia babestuak

Bestalde, 9/2021 Legeak, azaroaren 25ekoak, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoak, 37. artikuluan ezarritakoaren arabera, natura-ondareko gune babestuak kategoria hauetako batean sailkatuko dira:

- a) Naturagune babestuak: parke naturalak, natura-erreserbak, natura-monumentuak eta paisaia natural babestuak
- b) Natura 2000 Sareko naturagune babestuak. Kategoria honetakoak izango dira Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL), Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE), eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE).
- c) Gune babestuak nazioarteko tresnak aplikatzearen ondorioz. Kategoria horretakoak dira honako hauek:
 1. Biosfera-erreserbak,
 2. Nazioarteko Garrantzizko Hezeguneei (bereziki Uretako Hegaztien Habitat gisa) buruzko Ramsarko Hitzarmenaren nazioarteko garrantzizko hezegunak,


3. Unescok deklaratutako geoparkeak,
4. Ospar hitzarmenak babestutako eremuak,
5. Munduko Ondarearen Zerrendako naturaguneak eta
6. Europako Kontseiluaren erreserba biogenetikoak

Abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 50. artikulua araber, **nazioarteko tresnek babestutako eremutzat** hartuko dira Espainia partaide izango den nazioarteko Hitzarmen eta Akordioetan xedatutakoaren arabera formalki izendatuko diren natura-eremu guztiak, eta zehazki, ondorengoak:

- a) Nazioartean garrantzia duten hezeguneei buruzko hitzarmenaren arabera, nazioartean garrantzitsuak diren hezeguneak, bereziki hegazti urtarren habitat badira.
- b) Munduko Kultura eta Natura Ondarea Babesteari buruzko Konbentzioko Munduko Ondarearen zerrendako naturaguneak.
- c) Ipar-ekialdeko Atlantikoko itsas ingurunea babesteko Hitzarmeneko (OSPAR) eremu babestuak.
- d) Mediterraneoarentzat Garrantzizko Babes Bereziko Eremuak (ZEPIM), Mediterraneoako itsas ingurunea eta kostaldea babesteko hitzarmenakoa.
- e) Geoparkeak, UNESCOk aitortuak.
- f) Biosferako erreserbak, UNESCOk aitortuak.
- g) Europako Kontseiluaren erreserba biogenetikoak.

Eremu horiei babes-irudia duten ibai-erreserba naturalak gehitzen zaizkie, helburu izanik gizakiaren esku-hartze txikia duten edo esku-hartzerik gabe dauden, eta egoera ekologiko ona duten ibai-tarteak zaintzea. Hala aitortzen dira uraren legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua betez. Legeak aurreikusten du Estatuaren eskumenekoak diren Plan Hidrologikoetan nahitaez txertatzea ibai-erreserba natural izendatu beharreko eremu horiek.

Ataungo udalerrian bi eremu natural babestu aurki daitezteke, zehazki Natura 2000 Sarearen barne diren ES2120011 Aralar Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) eta ES2120005 Oria Garaia KBE. Aralarreko natura gunea Natura Parkea ere izendatua dago.



14. Irudia *Ataungo udalerriko Eremu Natural Babestuak.*

4.5.1.1 *Aralarreko Natura Parkea eta KBE*

Natura Parkea 1994an izendatu zen eta 2004an Batasunaren intereseko leku gisa onetsi zen. Azkenik, 84/2016 dekretuaren bidez Kontserbazio Bereziko eremua izendatu zen eta Natura 2000 Sarearen barne sartu zen, ES2120011 Aralar KBE izendapenarekin.


Aralar KBE eskualde biogeografiko atlantikoan kokatzen da, Gipuzkoako ekialdean, Nafarroarekin mugan, eta bertan jarraipena du izen bereko KBEaren bidez (ES2200020). 10.962 ha-ko azalera du eta Abaltzisketa, Amezketa, Ataun, Lazkao, Tolosa, Zaldibia eta Enirio-Aralar udalerriek osatzen dute, Ataun eta Enirio-Aralarrek azalera osoaren %72a hartuz.

Eremuaren garrantzia, paisaiaren berezitasuna, eta biltzen dituen flora eta faunaren aniztasunarengatik dator. Era berean, aspalditik abeltzaintzak garrantzi handia izandako eremua da, eta interes arkeologikoko monumentu megalitiko ugari kokatzen dira bertan. Baso naturalek eremuaren %55 hartzen dute, hedatuenak pagadia eta baso azidofiloa direlarik. Bestetik, zelai eta larreek azalaren %36 hartzen dute.

Ataunen Aralarreko KBE 4.453 ha hartzen ditu, udalerraren mendebaldean eta hegoaldean.

4.5.1.2 *Oria Garaia KBE*

ES2120005 Oria Garaia KBE 215/2012 dekretuaren bidez izendatu zen.



16. Irudia Ataungo udalerriko Onura publikoko mendiak.

4.5.2.3 Korridore Ekologikoak¹²


EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen Proiektua (Eusko Jaurlaritza, 2005) ezartzearen helburu nagusia Natura 2000 Sarearen lotura eta koherentzia ekologikoa sustatzea da. Sare horren helburu nagusiak dira habitata eskualde-mailan zatitzeko arriskua duen fauna Natura 2000 Sareko espazioen artean mugitzea ahalbidetuko duen sarea mugatzea, eta korridoreen sarea osatzen duten elementuak erabiltzeko eta kudeatzeko neurriak proposatzea.

Ataungo udalerrian Aralar nukleo eremua topatzen da, Aralar KBE eremuarekin bat datorrena. Horrekin batera, udalerriko mugetatik kanpo, hego-mendebaldean, Aizkorri-Aratz eta Aralar lotzen dituen korridore ekologikoa aurkitzen da. Azkenik, Udalerriaren gainontzeko azalera indargetze eremuaren barruan kokatzen da, herri eremuak izan ezik.

Bestetik, Gipuzkoako azpiegitura berde sarearen proposamenaren arabera¹³ (2019) Atauneko Elbarrena auzotik iparraldera (Aralarretik kanpo) dauden eremuak “funtzionaltasun ekologikorako intereseko guneak” bezala izendatzen dira, multifuntzionaltasun indize ertainarekin.

¹² Gurrutxaga, M. 2005. Red de Corredores Ecológicos de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Eusko Jaurlaritza, IKT S.A.

¹³ ARC Consultoría medioambiental eta Anthesis Lavola, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat, 2019. Gipuzkoako azpiegitura berdeen sarea planifikatzeko diagnostikoa.



17. Irudia Korridore ekologikoen sarea.

4.6 PAISAIA


EAEko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoaren Aurreproiektuak (Eusko Jaurlaritza, 2005) EAEko ikus-arroen lehen karakterizazio bat egin zuen, lurzorua erabileren eta azpiegituren presentziaren arabera, bai eta arro horietako bakoitzak dituen ikus-inpaktuen arabera ere (positiboak zein negatiboak) eta haien egunerokotasuna, hiri-lurretatik paisaiak ikusgarriak edo oso ikusgarriak izateari dagokionez.

Udalerriaren hegoaldean Pagadi azidofiloaren eremuarekin bat datorren paisaia unitatea ezberdindu daiteke, hau udalerriko handiena izanik. Horretaz gain beste hainbat paisaia unitate identifikatu dira. Hurrengo taulan udalerrian ageri diren paisaia unitateak azaltzen dira.

22. Taula Ataungo paisaia unitateak.

Paisaia unitateak	Azalera (ha)	Udalerriaren ehunekoa (%)
Eremu flubialean hosto erorkorreko hostozabalak	1.882	33%
Eremu flubialean baso-landaketak	1.322	23%
Eremu flubialean basoko nekazaritza-mosaikoa	919	16%
Eremu flubialean belardiak eta atlantikoaldeko laborantzak nagusi dituen nekazaritza	517	9%
Eremu karstikoan hosto erorkorreko hostozabalak	254	4%
Eremu karstikoan hosto iraunkorreko hostozabalak	209	4%
Eremu flubialean sastrakadiko baso-mosaikoa	157	3%

Eremu flubialean baso-mosaikoa	108	2%
Eremu karstikoan mendietako larreak	93	2%
Eremu karstikoan sastrakadia	85	1%
Eremu flubialean baso-landaketak dituen nekazaritza-mosaiko	76	1%
Eremu flubialean sastrakadia	53	1%
Eremu karstikoan baso-landaketak	50	1%
Eremu karstikoan harritza	49	1%
Eremu flubialean mosaiko mistoa	48	1%




18. Irudia Ataungo udalerrian paisaia unitateak.

23. Taula Ataungo paisaia unitateak. *PBNK: Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoa.

Ikus-arroak	Paisaien balioa	Eguneokotasuna	PBNK*	Azalera (ha)
Agauntza	Handia	Egunerokoa	Bai	3.005,47
Agauntza Alto	Handia	Egunerokoa	Bai	1.408,01
Aitzarte	Ertaina	Egunerokoa	Ez	750,70
Aia	Oso handia	Egunerokoa	Bai	374,75
Asensieta	Oso handia	Ez oso ohikoa	Bai	151,74
Urrustiarren	Oso handia	Ez oso ohikoa	Bai	120,45

Nabarmentzekoa da Aitzarteko ikus-arroa izan ezik besteak katalogatuta daudela duten balio paisajistiko altuarengatik eta espazio naturalen barnean egoteagatik (Aralarreko KBE eta Parke Naturala). Paisaia hauetan inpaktu bisual positiboena dituzten elementu nagusienak harkaitzak dira, eta maila txikiago bateak ibai eta errekek.



19. Irudia Ataungo ikus-arroak.

2014an, Eusko Jaurlaritzak 90/2014 Dekretua onartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoa. Honetarako, Dekretuak hainbat tresna identifikatzen ditu, hala nola paisaiaren katalogoak, paisaiaren zehaztapenak, paisaiaren ekintza-planak eta paisaia-integrazioari buruzko azterlanak. Helburua EAE osoko Paisaiaren Katalogoak eta Zehaztapenak idaztea da. Hala ere, Beasain-Zumarragako (Goierrri) Lurraldearen Zatik Planak ez du oraindik paisaiaren inguruko zehaztapenik ezarri.

4.7 KULTURA ONDAREA

Eusko Jaurlaritzako Euskal Kultura Ondarearen Zentroak eskuragarri duen informazioaren arabera, udalerrian kultura ondarearen intereseko elementuak eta gune ezberdinak jarraian azaltzen dira. Horietako asko, Kultura Ondasun bezala izendaturik daude, eta beste batzuk, lokalki izan dezaketen garrantziarengatik, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak babesteko proposatzen ditu, hala nola, udalerriko katalogoan txertatuz.

4.7.1 ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK

24. Taula Ataungo ondare arkitektoniko babestua eta interesekoa


1. Eraikitako ondarea		
1.1 Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan inskribatutako higiezinak.		
Izena	Babes maila	Data
- Zubikoeta Jauregia	Berezia (hasitakoa)	BOE 1980-11-29
- Errota eta errotatxo (San Gregorio auzoa)	Ertaina	EHAA 2003-09-11
- Errotatxo (Aitzartealdea auzoa)		
1.2 "6/2019 Legearen ondorioetarako Oinarrizko babesa duen Kultura-ondasun" deklaratzeko proposatutako higiezinak (art. 6/2019 legearen 8.1.c artikulua, 14/2023 Legeak aldatua).		
- Udaletxea - San Gregorio eliza - Tourseko San Martin eliza - Aranburu Enea baserria - Bazterrika baserria	- Aialde Haundi baserria - Izate Haundi baserria - Errota Goikoa - San Martin iturria	
1.3 Udal hirigintza-plangintzan udal-babeseko kultura-ondasun gisa sartu eta tratatzeko proposatutako elementu arkitektonikoak (14/2023 Legeak aldatutako 6/2019 Legeko art. 8.2)		
- Eskola Zaharra - Angulunea Etxea - Artzubi Etxea - Bidarte Etxea - Udaletxea - Apaizetxea - Bidezainen Etxea - Juane Haundia Jaunaren Etxea - Ataungo Etxea - Helbarrena I-Ko Etxea - Helbarrena Ilo Etxea - Etxea Helbarrena Iii Kalean - Helbarrena IV-ko Etxea - Graziña Berri Etxea - Juanikonea Etxea - Lazkaotegi Etxea - Upategi Etxea - Urbitarte Enea Etxea - Aialde Haundi Baserria - Aramburu Enea Baserria - Arratibel Erdikoa Baserria - Bazterrika Baserria - Begiristain Baserria - Erraiondo Zahar Baserria - Goalde Baserria - Insekantzeluz Baserria	- Iturralde Baserria - Iturritza Zaharra Baserria - Izaate Haundi Baserria - Lauzti Iturrieta Baserria - Matxitxu Baserria - Tzemoa Baserria - Urrutsu Baserria - Zeberio Enea Baserria - Done Juane Txikia - Kalbario Santuaren Ermita - Zelai Pilotalekua - Iturria - San Martin Iturria - Goikoetxea Enea - San Gregorio Handiaren Eliza - Tourseko San Martin Eliza - Andre Mariaren Eliza - Errota Behekoa - Errota Goikoa - Errotatxo Errota - Zubikoeta Jauregia - Querejeta Enea - Sankristaune - Taberna Berri - Zelebear	

4.7.2 ELEMENTU ARKEOLOGIKO BABESTUAK

25. Taula Ataungo ondare arkitektoniko babestua eta interesekoa.

2. Arkeologia ondarea		
2.1 Deklaratutako balizko arkeologia-eremuak		
Izena	Babes maila	Data
<ul style="list-style-type: none"> - Agirretxiki baserria - Andresenea baserria - Arin Aundia baserria - Arinetxe baserria - Arrate kobazuloa - Arratinea baserria - Arrizabalaga baserria - Astigarretxea baserria - Azarikobatxo kobazuloa II - Bazterrika baserria - Done Martie eliza (San Martin) - Elizalde errota - Espilla baserria - Etxeberriaundi baserria - Intsusaeta kobazuloa II - Kobazar - Larratze baserria - Lauztigaraikoa baserria - Marumendi aztarnategia - Matxintxu baserria - Okarizti baserria - Olea edo Larraunza baserria eta burdinola - Peruenezar baserria - San Gregorio basiliza - Santiago ospitalea - Telleriazpi baserria - Tellerierdi baserria - Ubeigaineko leizea - Urdangarin baserria - Zelaibar baserria - Zubikoeta baserria 	Ustezko arkeologia-eremua	BOPV nº 220 (17-11-97)
2.2 Monumentu Multzoa. Gipuzkoako Lurralde Historikoko haitzuloetako aztarnategiak		
<ul style="list-style-type: none"> - <i>Agatze</i>ko haitzuloa - <i>Allekoaitze</i>ko haitzuloa - <i>Armontaitze</i>ko haitzuloa - <i>Lokatz</i>ko haitzuloa - <i>Pikandietako</i> haitzuloa - <i>Sarastari II-ko</i> haitzuloa - <i>Sarastari IV-ko</i> haitzuloa - <i>Troskaeta</i>ko haitzuloa - <i>Usategietako</i> haitzuloa 	Ertaina	EHAA 215 zk. (2015-11-11)
2.3 Gipuzkoako Estazio eta Monumentu Megalitikoen Monumentu-multzoa.		
<p><i>Ataun-Burundako Estazio Megalitikoa:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Aitxuko trikuharria</i> - <i>Argonitz trikuharria</i> 	Berezia	EHAA 133. zk. (2003-07-08)

<ul style="list-style-type: none"> - Atxurbiko trikuharria - Bernoako trikuharria - Igartza ekialdeko trikuharria - Igartza Mendebaldeko trikuharria - Intxusburu trikuharria - Larreluzeko trikuharria - Muñaango trikuharria <p>Aralarko Estazio Megalitikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erremedio trikuharria - Txotxetako trikuharria 		
2.4 Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen babesean babesteko proposatutako interes arkeologikoko eremuak.		
<ul style="list-style-type: none"> - Ola mendiko burdinola - Jentilbaratza jauregia 		



20. Irudia Ataungo kultura ondareko elementuak.

4.8 INGURUMEN ARRISKUAK


4.8.1 UHOLDE ARRISKUA

EAEko uholde-arriskuaren kartografiaren arabera (GeoEuskadi), Ataungo hirigunearen zati handi bat 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denboretako urpean gera daitezkeen eremuen eta lehentasunezko fluxu-eremuaren barnean aurkitzen da. Uholde arriskua duten eremuak Agauntza ibaiaren ertzetan agertzen dira.

Uholde arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 2007/60/EE Zuzentaraua aplikatuz, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoak Uholde Arriskuaren Aurretiazko Ebaluazioa (UAAE) egiten du. Horren ondorioz, Uholde Arrisku Handiko Eremuak (UAHE) hautatzen dira, eta, ondoren, Uholde-arriskuaren Mapak egiten dira aipatutako eremuetarako. Bestalde, Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak (UAKP) egingo dira. Plan horiek uholde-arriskua kudeatzeko helburuak finkatuko dituzte UAHE bakoitzerako. Gainera, EAEko eremuan, lehenespen-ariketa orokor bat egiten da, uholde-arriskuaren atariko ebaluazioan identifikatutako ibaietako eta trantsizioko UAHEak multzoka sailkatzeko aukera ematen duena.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko 2022-2027 zikloko planaren arabera (martxoaren 21eko 197/2023 Errege Dekretuaren bidez onartua), Agauntza ibaia, Ataungo udalerritik igarotzen den tartean ES017-GIP-13-1 Ataun UAHEaren barruan sartzen da (III.Taldea). Garrantzitsua da aipatzea UAHE eremu hau Natura 2000 Sareko bi elementu barne hartzen dituela; Aralar KBE eta Oria Garaia KBE.


Agauntza ibaia, Ataungo UAHEaren eremuan, gainezka egiten du 10 urtetik beherako errepikatze-denboretan. Gune horiek Astigarraga auzoan eta Ota Mots Aldea kalean daude. Hala ere, hiri-bilbe osoak ez du eraginik izango 500 urteko errepikatze-denborako uholdera arte. Oro har, gainezkatzearen arrazoia ibilguaren edukiera gainditzearekin lotuta dago. Gainera, uholde-xaflaren goraguneak daude, oinezkoentzako zubiak eta pasabideak daudelako.



21. Irudia Uholde arriskua Ataungo udalerrian.

UAKPk Agauntza ibaian intereseko bi buxadura-puntu identifikatzen ditu horiek ezabatzeko.


- A puntua: Agauntza ibaia, Astigarraga auzoko zubia: Oinezkoentzako pasabide batek 1,4 metroko jauzia eragiten du ur-kotan. Egitura kenduz gero, buxadura 0,89 metro murrizten da. Hala ere, 1,03 metroko jauzi berri bat sortzen du ibaian gora dagoen zubian, aldi berean hau ezabatu egingo litzateke hura kendu ondoren.
- B puntua: Agauntza ibaia, hiri-eremuko ubideratzea: Ur-laminaren kotan 1,62 metroko jauzia gertatzen da, eta Elbarrena kaleko zubia kentzean jauzia 0,31 metro baino ez da murrizten. Eragina batez ere, ibaia hirigunean bideratzeak izan du, ibaian behera sekzioa estutu delako.



22. Irudia *Ataungo udalerrian Agauntza ibaian aurkitzen diren oztopoak eta gainezka egiten duten puntuak.*


4.8.2 AKUIFEROEN KUTSADURAREKIKO URRAKORTASUNA

Euskal Autonomia Erkidegoko akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasunaren mapa kontuan hartuta (1: 25.000 eskalan), udalerrriaren ekialdean akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasun altua eta oso altua duten eremuak identifikatzen dira.



23. Irudia *Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna Ataungo udalerrian.*

Horretaz gain, udalerrian ondorengo interes hidrogeologikoko eremuak topatzen dira.




24. Irudia Interes hidrogeologikoko eremuak Ataungo udalerrian.

4.8.3 HIGADURA-ARRISKUA

Higadura-arriskua neurtzeko, Nekazaritza eta Basogintzaren LAPak 'higadura jasateko arriskua duten tokiak' bezala identifikatu dituen eremuak irudikatu dira ondoren. Higadura eremu hauek identifikatzeko, USLE ekuazioan oinarritutako higadura-eredua jarraitu zen, eta hurrengo irizpideak ere kontuan hartu ziren: Uhertasuna, topografia, luraren higagarritasuna, landaredia eta bestelako informazioak. Horretaz gain geomorfologikoki ezegonkorak izan daitezkeen lurak (%50 baino handiagoko maldak adibidez) identifikatu dira.

Agerienez, udalerriaren orografia malkartsua dela eta lurraldearen azalera gehiena arrisku honen menpe dago.



25. Irudia Eremu higagarriak Ataunen.

4.8.4 KUTSATUTA EGON DAITEZKEEN LURZORUAK¹⁴


Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioaren arabera (irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bidez onartu zen) eta inbentario hori eguneratzeko lanen arabera (Geoeskadin eskuragarri dago inbentario horren informazioa), Ataungo

¹⁴ 165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, potentzialki jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa. EHAA, 204. zk. 2008/10/24.

udalerrian kutsatuta egon daitezkeen 14 lursail daude, denak industria jarduerekin lotuta, guztira 1,53 ha.

26. Taula *Inbentariatutako partzela kutsagarriak Ataunen.*

Inbentariatutako partzelaren kodea	Mota	Azalera (m ²)
20015-00001	Industrialia	2.172,33
20015-00002	Industrialia	448,52
20015-00003	Industrialia	726,49
20015-00004	Industrialia	340,25
20015-00005	Industrialia	186,04
20015-00006	Industrialia	764,73
20015-00007	Industrialia	3.575,15
20015-00009	Industrialia	179,81
20015-00010	Industrialia	308,06
20015-00011	Industrialia	143,76
20015-00012	Industrialia	1.876,31
20015-00013	Industrialia	625,32
20015-00014	Industrialia	102,81
20015-00015	Industrialia	3.804,42



26. Irudia *Kutsatuta egon daitezkeen lursailak Ataungo udalerrian.*

4.8.5 ARRISKU SISMOKOA


Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko urriaren 30ean onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Arrisku Sismikorako Larrialdi Planaren arabera, historikoki, Euskal Autonomia Erkidegoko sismikotasuna baxutzat jo daiteke, bai bere lurraldean erregistratutako sismoen kopuruagatik, bai bere ezaugarriengatik, guztiak ere garrantzi txikikotzat jo daitezkeen magnitude eta intentsitateengatik. Hala, ez dago VII.aren pareko edo hortik gorako arrisku sismikoa duen eremurik, eta, beraz, ez dago arrisku sismikoari aurre egiteko larrialdi-planik egin behar duen udalerririk.

Zehazki, Ataungo udalerrria VI. intentsitateko eremuan dago, eta, beraz, ez du Larrialdi Sismikoko Planik egin behar, nekez gerta baitaiteke eraikinak suntsitzeko ahalmena duen sismorik.

4.8.6 BASO-SUTE ARRISKUA

Baso-suteen arriskua, funtsean, eremuan eta inguruetan dagoen landaretza motak baldintzatzen du. Beraz, horiek baloratzeko, dauden landaredi-unitateak hartzen dira kontuan, baita landaredi-moten berezko erregaitasuna ere.

Eusko Jaurlaritzaren baso-sutearen arrisku maparen arabera, udalerrriaren erdialdetik iparraldera topa daitezke baso-sute arrisku altua eta oso altua duten eremuak. Bestalde, udalerrriaren gainontzeko azalera arrisku-maila baxuarekin katalogatuta dago.



27. Irudia Baso-sute arriskua Ataungo udalerrian.

4.8.7 ARRISKU TEKNOLOGIKOAK

4.8.7.1 Salerosgai arriskutsuen garraioan istripuak izateko arriskua

Salerosgai Arriskutsuen Errepideko Nazioarteko Garraioari buruzko Europako Akordioak (ADR 2003) eta Trenbideko Garraioaren Erregelamenduak (RID 2003) ezartzen duten esparruaren barruan, 1996ko *martxoaren 1ean 387/1996 Errege Dekretua* argitaratu zen Estatuan, salerosgai arriskutsuen errepideko eta trenbideko garraioetan istripuak gertatzeko arriskuari aurre egiteko Babes Zibileko Plangintzaren Oinarrizko Gidalerroa onartzen duena. Euskal Autonomia Erkidegoan, aipatutako Errege Dekretuaren testuinguruan, 1998an egin ziren salerosgai arriskutsuen garraioaren fluxu-mapak, eta azken eguneraketak 2013an egin ziren. Mapa hauek egitearen helburuak hurrengoak dira:

- Istripu posible baten ondorioak arintzeko hartu beharreko esku-hartze neurri eta estrategiak aurreikusteko oinarria izatea
- Garrantzi bereziki jo behar diren eremuen mugatzea, kaltetuak izan daitezkeen herritarrak, ondasunak edo ingurumena babesteko neurriak aurreikusteko.

Ataungo udalerrriaren barruan ez da errepide arriskutsurik azaltzen. Era berean, ez dago trenbiderik udalerrri barruan. Ondorioz Ataunen ez da arrisku honekiko zaurgarria.

4.8.7.2 Arrisku kimikoa - SEVESO enpresak

840/2015 Errege Dekretuak Espainiako ordenamendu juridikora ekarri du *2012/18/EB Zuzentaraua* (SEVESO III Zuzentaraua), istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeari buruzkoa. Errege Dekretu honen xedea da istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean prebenitzea, eta istripu horiek gizakien osasunean, ondasunetan eta ingurumenean izan ditzaketen ondorioak mugatzea.

Arau horri dagokionez, ez da identifikatu udalerrian arriskutsua izan daitezkeen industria-jarduerekin lotutako industriarik.

4.8.8 ZARATA

Ataunek ez du zarataren inguruko azterlanik, eta udalerrian ez dira eremu akustiko desberdinak irudikatzen. Hala ere, lurraldearen ezaugarrien arabera, azalera gehiena landa gunez eta eremu naturalez osaturik egonda, zarata mailak txikiak direla aurreikusten da.

Ataunen, zarata maila altuak sortu ditzaketen enpresa gutxi daude, gehienak GI-2120 errepidearen inguruan. Zehazki, zarata maila altuenak aipatutako errepidetik igarotzen den trafikoak sortuko duela aurreikusten da, puntualki honen inguruan garatzen diren etxebizitzetan eragina izan dezakeena.

HAPOaren tramitazioaren eta ingurumen azterketaren ondorengo faseetan, udalerriko hiri eremuaren eta garapen berrien inguruko zarata azterketa burutuko da.

4.8.9 AIREAREN KALITATEA

EAEko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarea kutsadura-mailak kontrolatzeko eta zaintzeko tresna bat da. Sare honek analizatzaileak eta sentsoareak ditu, airearen kalitateari buruzko araudiak ezarritako

kutsatzaileak neurtzeko, batez ere sufre dioxidoa (SO₂), nitrogeno oxidoak (NO eta NO₂), ozono troposferikoa, karbono monoxidoa (CO), bentzenoa eta partikula esekiak (PM₁₀ eta PM_{2.5}). Airearen kalitatearen ebaluazioa urtean behin egiten da, kontrol-sarean erregistratutako datuetatik abiatuta.

Sareak 8 unitatetan banatzen du EAEko lurraldea. Aztertutako eremua “Goierri (ES1606)” unitatean sartzen da, 917,9 km²-ko azalerarekin eta 143.388 biztanlerekin. Ataunetik gertuen dagoen estazioa Beasaingo estazioa da.

Sare horren 2022. urteko txostenaren datuen arabera¹⁵, SO₂ balioak egokiak izan dira Beasaingo estazioan. NO₂ balioak, urteko PM₁₀ eta PM_{2.5} balioak eta gainontzeko balio guztiak ere egokiak izan dira Beasaingo estazioan.

Bestalde, Eustateko “EAEko eskualdearen airearen kalitate indizeak eta iraunkortasun adierazlea”-ren arabera, 2022an Goierri unitatean airearen kalitatea oso ona izan zen 178 egunez, ona 151 egunez, hobegarria 25 egunez eta txarra 11 egunez. Ondorioz, Goierriko unitateak % 90,14 iraunkortasuna adierazten du.

4.8.10 KLIMA ALDAKETA

Azken urteotan bultzada handia ematen ari zaie egokitzapen-politikei Europan, Klima Aldaketara Egokitzeko Europako Estrategiaren (2013) eta hura hedatzeko tresnen bidez gauzatzen direlarik. Estrategia horrek onartzen du beharrezkoa dela eskualdeek eta tokiko-erakundeek egokitzapen-politika eraginkorrak bultzatzea.

Tokiko-administrazioek, kudeaketa publikoaren arduradun diren aldetik, herritarren osasuna eta bizikaltatea bermatu behar dituzte, klima-aldaketaren ondorio kaltegarriek eragindako galerak murriztu behar dituzte, eta ingurumen-baliabideen erabileraren eraginkortasuna hobetu behar dute, horrek natura-ingurunean duen eragin positiboarekin (Udalsarea 21, 2011)

Proiektu eta argitalpen berrienetan garrantzi handiagoa ematen zaio arriskuari, hau da, mehatxuaren, esposizioaren eta kalteberatasunaren konbinazio gisa hartzen da, eta gertaera jakin bat (mehatxufaktorea) gertatzeko probabilitatearen funtzio gisa adierazten da, ondorio kaltegarriekin biderkatuta (esposizio-faktoreak eta kalteberatasuna). Kalteberatasuna, era berean, bi osagai nagusien arabera da: batetik, klima-mehatxuekiko sentikortasuna, eta, bestetik, horiei aurre egiteko eta egokitzeko egokitzapen-gaitasuna. Horren guztiaren ondorioz, ikuspuntu metodologikotik, klima-aldaketaren aurrean arriskua eta kalteberatasuna aztertzeko moduak birplanteatzen eta birbideratzen ari dira.

Testuinguru horretan, lhobek dokumentu bat argitaratu du 2019ko urtarrilean, EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasuna eta arriskua ebaluatzeko (Euskal udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa, 2019).

Ebaluazioa egiteko, EAEko udalerrien kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa mugatzeko eta bideratzeko azterketan lehentasunezko inpaktu-kate kopuru mugatu bat identifikatu eta hautatzen da. Inpaktu-kate horien bidez, klima-mehatxu jakin baten (egungoa edo etorkizuneko) eta sektore, eremu edo hartzaile jakin baten arteko kausa-efektu erlazioak jaso daitezke. EAEko egungo eta etorkizuneko

¹⁵ Red de Control de Calidad del Aire de la CAPV, 2023. Informe Anual de la calidad del aire de la CAPV.

klima-testuinguruari buruzko informazioa eta sektore nagusietako batzuetan eragin ditzaketen mehatxu eta inpaktu klimatiko nagusiak kontuan hartuta, dokumentuak lehentasunezko inpaktu-kateak detektatzen ditu. Hala, EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa honako kate hauek kontuan hartuta egin da:

- Bero-boladek giza osasunean duten eragina
- Ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean.
- Itsas mailaren igoeraren ondoriozko uholdeen inpaktua hiri-ingurunean
- Lehorte handieneko aldien hazkundeak jarduera ekonomikoan ganean izandako eragina, nekazaritza-ingurunean interes berezia jarritz.

Etorkizuneko klima-proiektzioak 2 eszenatokiren (RCP4.5 eta RCP8.5) eta 3 aldiren (2011-2040, 2041-2070, 2071-2100) arabera egiten dira. RCP-ak (Representative Concentration Pathways) indartze erradiatiboagatik eta CO₂ baliokideagatik bereizten dira, eta horiek handiagoak dira RCP8.5 eszenatokian.

Jarraian, Ataungo udalerrirako lortutako balioen laburpena egiten da, Geoeuskadin kontsultatutako datuen arabera.

Kasu honetan, udalerrian neurtzen diren balio normalizatuak nahiko altuak dira bero-boladei dagokienez, eszenatoki guztietarako. Lehortei eta ibai-uholdeen inpaktuari dagokionez ordea, arrisku ertaina identifikatzen da.

27. Taula Ataungo udalerrirako klima-aldaketaren ondorioz sor daitezkeen inpaktu-kateen aurrean duen arriskua.

Inpaktu-katea	Indizeak	Arriskua				
		Erreferentzia aldia 1971-2000	2011-2040 Denboraldia		2071-2100 Denboraldia	
			RCP4.5	RCP8.5	RCP4.5	RCP8.5
Bero-boladen inpaktu potentziala giza osasunean	Balio normalizatuak (1-2)	1,28	1,38	1,37	1,52	1,60
	EAEko gainerako udalerriekiko jarrera erlatiboa (1-10 dezilak)	9	9	9	9	9
Lehordeen inpaktua nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorean	Balio normalizatuak (1-2)	1,46	1,48	1,47	1,50	1,55
	EAEko gainerako udalerriekiko jarrera erlatiboa (1-10 dezilak)	6	6	6	6	7
Ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean	Balio normalizatuak (1-2)	1,51	1,54	1,52	1,56	1,56
	EAEko gainerako udalerriekiko jarrera erlatiboa (1-10 dezilak)	6	6	6	7	6

28. Taula Aldagai klimatikoaren bilakaera Ataunen. Iturria: Klima-agertokiak Euskadin eta datu-serieak. Ihobe.

Aldagai klimatikoa	Urtea	RCP4.5	RCP8.5
--------------------	-------	--------	--------

Batez besteko tenperatura (°C)	2024	12,17	12,25
	2040	12,98	13,24
Batez besteko tenperatura minimoa (°C)	2024	7,97	8,02
	2040	8,71	8,94
Batez besteko tenperatura maximoa (°C)	2024	16,22	16,48
	2040	17,25	17,53
Gehienezko tenperatura (°C)	2024	32,04	34,62
	2040	34,06	35,56
Bero-boladak – T ^a >35°C (egunak)	2024	0,08	1,76
	2040	1,21	1,49
Gau tropikalak – T ^a >20°C (gauak)	2024	0,58	2,56
	2040	3,57	2,52
Izozte egunak - T _n < 0°C (egunak)	2024	0,71	0,54
	2040	0,12	0,04
Eguneko prezipitazioa (mm/egun)	2024	3,64	3,65
	2040	3,53	3,43

4.9 HIRIKO METABOLISMOA

4.9.1 UR-HORNIKUNTZA ETA SANEAMENDUA

Gipuzkoako lurralde historikoko Udalak Mankomunitate sistemetan biltzen dira udalerriek hornikuntza eta hondakin uren arazketa era eraginkorragoan kudeatzeko. Ataunen Gipuzkoako Ur Kontsortzioak du uraren ziklo osoaren kudeaketa. Hau da, hornidura-zerbitzuak eta hondakin-uren saneamendu eta arazketa zerbitzuak ematen ditu.

Instalazioen aldetik, Lareoko urtegia udalerrri mugetatik nahiko gertu aurkitzen da, eta bertan bildutako urak Ataungo udalerrria hornitzen dute Arriarango urtegia laguntzeaz gain. Sistema Zegamako edateko uren araztegiarekin osatzen da.

Ataungo udalerrian, edateko uraren eskaria 148,08 litrokoa da biztanleko eta eguneko (Udalmap 2019).

Uraren saneamenduari dagokionez, Goierriko urak Legorretan kokatzen den Gaikaoko hondakin uren haraztegira eramaten dira.

4.9.2 HONDAKINAK

Goierriko gainontzeko udalerrietan bezala, Ataun udalerriko hondakinak Sasieta mankomunitateak kudeatzen ditu. Sasieta mankomunitateko web orrian eskuragarri dauden datuen arabera, 2022an ia 400.000 Kg hondakin bildu ziren Ataungo udalerrian. Horietatik %32a biohondakinak izan dira eta %16,6a ontzi arinak.

ATAUN: ETXEO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINAK / RESIDUOS DOMICILIARIOS Y COMERCIALES (2022)														
Hondakinak	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	GUZTIRA - TOTAL	
Residuos	Enero	Febrero	Marzo	Abril	Mayo	Junio	Julio	Agosto	Septiembre	Octubre	Noviembre	Diciembre	kg	%
Errefusa / Resto	4.920	5.120	6.700	5.140	5.920	6.040	5.220	6.380	5.300	4.760	5.880	5.600	66.980	15,2%
Etiketresna birziklaezinak / Enseres no reciclables	350	366	361	291	358	341	320	339	453	358	355	320	4.211	1,0%
Beira - Vidrio	0	2.100	11.980	0	2.581	12.105	1.840	7.561	4.649	8.222	991	8.548	60.577	13,8%
Papera eta kartoa / Papel y cartón	5.340	4.320	3.980	4.040	5.360	4.360	5.880	5.220	4.280	5.000	5.380	5.640	58.800	13,4%
Kartoi komertziala / Cartón comercial	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0,0%
Ontzi arinak / Envases ligeros	6.020	5.920	6.460	5.840	4.980	6.000	6.400	6.200	6.040	6.360	6.260	6.460	72.940	16,6%
Biohondakina / Bioresiduo	13.700	11.540	11.280	10.900	13.440	10.100	11.420	10.180	12.900	12.140	10.680	12.300	140.580	32,0%
Iñausketa eta lorazaintza / Poda y jardinería	0	2.970	3.240	2.780	0	0	0	0	0	370	0	0	9.360	2,1%
Egurrezko altzariak / Muebles de madera	837	970	953	826	978	1.033	866	902	917	967	973	863	11.086	2,5%
Tresna elektriko eta elektronikoak / RAEEs	307	383	449	544	373	443	400	453	551	450	447	416	5.216	1,2%
Arropa zaharrak / Textiles	855	427	528	777	632	888	518	986	689	700	787	647	8.434	1,9%
Pilak / Pilas	45	23	20	20	38	20	21	38	24	24	25	23	323	0,1%
Sukaldeko olioak / Aceite de cocina	175	143	63	0	266	91	0	56	174	0	99	65	1.132	0,3%
	32.549	34.282	46.015	31.157	34.928	41.420	32.885	38.316	35.977	39.350	31.877	40.882	439.639	100%

28. Irudia Ataungo etxeko eta merkataritzako hondakinen datuen laburpena. Iturria: Sasieta Mankomunitatea.

Udalmapen eskuragarri dagoen informazioaren arabera, Ataungo udalerrian biztanleko eta urteko hiri-hondakinen sorrera 379,75 kg/bizt./urtekoa izan zen (2009. urtea). Biztanleko hondakin arriskutsuen kudeaketa 31,78 kg/biztanleko/urteko izan zen (2004. urtea).

4.9.3 ENERGIA

Udalmapen arabera, 2022an Ataungo udalerrian urteko kontsumo elektrikoa 2.113,10 Kwh/biztanleko izan da. Urteko kontsumo elektriko ez-industrialia 1.822,62 Kwh/biztanleko da, eta industria-sektorekoa 290,49 Kwh/biztanleko.

Udalerrian instalatutako potentzia fotovoltaikoa (2021a. urtea) 127,09 Kw-koa da 10.000 biztanleko; potentzia eolikoa 0 Kw 10.000 biztanleko; potentzia hidraulikoa 107,40 Kw 10.000 biztanleko; eta eguzki-azalera termikoa 131,26 m²-koa 10.000 biztanleko.

4.9.4 SOZIOEKONOMIA

Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) informazioaren arabera, Ataungo udalerrian 5.837 ha-ko azalera du eta 2023an 1.707 biztanle zituen, hau da, 29,24 biztanle/Km²-ko dentsitatea.

Azken 10 urteetan % 1,66ko hazkundea eman da biztanlerian. Biztanleriaren % 22,49 65 urtetik gorakoa da eta biztanleriaren % 7,02 atzerrian jaiotakoa da.

Bestalde, udalerriko enplegu-tasa 2022 urtean % 54,9-koa da, orokorrean zerbitzu (% 58,23) eta industria (% 31,33) sektoreetan bilduta. Langabezi-tasa % 4,1-ekoa den bitartean.

EUSTATen arabera, 1.620 ustiategi zeuden zentsatuta 2020an, eta nekazaritzarako azalera erabilgarria 852 ha-koa da, landutako lurren % 67,7 laborantza-mota frutarbolak izanik.

4.10 MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

4.10.1 IRISGARRITASUNA

Irisgarritasunaren aldetik, hauek dira Ataungo udalerrira iristeko eskuragarri dauden komunikazio-azpiegiturak:

- Motorrik gabeko mugikortasuna: Gipuzkoako bizikleta bideen sareak Gipuzkoako eskualde guztiak zeharkatzeko helburua du, eguneroko zein aisialdirako bizikleta erabilera bultzatzeko. Ataungo udalerrian bertan, hirigunetik ibiltzeko bidegorria San Martin auzoan aurkitzen da. Horretaz gain, Gipuzkoako bizikleta bideen sarearen arabera, Lazkao eta Ataungo udalerriak lotuko dituen bidegorria planifikatua dago.
- Errepide azpiegitura: Errepide azpiegitura GI-21 errepideak soilik osatzen du.
- Garraio publikoa: Autobus zerbitzu ezberdinak topa daitezke udalerrian, esaterako Goierrialdea S.L. La Estellesa S.L. eta Transportes Pesa S.A. Tren ez iristeko aukera ere badago, Beasaingo eta Ordiziako tren geltokiak udalerritik 5 km-tara kokatzen dira eta Goierrialdea autobus zerbitzuarekin lotuta daude.

4.10.2 MUGIKORTASUNA

Udalmapen eskuragarri dauden azken datuen arabera, nahitaez egin beharreko mugikortasun balioak nahiko altuak dira. Udalerritik kanpo lan egiten duten 16 urte edo gehiagoko langileak %83,58 dira Gipuzkoa eta EAE balioak baino handiagoa. Aldi berean, 16 urte baino gehiagoko ikasle guztiek ikasten duten udalerritik kanpo.

29. Taula Nahitaezko mugikortasunagatiko garraio-premiak dituzten biztanleen ehunekoa.

Jatorria	Ataun	Gipuzkoa	EAE
Udalerritik kanpo lan egiten duten 16 urte edo gehiagoko langileak (2016) (%)	86,88	60,40	59,31
Udalerritik kanpo ikasten duten 16 urteko edo gehiagoko ikasleak (2011) (%)	99,21	65,49	64,23

4.11 INGURUMEN- ETA PAISAIA-UNITATE HOMOGENEOAK

Udalerriko ingurune fisikoaren ezaugarrien, prozesuen ingurumen-arriskuen eta paisaiaren azterketaren ondorioz, lurraldean sei ingurumen unitate homogeneo identifikatu dira. Unitate bakoitzak kalitatearen balorazio nahiko antzekoa du, eta baita erabilera espezifikorako gaitasuna edo bokazioa ere.

Ondorengo tauletan ingurumen unitate homogeneoen karakterizazioa biltzen da, bai eta bere ingurumen kalitatearen eta erabilera aukeren balorazioa.

I.U.H. 1	Ibai eremua
DESKRIBAPEN OROKORRA	
Ibai-sistemak, ibai eta errekekin lotutako habitatak, flora eta fauna kontserbatzeko ezinbestekoak diren prozesu hidrogeomorfologiko guztiak hartzen ditu bere barnean. Gainera haranetako paisaiaren elementu egituratzaile eta dibertsifikatzaile garrantzitsuak dira.	
Unitate honetan, Agauntza ibaiaren lehentasunezko fluxu-eremua kontuan hartu da, hirigunetik igarotzen den tartean zehar. Beste tartetan ordea, eta beste errekaetara, Ibai eta Erreken LPSak ezarritako babes	

zortasuna kontuan hartu da, bakoitzaren hirigintza-osagaiaren arabera, eta kontuan hartuta ere, landa eremuetatik igarotzen direla.

Eremu honen helburua babesa izango litzateke, ingurumen-erregulazioari lotutako zerbitzu ekosistemikoak mantentzen dituelako (lurzorua, klima, ura, etab.) eta biodibertsitatearen gordailu gisa jarduten duelako.

ERABILPEN GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen kalitate HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> - Ataunen Agauntza ibaiaren behe tartearen Oria Garaiko Kontserbazio Bereziko Eremuaren parte da. Ibaiaren goi tartearen Aldiz, Aralarreko Natura Parkea eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren parte da. - Batasuneko Intereseko Habitata biltzen ditu, hala nola, ibaiertzeko haltzadi eurosiberiarra (91E0*). - Intereseko animalia espezie ugari bizi diren eremua da, eremu urtarari bakarrik lotuta egon daitezkeenentzat, zein bertara edateko gerturatzen diren animalia lehortarrentzat, edo uretan elikatzen direnentzat. Aipagarria da, Agauntza ibaia eta beste erreka nagusiak bisoi europarrarentzako interes bereziko eremuak bezala izendaturik daudela, espezie honen Kudeaketa Planaren arabera. - Zerbitzu ekosistemiko ugari eskaintzen ditu (klimaren erregulazioa, ziklo hidrokologikoa, elikagaiak, etab.). - Paisaiari naturaltasuna eta kalitate bisuala eskaintzen dio. - Hiritarrentzako lasaitasunerako eta aisialdirako espazioak eskaintzen ditu. 	Udalerriko ibar guztietatik igarotzen da. Ibai nagusia Agauntza da, lurraldea hego ekialdetik iparralderaino zeharkatzen duena.
Zaugarritasun/berezitasun HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> - Uholde arriskua du, batez ere, hirigunea zeharkatzen duen tartean. - Presio ugari jasaten ditu. Hirigunea bere ingurutuan garatu da, ibai ertzak mugatuz, landaredia desagertuz, ur emaria kontrolatzeko presa txikiak eraikiz, edota ibilguak zeharkatzeko zubiak. 	
Ahalmena	Natura eta aisialdi jarduerak	
Harrera-gaitasun TXIKIA	Eremu honetan helburuak ibai ibilguen funtzio ekologikoak mantentzea eta sustatzea izango lirateke. Ondorioz, eremuaren antolaketa kontserbaziora eta ingurumen balioa hobetzera bideratu beharko litzateke.	

I.U.H. 2	Kontserbaziorako basoa
DESKRIBAPEN OROKORRA	

Unitate honetan bertako espeziek osatutako basoak barneratzen dira (hariztiak, pagadiak, artadiak, erkameztiak, etab.), heskaiekin batera, eta hauek eratu ditzaketen landaredia antolaketa ezberdinak (txilardiak, iratzediak, arantzadiak, etab.). Bestetik, harkaiztietako landaredia ere sartu da.		
ERABILPEN GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen kalitate HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> - Lurraldeko landaredia natural eta potentzialari dagokio. - Batasuneko Intereseko Habitat ugari biltzen ditu, eta baita lurralde mailan interes handia dutenak ere. - Habitat dibertsoak eratzen dituzte, espezie ugariekin, eta animalientzako oso aproposak direnak, elikadura, babes, zein dispersiorako. - Tokiko korridore ekologikoen sarean eremu nukleoak dira. - Zerbitzu ekosistemiko ugari eskaintzen ditu (klimaren erregulazioa, ziklo hidrogikoa, elikagaiak, etab.). - Herritarren tradizio kulturekin oso lotuak. - Hiritarrentzako lasaitasunerako eta aisialdirako espazioak eskaintzen ditu. 	Baso naturalak mendietako maldetara baztertuak izan dira, leku malkartsuetara eta iristeko zailak. Udalerrriaren hegoaldean hedatzen dira batez ere, eta Agauntza ibaiaren ekialdean, Aralarreko Natura Parkearen barruan.
Zaugarritasun/berezitasun HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> - Presio antropiko ugari jasaten ditu, batez ere hauen ustiapenerekin loturikoak. - Irisgarriagoak diren eremuetan bertako espezieak, zuhaitz eta pinu espezie aloktonoekin ordezkatu dira. 	
Ahalmena	Erabilpen naturalistikoa. Bertako basoa osatzen duten espezieen babesa.	
Harrera-gaitasun TXIKIA	Eremu honetan helburua basoa kontserbatzea izango litzateke, bertako zerbitzu ekosistemikoak mantendu daitezkeen eta biodibertsitatearen gordailu moduan.	

I.U.H. 3	Ustiapenerako basoa	
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Unitate honetan ustiapenerako erabiltzen diren basoak barneratzen dira, bertako zein espezie aloktonoez osatuak. Bertatik zurgintza eta papergintza industrietarako lehengaiak lortzen dira batez ere.		
ERABILPEN GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen kalitate ERTAINA	<ul style="list-style-type: none"> - Baso landaketan ingurumen kalitatea murriztua da, landaketa monoespezifikoak direlako, ustiapen epe laburrak dituztenak. Gainera, inguruneke beste elementu batzuk arriskuan jartzen dituzte, hala nola, ur ibilguen eta lurzorua kalitatea eta higadura prozesuak. - Bestelako landaketak aldiz, bertako espezieak erabiltzen direnak, ez monoespezifikoak eta 	Aurretik egoera naturalean bertako basoak egondako eremuetan kokatzen dira, medietako magaletan. Udalerrriaren iparraldean hedatzen

	mozketa epe luzeagoekin, adibidez, biodibertsitatearen mantenuan ere eragin positiboak izan ditzakete.	dira batez ere, baita Agauntza ibaiaren hegoaldean eta Aralarren barruan ere, Ataungo domoan.
Zaugarritasun/berezitasun ERTAINA	Gaur egun, arriskurik handiena lurraldean oso hedatuta dauden espezieei eragin diezaieketen gaixotasun monoespezifikoen hedapenetik dator, <i>Pinus radiata</i> espeziearen kasuan bezala.	
Ahalmena	Erabilpen naturalistikoa, ustiapenekoak eta aisialdirako. Unitate honetako irizpidea baso-ustiategiari zuzenduta egongo da, % 60-70 malda gainditzen duten zonetan izan ezik. Kasu horietan, komeni da bertan baso autoktonoaren azalera zabaltzea.	
Harrera-gaitasun TXIKIA	Bere bokazioa produkzioa izango da, egurraren ustiapen jasagarria bultzatuz.	

I.U.H. 4		Nekazaritzarako Balio Estrategiko Altuko lurrak
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Unitate honetan Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialak 'Balio Estrategiko Altua' kategorian identifikatutako lurrak barneratzen dira, abereentzako forrajea edo bestelako nekazal erabileretarako oso ezaugarri egokiak dituztenak.		
ERABILPEN GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen kalitate HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> - Eremu hauetan larreak mantentzen dira, duten erabileraren arabera Batasuneko Intereseko 6510 Habitata izan daitezkeenak. - Bertako produktuak haztea ahalbidetzen du, nekazal ekonomia sustatuz. - Beste belardiekin, baso eta eskaiekin mosaikoa eratzen du, haranen hondoko landazabala osatuz, Kantauri isurialdeko landa-paisaia definitzen duen elementu bereizgarria da. 	Agauntza eta Lauztierrekaren ertzetan garatzen diren lursail lauetan hedatzen dira. Udalerrian azalera oso txikia suposatzen dute.
Zaugarritasun/berezitasun HANDIA	Bere kokapena eta orografia lauarengatik, hirigintza garapenerako oso erabilgarriak izan daitezkeen lurrak dira.	
Ahalmena	Abeltzaintza eta nekazaritzarako erabilera.	
Harrera-gaitasun TXIKIA	Hirigintza garapenerako egokiak izan daitezkeen lurrak batzen ditu, dituzten baldintza geoteknikoengatik. Hala ere, hauen babes eta duten nekazaritzako erabilera mantentzea lehentasunezkoa kontsideratzen da.	


I.U.H. 5		Nekazaritza eta abeltzaintzako landazabala
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Unitate honek belardi eta larreetarako landatutako bestelako eremuak hartzen ditu bere baitan, bai eta, inguruko eraldatutako eremuak landa-inguruneari lotutako jarduerak burutzeko. Horrela, baserriak, baratzeak, frutabolak eta belardiak dira eremu honen ezaugarri nagusiak.		
ERABILPEN GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen kalitate ERTAINA	<ul style="list-style-type: none"> - Gainerako eremu natural edo erdinaturalekin batera, sare berdearen parte da. - Intereseko elementu erdinaturalak ditu, ahala nola, zuhaitziak eta larreen arteko heskaiak, konektibitate ekologikoan laguntzen dutenak. - Lursail gehienak batasuneko intereseko habitatekin bat egiten dute, batez ere 6510 larreak. - 6230*, 6170, 6210* habitatak ere identifikatzen dira, ezaugarri naturalagoak dituztenak. - Hirigune inguruan paisaia-kalitatea handitzen du. 	Ibai ibilguekin lotutako eremu laueta hedatzen dira, 'Balio Estrategiko Altuko' lurrez haratago. Azalera handi bat, Aralarko Parke Naturalaren barnean kokatzen dira.
Zaugarritasun/berezitasun ERTAINA	Arriskurik handiena bere kokapena da. Izan ere, hiriguneen ondoan egonda, hirigintza garapenek lursail hauek hartu ditzakete.	
Ahalmena	Abeltzaintza eta nekazaritzarako erabilera, hiri garapenak. Erabilpen naturalistikoa eta aisialdirako.	
Harrera-gaitasun ERTAINA	Nekazaritza eta Basogintzaren LAPeko trantsizioko landa-paisaia kategoriaren definizioarekin bat dator. Horregatik, lurzoruaren gaitasun agrologikoa, abeltzaintza-jarduerak eta landa-ekosistema eta -isolamendu horien kontserbazioa bermatuko duten bestelako jarduera bateragarriak mantentzea da irizpidea.	

I.U.H. 6		Hiri lurzoruak edo eraldatuak
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Hiriguneko hiri-garapenek, industrialdeak, landa-guneak, garraio-azpiegiturak eta beste azpiegitura batzuk (Jentilbaratzako harrobia) gauzatzearen ondorioz eraldatutako lurzoruek okupatutako lursailei dagokie.		
ERABILPEN GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen kalitate ERTAINA	<ul style="list-style-type: none"> - Lurzoru eraldatuek, bere erabilerak eta jendearen presentzia altuak eremuaren ingurumen kalitatea murrizten dute. Zentzu honetan, landaredia naturalaren garapena oso mugatua dago, eta horrekin batera, gerturatu daitezkeen intereseko animalia espezieak. 	Agauntza ibaiaren ibarrean.

	<ul style="list-style-type: none"> - Herriguneen tamaina txikia, bere kokapen sakabanatua eta ibai ibilguetatik gertu, natura elementuen kontserbazioa ahalbidetzen du. 	
Zaugarritasun/berezitasun ERTAINA	<ul style="list-style-type: none"> - Hiri lurzoruaren gehiengoa uholde arriskua jasan dezake, eta akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun handia duten eremuetan kokatzen da. - Eremu batzuetan kutsatuak egon daitezkeen lurzoruak aurkitzen dira. - Herrigunean Aralar eta Oria Garaiaren Kontserbazio Bereziko Eremuekin mugatzen dute. - Herriguneak zeharkatzen dituen ur ibilguak galtzeko arriskuan dauden bisoi europarraren eta muturluze piriniarraren interes bereziko eremuak dira. - Kultura intereseko ondarea aurkitzen da. 	
Ahalmena	Hirigintzarako erabilera.	
Harrera-gaitasun HANDIA	Orokorrean hiri garapenak jasotzeko ezaugarri egokiak ditu.	

30. Taula Ataunen identifikatzen diren Ingurumen Unitate Homogeneoen laburpena.

Ingurumen-unitate homogeneoak		Azalera (ha)	Udalerraren %
1	Ibai-eremua	204	3,5
2	Kontserbaziorako basoa	3.301	56,5
3	Ustiapenerako basoa	1.733	29,7
4	Nekazaritzarako Balio Estrategiko Altuko lurrak	37	0,6
5	Nekazaritza eta abeltzaintzako landazabala	718	12,3
6	Hiri-lurzoruak edo eraldatuak	38	0,7



29. Irudia Ingurumen-unitate homogeneousak Ataungo udalerrian

4.12 INGURUMEN-ALDERDI GARRANTZITSUEN LABURPENA

Ataungo udalerria Goierriko eskualdean kokatzen da, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren hego-ekialdean. Gutxi gorabehera 58,36 km²-ko azalera du, zati esanguratsu bat (% 75) Aralar Parke Naturalaren barruan kokatua dagoelarik.

Orografiari dagokionez, lurraldea oso malkartsua da. Eremu lauak gehienbat Agauntza ibaiaren ibarretara mugatzen dira, eta hauek oso eremu estuak izanda, lurraldearen hirigintzarako okupazioa baldintzatzen dute. Ondorioz, Ataunen herrigune txiki ugari garatu dira, ibaiaren ibarreen zehar eta honek udalerrian ezaugarri eta elementu naturalak nagusitzea ahalbidetu du, eta baita hauekin loturiko ustiapenak ere.

Litologiari erreparatura arroka detritikoak eta kareharriak dira nagusi, udalerrian ipar-ekialdean interes geologikoko handiko eremu bat eratzen dutelarik, Ataungo Domoa, 2.267 ha zabalerarekin. Arroken gaintik Kanbisol eta Lubisol motako lurrak agertzen dira, eta nekazaritzarako baldintza onak izan ditzaketen arren, maldek bere erabilera mugatzen dute, ondorioz, azalera gehiena basoek estaltzen dute.

Ataun Agauntza ibaiak zeharkatzen du, hego-ekialdetik iparralderaino igarotzen dena, Domoa inguratuz. Ibai honek isuri-arro zabala du (50-100 km²), batez ere herriguneetatik igarotzen den tartean, eta bertara, erreka eta erreka ugari isurtzen dute. Aipatu beharra dago, lurraldearen zati nagusitik

baztertuta dagoen Atauneko eremuan Zaldibia ibaia igarotzen dela, beste isuri-arro baten parte dena. Atauneko ur masen egoera ekologikoa zein kimikoa kalitate onekoa bezala irudikatzen da azkeneko azterketen arabera.

Atauneko klima atlantikoak, oro har tenperatura epelekin urte osoan zehar eta prezipitazio ugariekin, dauden lurzoru motekin batera, bertan garatzen den landaredia baldintzatzen du. Potentzialki, lurraldea harizti eta pagadiak estaliko luke, haltzadiarekin batera ur ibilguen ertzetan. Hala ere, orain arte lurzoruan egindako erabilerak, garatzen den landaredia moldatu dute. Horrela, basoek gutxi gorabehera lurraldearen %80 okupatzen duten arren, hauetatik %50 dira naturalak (pagadiak, hariztiak, eta artadiak), eta beste %30 baso landaketak dira, gehien bat koniferoena. Aipatu beharra dago Ataunen Batasuneko Intereseko Habitat ugari identifikatzen direla, baso eta belardiei lotuta batez ere, Aralar barruan zein kanpoan, nagusia hegoaldean garatzen den pagadi azidofilo atlantiarra izanda, udalerraren azaleraren % 27 hartzen duena.

Ezaugarri hauek udalerrian animalia espezieen dibertsitatea oso handia izatea ahalbidetzen dute, horietatik batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko espezie mehatxatuen katalogoan aurkitzen direnak. Besteak beste, aipatzekoak dira, harkaitzetara lotuta bizi diren hegazti harrapariak, kobazulo zein basoetara lotutako kiroptero eta hegaztiak, edota ibai ibilguetara lotutako fauna. Zehazki, Agauntza ibaia eta bere erreka nagusiak bisoi europarraren eta muturluze piriniarraren interes bereziko eremuak dira espezie hauen Kudeaketa Planaren arabera, eta Aralar Parke Naturala, Hegazti Nekrofagoentzako interes bereziko eremua da ere, animalia talde honen Kudeaketa Planaren arabera.

Jada aipatu denez, Ataunek natura intereseko ezaugarri ugari biltzen ditu, eta honek udalerraren gehiengoa biltzen duten babes-figurretan isladatzen da. Agauntza ibaitik ekialdera zabaltzen diren lurrak, udalerraren hegoaldeko mugarekin barne, Aralar Parke Naturalaren barne kokatzen dira, eta ondorioz, eremu babestu honen erregulazio-irizpideen menpe gelditzen da. Era berean, Aralar Parke Naturalaren mugaketa, Natura 2000 Sarearen parte den Aralarreko Kontserbazio Bereziko Eremuarekin bat egiten du. Azkenik, San Martinetik iparraldera igarotzen den Agauntza ibaiaren tarte Oria Garaiko Kontserbazio Bereziko Eremuaren barne gelditzen da ere. Eremu hauek, funtzio garrantzitsua betetzen dute lurraldearen kontektibitate ekologikoa mantentzeko animalia eta landare espezieen babesgune izanda, eta paisaiari dagokionez,

Kultura ondareari dagokionez, aipatzekoa da udalerrian arkeologia ondasun izendatu ugari aurkitzen direla, mendi magaletan zein herriguneetan, estazio megalitiko, kobazulo, baserri, eliza eta abarrek lota. Hauek, elementu geologiko eta naturalekin batera, paisaiaren aldetik, bereziak diren ezaugarriak eratzen dituzte, eta horregatik, Atauneko ikus-arro gehienak katalogatuta daude, EAEko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoaren Aurreproiektuaren arabera.

Azkenik, lurraldearen erabilera eta batez ere hiri eremuen garapena baldintzatu dezaketen ingurumen arriskuei erreparatuta, alde batetik, Agauntza ibaiaren ibarrean uholdeak jasan ditzaketen eremuak identifikatzen dira, hiri-lurzoruei eraginez, ibai tarte hau arrisku handiko eremua bezala izendatzen delarik. Bestetik, hiri garapenak ere akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun handia duten eremuetan kokatzen dira, eta puntualki kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak identifikatzen dira. Hala ere, aztertutako bestelako arriskuak, herrigunetan eragin kaltegarri esanguratsurik ez izatea espero da.

5 BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN ANALISIA

Atal honetan Ataungo HAPOak antolatutako esparruan eragina duten lurralde-plangintza eta lurralde arloko planak identifikatutako eta hauetan jasotako ezarpen eta irizpide nagusiak laburbiltzen dira.

5.1 LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO GIDALERROAK

EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez behin betiko onartu ziren. Hauek, gainerako hirigintza-dokumentuak idazteko erreferentzia-esparrua dira, lurralde-antolamenduari dagokionez oinarritzko irizpideak ezartzen baitituzte. Uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez, behin betiko onartu zen LAGen berrikuspena, 1997ko lurralde-ereduaren oinarriak eguneratzen eta osatzen dituena.

Antolamendu Kategoriek ingurune fisikorako LAGen Lurralde Ereduaren proposamena osatzen dute. Lurraldea sektore homogeneoetan sailkatzen dute haien harrera-ahalmenaren arabera, eta horietako bakoitzari erabilera-erregulazio espezifiko bat aplikatzen zaio (ingurune fisikoa antolatzeko matrizearen arabera). Kategoriak honako hauek dira:

- Babes berezia
- Ingurumen hobekuntza
- Basoa
- Nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala
- Mendiko larreak
- Lurrazaleko uren babesa

LAGek adierazten dutenez, garapen-plangintzak (HAPOak) kalifikazio bat ezarri beharko du lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruarentzat, LAGetan ezarritako antolamendu-kategorietako izendapenak eta irizpideak erabiliko dituena, eta azpikategoria gehigarriak sartu ahal izango dira, aztertutako eremuaren berezitasunen arabera. Bestalde, gehitzen dute garapen plangintzak erabileren eta jardueren erregulazio espezifikoagoa ezarri ahal izango duela antolamendu-kategoria bakoitzean, betiere LAG hauetan oro har araututakoa eta dagokion lurralde-eremuko baldintza bereziak kontuan hartuta.

Gainera, antolamendu-kategoriekin batera, baldintzatzaile gainjarri batzuk zehazten dira, zeintzuk ingurune fisikoaren antolamendu-kategoria bakoitzerako ezarritako erabilera-erregimena mugatzen edo baldintzatzen duten.

Arrisku naturalei eta klima-aldaketari buruzkoak ondorengoak dira:

- Akuiferoen kalteberatasuna.
- Arrisku geologikoak.
- Uholde-arriskua.

- Klima-aldaketari lotutako arriskuak.

Azpiegitura berdea:

- Hidrografia sarea: ur-ibilguak, hezeguneak, itsasadarra.
- Ingurune baloreengatik babestutako eremuak: Aralar Parke Naturala eta Kontserbazio bereziko eremua.
- Natura interesko beste eremu batzuk.
- Korridore ekologikoak.

LAGek ingurune fisikoan zuzenean aplikatzeko zehaztaperen lotesle hauek ezartzen dituzte:

- Hirigintza-plangintzak, lurzoru urbanizaezinaren erregulazioan, kategorien eta gainjarritako baldintzen mugaketa egokituko du, bai eta lurralde-plangintzan ezarritako erabilera-araubidea ere; eta kategoria, baldintza eta erabilera-erregimen horiek egokitu ahal izango ditu, udalerrri bakoitzaren berezko baldintzetara eta lan-eskalara egokitzeko. Nolanahi ere, kategoria horien eta erabilera-erregimenaren azken mugaketa hirigintza-plangintzaren berezko zeregina da.
- LAGetan adierazitako antolamendu-kategoriez gain, hirigintza-plangintzak bere udalerrian egon daitezkeen sistema orokorrak eta landa-guneak kalifikatuko ditu, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen esparruan araututakoaren arabera.
- Azpiegitura berdearen eta ekosistema-zerbitzuen arloko gidalerroei dagokienez, hirigintza-plangintzaren kasuan, honako irizpide hauek bete beharko dira:
- Tokiko azpiegitura berdea sortzea, eremu funtzionaleko eta EAEkoarekin lotuz.
- Tokiko azpiegitura berdearen zatitzat hartzea sistema orokor gisa kalifikatutako espazioak, eta, aukeran, tokiko sistemak, espazio libreak eta berdeguneak.
- Eremu babestu bakoitza bere ingurumen-balioen, korridore ekologikoen eta bere lurraldean eragina duten funtzio anitzeko beste espazio batzuen arabera mugatzea, erregulazio egokia ezarriz.

Gainera, LAGek beste zehaztaperen batzuk ere ezartzen dituzte, Lurraldeko Plan Partzialak eta Lurralde Plan Sektorialak idazteko erreferentzia direnak. Ildo horretatik, 5. artikuluan Eremu Funtzionalak (EF) EAEn eta udalerrien arteko tarteko plangintza-eskala gisa mugatzen dira. Ataun, Gipuzkoako beste 21 udalerrirekin eta Enirio-Aralar eta Araba eta Gipuzkoako Partzuergo Nagusiko eremuekin batera Beasain-Zumarragako (Goierri) Eremu Funtzionalaren barruan dago.

Bestalde, LAGek gidalerroak ezartzen dituzte hiri-birgaitzearen, hiri-hazkundearen, jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoruaren eta bizitegi-kuantifikazioaren arloetan, besteak beste. Horietan lehenesten dira, oro har, hiri-birgaitzea, eremu urbanizatuaren dentsifikazioa eta eremu degradatu edo gutxiegi erabiliak berrerabiltzea, lurzoruaren okupazio berrien alternatiba gisa.

Aipatutako zehaztaperen, irizpide eta orientabide orokorrez gain, LAGek ez dute beste gidalerro espezifikorik proposatzen Ataunerako.

5.2 BEASAIN -ZUMARRAGAKO (GOIERRI) EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE PLAN PARTZIALA


2009ko irailaren 29an, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 534/2009 Dekretuaren bidez onartu zuen Goierriko Beasain-Zumarragako Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Plan Partziala (hemendik aurrera LPP).

LPPak lurzoruaren lehen eta oinarrizko egituraketa ezartzen du, lurralde-jardueren euskarri gisa. Lurzorua bi multzo handietan bereizten du, alde batetik ingurune fisikoari dagozkion lurzoruak eta, bestetik, hiri-garapenerako lurzoruak. Zehazki, ingurune fisikoaren kasurako ondorengo kategoria hauek sistematizatzen dira:

- Garrantzi handiagoko eremuak:
 - o Babestu beharreko eremuak:
 - Interes Naturaleko Eremuak
 - Interes zientifiko-kulturaleko eremu eta puntuak
 - Nekazaritza- edo ingurumen-interesa duten eremuak
 - Interes hidrológicoa duten eremuak
 - o Hobetu edo leheneratu beharreko eremuak:
 - Ekosistemak hobetzeko eremuak
 - Baso-kontserbazioko eremuak
 - Erabiltzen ez diren Meatzeak, Harrobiak eta Hondakindegia
 - o EAEko Korridore Ekologikoen Sarea
- Ingurune fisikoaren kategorizazio orokorra: LAGek definitzen dituzten kategoriak naiz baldintzatzaile gainjarriak sartzen dira.


Jarraian LPPak Ataun udalerrirako zehazten dituen alderdiak jasotzen dira:

- **Ingurune fisikoaren antolamenduari** dagokionez, udalerrian Aralarko Parke Naturala eta Natura 2000 sarean sartzen diren eremuak identifikatzen ditu, eta baita interes geologikoko, arkeologikoko, eta hidrológicoa eremuak. Bestetik, lurraldeko ipar-hegoaldean hainbat eremu identifikatzen ditu ekosistema hobekuntzara zein basoen babesera bideratutakoak. Era berean, aurrekoen artean produktorako baso-eremuak eta ohiko nekazaritza eta abeltzaintzarako eremuak ere identifikatzen dira.




30. Irudia Goierriko LPPak Ataunen ezartzen duen Ingurumen fisikoaren antolamendua.

- **Bide sareari** dagokionez, Ataun zeharkatzen duen GI-2120a Ergoienaraino Gipuzkoako bizikleta-bideen oinarritzko sarearen parte bezala irudikatzen da.
- **Zerbitzu azpiegiturei** dagokionez, udalerrria transformazioko eta banaketako azpiestazioa (TBA) eta 380 eta 220 KV-ko energia elektrikoaren garraio sareak zeharkatzen dute. Ur hornidurarako sarea gutxi gorabehera Aiatik abiatzen da, eta GI-2120 errepidea jarraitzen du Beasaineraino. Azkenik, saneamenduko oinarritzko sarea (EDAR) San Martineko auzotik abiatzen da, baita ere GI-2120 errepidea jarraituz Beasaineraino.



31. Irudia Goierriko LPParen 02.2 planoaren zatia. Zerbitzuen oinarrizko azpiegiturak.

- Atauneko **asentamendu sistemari** dagokionez, San Martin hiri-izaerako herrigunea bezala identifikatzen da, eta honen inguruan bizitegi garapen berriko lehentasuneko eremuak irudikatzen dira, eta baita hirigunea babesteko eta eraberritzeko aktuzioak ere. Arrondo, San Gregorio, Ergoiena eta Aia, berriz, landa-izaerako herriguneak bezala identifikatzen dira, eta bertan ere hazkuntzak proposatzen dira, “ordezko habitatak” bezala izendatuta, guztira 60 etxebizitzekin 16 urteko eperako. Etxebizitza eskaintza globalari dagokionez, Ataunen 16 urteko epean 286 etxebizitza kopuru maximo eta 206 minimo aurreikusten dira, eta bigarren bizilekua ere indartzea proposatzen da. Jarduera ekonomikoei dagokionez, hauetarako lurzoruen kalifikazioa hiri-jardueretara mugatzea ezartzen du, udalerrria, zentzu honetan, garapen baxukoa bezala deskribatzen baitu. Bestetik, Atauneko San Martin auzoa “lurraldean sartzeko gunea” bezala izendatzen da, eta ondorioz, ekipamendu berriak jasotzeko egokia.



32. Irudia Goierriko LPParen 03 planoaren zatia. Asentamendu-sistema, espazio-betetzearen ezaugarri orokorrak, bizitegi, industria eta hornidurarako lurzorua.

5.3 LURRALDE PLAN SEKTORIALAK

5.3.1 EAEKO NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LPS

Nekazaritza eta Basozaintzako LAPak behin-betiko onespena dauka 2014ko irailaz geroztik (irailaren 16ko 177/2014 Dekretua) eta lurzoru hiritarrezinaren nekazaritza eta basogintza erabilerak erregulatzen ditu, LAGean oinarritutako antolamendu kategoria eta baldintzatzaile gainjarri jakin batzuk ezarri.


Hiri-lurzoru eta lurzoru hiritargarriak LAP honen antolamendutik kanpo geratzen dira, eta Europako Natura 2000 Sarea osatzen duten eremuetan (Aralarreko KBE barne) eta Ibai eta Erreken LAPak xehetasunez antolatutako ur-ibilguen ertzetan, LAP honek dagokien araudiak ezarritakoa bereganatuko du.

Lurraldearen gehiengoa (udalerrriaren azaleraren %76, 4.455 ha) KBE eta Aralarreko Parke Naturalaren parte da, eta neurri askoz ere txikiago batean ibai-ibilguena (udalerrriaren azaleraren %0,10, 6 ha) edota hiri lurzoru bezala klasifikatua (udalerrriaren azaleraren %0,41, 24ha).

Hortaz, Ataungo udalerrian LPS honek hurrengo irudian azaltzen diren antolamendu kategoriak ezartzen ditu.

31. Taula EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren antolamendu kategoriak Ataunen.

Kategoria	Azalera (ha)	Udalerriaren %
Basoa	936,01	16,04
Basoa-Mendi Urria	39,81	0,68
Larre Menditarra	2,59	0,04
Nekazaritza-abelzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	37,21	0,64
Nekazaritza-abelzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	326,57	5,59
Guztira	1.342,19	22,99



33. Irudia EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak ezarritako zonabanatzea Ataunen.

Kategoria bakoitzeko, aplikazio arau-espezifikoak garatu dira, erabilera eta jarduerak erregulatzeko matrize batean jasotzen direnak.

5.3.2 EAEKO IBAIAK ETA ERREKAK ANTOLATZEKO LPS

Ibai eta erreken ertzak antolatzeke LPS isurialde kantaurrenari dagokionez abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bitartez jaso zuen behin betiko onarpena, azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuak aldatua izan delarik. Antolamendu esparrua, Kantaurre isurialdeko eremuan, ur-ibilguen bi aldeetan 100 metroko zabalerako lurzoru-zerrendek osatzen dute, iturburutik bokaleraino.


LPS honek antolamendu arauak ezartzen ditu hiru osagaitan oinarrituta: ingurumen, hidrauliko eta hirigintza arloko osagaiak.

Ingurumen-osagaiari dagokionez, Ataunen bi kategoriako ertzak aurki daitezke:

- Ondo kontserbatutako landaredia duten eremuak: kategoria honetan Altzuaran erreka ezker ertza, Inbidiaerreka erdiko tarte, Larrainsoroeta erreka amaierako atala, Lauztierrekaren ertz tarte bat eta Agauntza ibaiaren Arrondo inguruko ertz tarte bat identifikatzen dira. Eremu hauetan LPSaren arabera *“gaur egun dagoen landaredia zaindu nahi da, ekosistema egoera klimazikotik hurbil dagoenean”*.
- Lehentasunezko interes naturalistikoak duten eremuak: kategoria honetan Aralarreko Parke Naturala eta Natura 2000 Sarearen barnean txertatzen diren ibai tarteak sailkatzen dira, hala nola, Agauntza ibaiaren goi-tarte, eta bere adarrak (Muntegiberriko erreka, Maizegierreka, Irabelzko erreka, Alaiturrieta, Altzuaran, Larrainsoroetako erreka, Kobatxoerreka eta Artzate). Araudiaren arabera, ertz hauetan *“Ibilgua Babesteko Eremu bat ezartzean datza babeserako irizpide orokorra. Babes-eremu horretan, ingurunea aldatzea eragingo duen jardun oro debekatuko da”*.

Osagai hidraulikoari dagokionez, Agauntza erreka San Gregoriotik gora I mailakoa da, 10-50 km²-ko ibai arroarekin. San Gregoriotik behera aldiz, II mailakoa bezala identifikatzen da, 50-100 km²-ko arroarekin. Bertara isurtzen duten errekaak aldiz 0 mailakoak dira 1-10 km²-ko arroarekin, eta hauek baino ibai arro txikiagoa dutenek (<1 km²), 00 mailakoak izango lirateke.

Ibai tarte hauei eraikinen ondorengo atzerapena ezartzen da:



Hirigintza osagaiaren arabera, berriz, LAPak ibai ibilgu gehienek ertzak ‘landa-eremuetako ertzak’ bezala identifikatzen ditu, eta puntu batzuetan ‘eremu garatuetako ertzak’, ‘azpiegiturek okupaturiko ertzak’, eta ‘garapen berriak hartzeko ahalmena duten eremuetako ertzak’ ere bereizten ditu. Katgoria bakoitzarentzat honako gutxienerako erretiro hauek ezartzen ditu:

32. Taula Ibai eta errekek antolatzeko LPSak ezarritako gutxienerako erretiroak (m) hirigintza- eta hidraulika-osagaien araberrako kategorietan.

Ibai tarteen maila	Arro isurlearen azalera (km ²)	Eremu garatuetako ertzak		Hirigintza garapen berriak izan ditzaketen ertzak		Landa eremuko ertzak
		Mugatze-lerro definitua	Mugatze-lerro ez definitua	Eraikuntza	Urbanizazio plataforma	
II	50 – 100	10	14	16	6 (8)	30
I	10 – 50	10	12	12	2 (4)	30
0	1 – 10	10	12	12	2 (4)	15

Uholdeen prebentziorako, LAP-k lurzorua erabilerak eta uholde lautadaren eremu ezberdinetan (‘urpean gera daitekeen zona’ eta ‘lehentasunezko fluxu-eremua’) jardura hidrauliko eta hirigintzako esku-hartzeak ezartzen ditu. Irizpide orokor gisa, landa-eremuetan eta gaur egun hiritartuta ez dauden eremuetan berezko urperagarritasunarekin bateragarriak diren erabilerak baino ez dira jorratuko eta ez da onartuko “bideratze-lan berririk”, ez eta hirigintzako erabilera intentsibo, eraikuntza-okupazio eta egitura-barneko elementurik, ibai-inguruneari dagozkion erabilerak salbu. Dagoeneko urbanizatutako

edota hirigintza aldetik neurri batean garatuetako eremuetan “ahalegina egingo da lehendik dauden eraikinak eta hirigintzako erabilerak mantentzeko, eta neurri zuzentzaileak hartuko dira, uholde arriskuaren gainean jardun ahal izatearren”.

5.3.3 GIPUZKOAKO BIZIKLETA BIDEEN LURRALDE ARLOKO PLANA

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana ekainaren 10eko 2/2013 Foru Arauak onartu zuen. Gipuzkoan bizikleta bideen oinarritzko sare bat sortzea proposatzen du, gaur egun hein handi baten gauzatuta dagoena. Helburu nagusia bizikletaren erabilera hiri barruko eta hiriarteko eguneroko garraioan integratzea da, horrela, motorrik gabeko mugikortasuna indartuz eta indartuz. Izaera egituratzailea du, Lurralde Historikoko eskualde, eremu funtzional eta hiri-eremu nagusi guztiak igaro eta lotzen baititu. 439 kilometroko luzera du eta bederatzi ardatz nagusik osatzen dute.

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak bereizi egiten ditu Oinarritzko Foru Sarea (oinarritzko sarea osatzen duten hiriarteko tartea) eta Bizikleta Bideen Oinarritzko Sare Lokala (oinarritzko sarea integratzeko asmoa duten tartea). Foru Sareko bideetarako kudeaketa eta titulartasuna foru-administrazioa izatea proposatzen du, eta loteslea da etorkizuneko Foru Sareko zati, adar eta elementu funtzionaletara soilik.

Era berean, ezartzen du udalerriek nahitaez egokitu behar dituztela beren plangintzak, bizikleta-bide horiek lurzoruaren kalifikazio honetan sartuta: Txirrindularitzaren Komunikaziorako Sistema Orokorra, bizikleta-azpiegitura eraginkortasunez gauzatzeko lurzoruen erreserba eta zuzkidura egokia bermatzeko. Definizio horrek, kalifikazio horri dagokionez, hirigintza-antolamenduko tresna guztiak lotzen ditu.

Zehazki, Ataunen I-3 Donostia-Beasain ibilbidearen adar bat irudikatzen da (I-3.9 Beasain – Ataun), Beasaindik abiatuta, Lazkao zeharkatu eta Ataunen bukatzen dena, San Martin auzoan. Ibilbide hau Oinarritzko Foru Sarearen baitan egongo litzateke, eta GI-2120 eta Agauntza ibaiaren ertzetatik doazen bideetatik igarotzen da. LAParen arabera planeatutako ibilbide bat da, gauzatzeko alternatiba ezberdinak aztertu beharko litzatekeen tartea, hain zuzen ere.

5.3.4 EAEKO JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA SORTZEKO ETA SALTOKI HANDIAK ANTOLATZEKO LPS

LAP honek behin-betiko onespina jaso zuen abenduaren 21eko 262/2004 Dekretuaren bitartez, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko eragiketak zein kokapenetan gauzatuko diren identifikatu eta adierazitako jarduketan kuantifikazioa eta bete-beharreko ezaugarriak zehazteko xedearekin.

Saltoki handien arautzeari dagokionez, Auzitegi Gorenaren 2015eko irailaren 3ko epaiak indargabetu zuen LAP-k saltoki handietarako gehieneko azalerari buruzko ezarritakoa. Horren ostean ekainaren 27ko 10/2019 Legea onartu da, establezimendu komertzial handien lurralde antolamenduari buruzkoa.

LAPak ez du Ataun jarduera ekonomikoak garatzeko lehentasunezko eremu bezala identifikatzen, eta ez du proposamenik egiten udalerrirako.

5.4 GAINONTZEKO PLAN SEKTORIALAK

5.4.1 EAEKO HEZEGUNEEN LPS

Ataungo udalerria LPS honen eskumenetik kanpo aurkitzen da.

5.4.2 EAEKO KOSTALDEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO LPS

Martxoaren 13ko 43/2007 Dekretuaren bidez onartua, Ataunen ez du inolako eraginik.

5.4.3 EAEKO ENERGIA EOLIKOA ANTOLATZEKO LPS

Maiatzaren 15eko 104/2002 Dekretuaren bitartez onartua. Momentu horretan garatuta zeuden parke eolikoak jaso eta berriak ezartzeko kokaleku zehatz batzuk proposatzen ditu. Ataunen ez du eraginik.


5.4.4 ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LPS

Lurralde Plan Sektorial honi hasierako onespina eman zitzaion 2023ko apirilaren 27ko Aginduaren bitartez. LPS honek energia berriztagarrien ezarpena planifikatzea du lehentasunezko helburu gisa, EAEn energia berriztagarrien ekoizpena eta kontsumoa areagotzeko asmoz. Honela, lurraldearen ezaugarrien azterketaren ondoren, inguruen- eta antolamendu-irizpideen arabera energia berriztagarri desberdinak kokatzeko eskusio-guneak definitzen ditu, eta baita, hauentzako kokaleku hoberenak ere.

Atauni dagokionez, orokorrean, Aralar Natura Parkearen barnean dauden lurrak eskusio gune bezala izendatzen ditu energia fotovoltaiko eta eolikoko azpiegituretarako, eta Parketik kanpo dauden eremuak ahalmen urrikoak bezala izendatzen ditu. Zentzu honetan, ez du udalerrian energia berriztagarri hauentzako kokaleku berririk proposatzen.

Honekin lotuta, aipatu, Eusko Jaurlaritzak 2021ean parke eolikoek eta fotovoltaikoek sortutako inpaktuekin loturiko ingurumen-zonakatze baten proposamena argitaratu zuela¹⁶, LPSaren tresna izan daitekeena, energia berriztagarri hauek kokatzeko eremu sentikorrenak identifikatuz. Tresna hau, GeoEuskadin dago ikusgai, eta honen arabera Ataun, nagusiki, sentikortasun maximoko eta sentikortasun handiko lurraldea bezala irudikatzen da energia eoliko zein fotovoltaikoko azpiegiturei dagokionez. Badira zenbait eremu sentikortasun ertaina edo txikia dutenak, batez ere, energia eolikoarekiko.

¹⁶ Impactos generados por los parques eólicos y fotovoltaicos y propuesta de zonificación ambiental, 2021. Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático. Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente. Gobierno Vasco – Ekolur.



34. Irudia *Ataungo sentikortasuna energia fotovoltaiko eta eolikoarekiko.*

5.4.5 EAEKO TRENBIDE-SAREAREN LPS

Otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuaren bidez onartua, Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan trenbide sare osoa ezarri eta garatzeko jarduketak zehazten ditu. Ataundik ez da trenbiderik igarotzen, eta LPSak ez du eraginik udalerrian.

5.4.6 EAEKO ERREPIDEEN HIRUGARREN PLAN OROKORRA, 2017-2028

EAEko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra maiatzaren 19ko 63/2020 Dekretuaren bidez onartu zen, 2017-2028 aldirako dagokiona. Planean ez da ekintzarik proposatzen Ataun zeharkatzen duen GI-2120 errepiderako.

5.4.7 GIPUZKOAKO HIRI-HONDAKINEN AZPIEGITURETAKO LPS

Hiri-hondakinak kudeatzeko azpiegituri dagokienez, Gipuzkoako Hiri Hondakin Azpiegituren Lurralde Plan Sektoriala (2009) aldatu egin da apirilaren 10eko 9/2018 Foru Dekretuaren bidez (2018ko Lurralde Plan Sektorialaren aldaketa behin betiko onartzen duena). LPS honek ez du eraginik Ataungo udalerrian.

5.5 BESTE PLAN ETA PROGRAMAK

5.5.1 KANTAURI EKIALDEKO DEMARKAZIO HIDROGRAFIKOAREN PLAN HIDROLOGIKOA 2022-2027

Urtarrilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuaren bidez behin betiko onartuta, 2000/60/EE Zuzentaraua aplikatzeko tresna da, Uraren Esparru Zuzentaraua (UEZ) izenez ezagutzen dena, eta 62/2003 Legearen bidez Espainiako araudira ekarri zena. Dokumentuak Estatuko Administrazio Orokorrak Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren bidez eta, bestetik, EAEk Uraren Euskal Agentziaren (URA) bidez egindako plan hidrologikoak biltzen ditu.

Plan honek bere esparruan sartzen diren ur masen eta hauekin loturiko eremuen babesa sustatzea du helburu, beste batzuen artean, ur-erabilerak, babestutako eremuak, edota uholde arriskuaren kontrako neurriak ezarriz.

Zentzu honetan, Ataungo hirigunean zehar irudikatzen diren urak har ditzakeen eremuei dagokionez, duten arriskuaren arabera (lehentasunezko fluxu-gunea, 10, 100 eta 500 urteko itzulketa-epealdia), hauek garatzeko baldintzak ezartzen ditu, erabilerak, erretiroak, eta babes neurriak garatuz (ikusi 4.8.1 atala UHOLDE ARRISKUA).

Gainera, Uraren Esparru Zuzentarauak eta Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduak ezarritakoa betez, Plan Hidrologikoak Eremu Babestuen Erregistroa ezartzen du (ikusi 4.3.4 atala).

5.5.2 GARAPEN IRAUNKORRAREN EUSKAL INGURUMEN ESTRATEGIA 2002-2020

2002an onartu zen, eta Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiak EAEn 2020an lortu beharreko 5 ingurumen-helburu ezartzen ditu:

1. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.
2. Natura-baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua.
3. Natura eta biodibertsitatea babestea: sustatu beharreko balio bakarra.
4. Lurralde-oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna.
5. Klima-aldaketan duen eragina mugatzea.

4. helburuak lotura zuzena du hirigintza-plangintzarekin. Helburu horren barruan, honako helburu hauek planteatzen dira:

1. helburua: Lurraldearen erabilera jasangarria lortzea. Helburu hori alderdi hauetan zehazten da: finkatutako hiria berritzea eta birgaitzea; bizi-kalitatea sustatzea eta hiriguneen diseinu erakargarria hobetzea; hirigintza-plangintza lurralde-antolamenduko tresnetan jasotako helburuetara eta iraunkortasun-irizpideetara egokitzea sustatzea.

2. helburua: erabileren eta jardueren garapen iraunkorra ahalbidetuko duen irisgarritasuna lortzea (bizitegiak, jarduera ekonomikoak eta aisialdia). Mugikortasun-beharrak murriztea da helburua, modu motordunen eskaria handitzea dakarten hirigintza-jarduerak eta -erabilerak ez erraztuz.

3. helburua: garapen ekonomikoa eta garraiobide motordunen bidezko garraio-eskaeraren hazkunde orokorra bereiztea. Ingurumen-inpaktu txikiena duten moduak sustatu nahi dira, eta motorizatu gabeko garraioak motordunekin parekatu.

5.5.3 EAEko INGURUMEN ESPARRU PROGRAMA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorraren 6. artikuluan ezartzen zenez, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika Ingurumeneko Esparru Programa (IEP) batean islatuko da, eta programa hori ingurumen-organoak egingo du lau urtean behin.

IV Ingurumen Esparru Programak, denbora muga gisa 2020 urtea ezartzen zuenak, helburu eta ekintza zehatz batzuk definitu zituen Euskadiko baliabide naturalak babestu, eta kontserbatzeko.

1. helburua "Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta lehengoratzea, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak zainduz" 2020rako Euskal Autonomia Erkidegoko ekosistemen narriadura geldiarazteko proposatzen da. Izan ere, aurrerapenak egon diren arren, ekosistema asko hondatuta daude edo jasanezinak dira. Horren arrazoa da, besteak beste, lurzorua artifizializazio-maila handia dela, nahiz eta azken urteetan erritmoa moteldu egin den.

Gure kapital naturala babesteko, kontserbatzeko eta lehengoratzeko, 2020rako IEPren ekintza estrategikoak jarduera-ildo hauek ditu ardatz:

- 1.1. Ingurune naturalaren kontserbazioa modu eraginkorrean txertatzea politika sektorialetan.
- 1.2. Ekosistemen eta haien zerbitzuen galera mugatzea.
- 1.3. Lurzorua okupazioa geldiaraztea, erabilerak nahastea eta espazio degradatuak berroneratzea eta berrerabiltzea erraztuz.
- 1.4. Tresna ekonomikoak sartzera Euskal Autonomia Erkidegoko kapital naturalaren kudeaketan.
- 1.5. Lurraldean jarduten duten eragileak ekosistemen zerbitzuen garrantziaren inguruan konprometitzea eta sentsibilizatzea.

Horien artean, HAPOn helburuekin duen loturagatik, lurzorua okupazioari buruzko 1.3 jarduketa-ildoaz azpimarra daiteke, honako jarduketa hauetan banatzen dena:

- Biztanleriaren dentsitate handiagoak lehenetsiko dituen lurralde-antolamendu adimenduna ezartzen laguntzea, erabileren konbinazioa (lana, aisialdia, etxebizitza) eta lurzorua kontsumoaren optimizazioa bultzatuko dituen, berrerabilpena eta leheneratzea lehenetsiz.
- Eremu degradatuak lehengoratzeko zerbitzu ekosistemikoak sustatzea.
- Azpiegitura berdeen kontzeptua txertatzea gure lurralde-antolamenduko gidalerroetan.

Gaur egun V. IEPa dago indarrean, zeinak 2030 urtea ezartzen duen denbora-muga gisa, eta aurreko programetan ezarritako helburu eta erronketatik abiatuz, ingurumenaren inguruko problematika landuko duten 8 proiektu definitzen ditu.

Horien artean, Udal plangintzarekin 2. proiektuak “Lurraldearen kohesio jasangarria” du erlazio zuzena, zeinaren bidez arlo publikoko eta pribatuko erakundeek elkarlanean jarduteko sistema bat sortu nahi da, lurraldearen funtzioaniztasuna mantendu eta sustatzeko.

5.5.4 *BASQUE COUNTRY 2030 AGENDA*

Euskadi Basque Country 2030 Agendak XI. legegintzaldiko gobernu-programak eta hura garatzen duten politika sektorialek 17 Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) lotutako helburuekin eta xedeekin duten lerrokatze- eta ekarpen-maila islatzen du.

Euskadiko Agendak Nazio Batuen Gobernu Programa eta 2030 Agenda lotzen ditu, eta batez ere, Eusko Jaurlaritzak jarduteko gaitasuna duen gaietan eta konpromisoetan oinarritzen da. Honela 15 herri-helburu ezartzen dira, 15 plan estrategikoren, 54 plan sektorialen, 28 legegintza-ekimenen eta 175 konpromisoren inguruan egituratzen direnak, eta EAE mailan garatuko direnak.

Era berean, Euskadi Basque Country 2030 Agenda udalerrri mailara eramateko Tokiko 2030 Agenden garapena bultzatzen da, udalerrriaren plan estrategikoa aurrekoarekin lotuz eta hau GJHetan oinarrituz.

Garapen Jasangarrirako Helburuak ondorengoak dira:

- | | | | |
|---|---|----|--|
| 1 | Pobreziaren amaiera | 10 | Desberdintasunak murriztea |
| 2 | Goserik ez | 11 | Hiri eta komunitate jasangarriak |
| 3 | Osasuna eta ongizatea | 12 | Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak |
| 4 | Kalitatezko hezkuntza | 13 | Klimaren aldeko ekintza |
| 5 | Genero berdintasuna | 14 | Itsaspeko bizi |
| 6 | Ur garbia eta saneamendua | 15 | Lehorreko ekosistemetak bizi |
| 7 | Energia eskuragarri eta ez kutsatzailea | 16 | Bakea, justizia eta instituzio sendoak |
| 8 | Lan duina eta hazkunde ekonomikoa | 17 | Helburuak lortzeko itunak |
| 9 | Industria, berrikuntza eta azpiegitura | | |

5.5.5 KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO 2050erako EUSKAL ESTRATEGIA

2013an, 2008-2012 aldirako Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Plana amaitu eta ebaluatu ondoren, Klima Aldaketaren Estrategia egiten hasi ziren, isurketak arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko ibilbide-orri bat ezartzeko. 2015ean onartu zen Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Klima Aldaketaren Estrategia.

Estrategiak 2050erako Euskadiren Ikuspegia definitzen du, bost premisatan oinarrituta, eta horien aplikazioak ekarriko du ezarritako helburuak lortzea. Klima-aldaketaren aurkako ekintzari arintze- eta egokitze-ikuspegietatik heltzen zaionez, Estrategiak finkatzen dituen helburuak aipatutako bi alderdietan zentratzen dira.

Europa erreferentzia iraunkor gisa hartuta, Euskadik 2030ean berotegi-efektuko gasen isuriak gutxienez % 40 murrizteko helburua zehaztu du, eta 2050ean gutxienez % 80 murrizteko helburua, hori guztia 2005. urtearekin alderatuta. Berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko helburuekin batera, sektoreak energia-kontsumo eraginkorrago baterantz eta energia berriztagarrien azken kontsumoaren % 40ko gutxieneko kuotarantz bideratzea aurreikusten du, sektore kontsumitzaileen elektrifikaziorako pixkanakako eraldaketa bati lotuta. Beraz, Euskadik azken kontsumoaren % 40ko energia berriztagarria kontsumitzeko helburua finkatzen du 2050. urtean.

Aldi berean, beharrezkoa den egiturazko aldaketak lurralde- eta hiri-plangintzan ere aldaketak aurreikusten ditu, mugikortasun-premia txikiagoak dituzten eta emisio txikiak edo batera emisiorik ez duten garraio-moduen eskaintza nahikoa duten ereduarentz.

Klima-aldaketak Euskadin izango dituen eraginak eta Egokitzapenerako Europako Estrategiaren ildoari jarraituz, Euskal Estrategiaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea klima-aldaketarekiko erresiliente dela ziurtatzea. Helburu hori lortzeko, toki- eta eskualde-mailan hartu beharko diren helburu eta jardun-ildo espezifikoak definitzen dira.

1. Karbono gutxiko energia-eredu baten alde egitea
2. Emisiorik gabeko garraio baterantz aurrera egitea
3. Lurraldearen eraginkortasuna eta erresilientzia areagotzea
4. Natura ingurunearen erresilientzia handitzea
5. Lehen sektorearen erresilientzia handitzea eta haren emisioak murriztea

6. Hiri-hondakinen sorrera murriztea eta zero isurpen lortzea trataerarik gabe
7. Arriskuei aurre hartzea
8. Berrikuntza, hobekuntza eta ezagutzaren transferentzia bultzatzea
9. Euskal Administrazio Publikoa arduratsu, eredu eta erreferente da klima-aldaketaren arloan

5.5.6 EUSKADIKO HIRI AGENDA – BULTZATU 2050

Bultzatu 2050 Hiri Agendaren helburua da Euskadi nazioarteko ahaleginekin bultzatzea, horrela Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetzen lagunduz.

Agenda hori Hiri Agenda Berriarekin (Habitataren Munduko Gailurra, 2016), Nazio Batuen 2030 Agendarekin eta Europar Batasuneko Hiri Agendarekin bat dator. Eusko Jaurlaritzak jarduteko gaitasuna duen gaitetan eta konpromisoetan oinarritzen da nagusiki.

Agenda 11. GJHan oinarritzen da: Hiriak eta giza finkapenak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea. Baina helburu globalez harago, Euskadiko Hiri Agenda bat dator Basque Country 2030 agendaren esparruko 11. GJHekin lotutako edukiekin. Zehazki, honako helburu hauek biltzen ditu:

- Lurralde-estrategia jasangarri, sozial, adimendun, orekatu eta parte-hartzailea sustatzea
- Kultura eta kultura-ondarea dinamizatzeko eta sustatzeko estrategia bultzatzea
- Euskararen erabilera sustatzea: euskara
- Larrialdien aurreko prebentzio- eta alerta-sistema eta herritarren autobabesa indartzea
- Hiri-birgaitzea, -berroneratzea eta -berrikuntza sustatzea
- Etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzea
- Garraio publiko jasangarri eta intermodala sustatzea.

Bultzatu 2050 bat dator Udalsareak emandako planen garapenarekin, tokiko eremuan GIHetan izango duen eraginaren erreferentzia-esparru gisa.

6 AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBEI BURUZKO INGURUMEN AZTERKETA

6.1 ALTERNATIBEN INGURUMEN-AZTERKETARAKO METODOLOGIA

Atal honetan burutzen den alternatiben ingurumen-azterketa HAPO-aren aurrerakinak definitzen dituen esparru ezberdinek gaur egun aurkezten dituen ingurumen-baldintzatzaile nagusietan oinarrituko da. Honela, alternatiba ezberdinen balorazioa egingo da, bakoitzak izango lituzkeen onura eta kalte potentzialak identifikatuz.

Aurreikusten diren hirigintza garapen eta antolaketa proposamen berriak kokatzen diren eremuen ezaugarriak kontuan harturik, ondorengo hauek izango lirateke beraien garapena baldintzatuko dituzten ingurumen-eragilea nagusienak:

- Lurzoruaren okupazioa eta honen ahalmen agrologikoa: Eremu berriek okupatutako azalera kontuan hartzen da, kokapen horiek gaur egun duten erabilera aintzat hartuz. Gainera, aztertutako eremu batzuek ahalmen agrologiko handiko lurzoruetan kokatuko lirateke, lurzoru hauek galtzea ekarriko luketelarik. Alderdi hau baldintzatzailetzat jotzeko irizpidea Nekazaritza eta Basogintza LAP-ean 'Balio estrategiko altua' kategorian sailkatuta egotea izan da.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Aztertutako eremuak lurrazaleko ur-ibilguren batek (ibai, erreka eta erreka) zeharkatzen dituen hartu da kontuan, eta aurreikusitako garapenak baldintzatuko dituzten edo ez aztertu da. EAEko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPak identifikatutako ibilguak kontuan hartu dira. Udalerriko ur-ibilgu nagusia Agauntza ibaia, Ataungo hirigune ezberdinak zeharkatzen dituena.
- Landaredia: Aztertutako eremuek interesa duten landaretza edo habitatak azaltzen dituzten aztertu da. Intereseko landareditzat jotzen dira, alde batetik 92/43/CEE Habitaten Zuzentarauko I. eranskinean definituriko Interes Komunitarioko Habitatak, eta bestetik hostozabalen baso autoktonoak (artadiak, hariztiak, pagadiak, e.a.).
- Fauna: Ataungo udalerrian EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan dauden zenbait espezie aurki daitezke. Zentzu honetan, garapen berrientzako baldintzatzaile izan daitekeelakoan, aipatu beharra dago Agauntza ibaia bisoi europarrarentzako (*Mustela lutreola*) eta muturluze piriniarrarentzat (*Galemys pyrenaicus*) Interes Berezikoko Eremua izendatzen dela espezie horien kudeaketa planen arabera. Espezie hauek aztertutako eremuetan duten presentzia baldintzatuta dago, besteak beste, zona hauen naturaltasunagatik, espezie horientzako habitat mesedegarrien presentziagatik eta haien konektibitate ekologikoagatik.
- Natura gune babestuak: Ataunen azaleraren ia % 75 Aralar Parke Naturalaren barne dago, Agauntza ibaiaren ekialdera dauden lurzoruak eta udalerraren hegoaldeko zona hartzen duelarik. Parke Naturalaren mugaketa bat dator nagusiki Aralar Kontserbazio Berezikoko Eremuarekin (KBE), Natura 2000 Sarearen parte dena. Bestetik, Oria garaiaren KBEa ere Agauntza ibaiaren tarte bat hartzen du barne, Lazkaoko mugan. Orokorrean, garapen berriak aipatutako naturagune babestuetatik kanpo kokatzen diren arren, hauetan eragin zuzenik izan gabe, naturaguneen izendapenetik eratorritako baldintzatzaileak aztertuko dira.

- Paisaia: Zenbait esparrutan aurreikusten diren garapenek paisaiaren gainean eragina izan dezakete; eragin honen tamaina eremu horren paisaiaren egungo kalitatearen eta inguruko paisaiaren ezaugarrien arabera izango da.
- Kultur ondarea: Azterketa-eremuetan kultur ondareko elementuren bat egoteak bertan emango diren garapenak baldintzatuko lituzkeenez, garapen ezberdinetarako aurreikusten diren azterketa-eremuek duten kultur ondarea aztertuko da.
- Ingurumen-arriskuak: Kontuan hartu diren arrisku nagusiak honakoak dira:
 - Uholde-arriskua: Uraren Euskal Agentziak argitaratutako uholde-arriskuari buruzko mapen arabera, Ataunen Elbarrena eta Astigarraga auzoak ES017-GIP-13-1 Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremuan sartzen da. Zehazki, Agauntza ibaiaren ertzetan hainbat birgertatze-aldiko (10, 100, 500 urte) urak har ditzakeen eremuak identifikatzen dira. Uraren Euskal Agentziak erabilitako irizpideak kontuan hartuta, baldintzatzailatzat jotzen da 10 eta 100 urteko errepikatze-denboretarako uholde-arriskuaren kasuetan, horietan hirigintza-garapen berrietarako mugak ezartzen baitira.
 - Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna: Ataunen badira zenbait eremu akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun altua edo oso altua dutenak, batez ere Domoaren ingurua. Hirigintza eremu batzuk zonalde hauekin bat egiten dute, eta beraz baldintzatzaila izan daiteke beraien garapenerako.
 - Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua: Ataunen *'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioan'* sartuta dauden zenbait lursail identifikatzen dira. Hauek garapen berriak proposatzen diren eremuekin bat egiten badute, baldintzatzaila izan daitezke 4/2015 Legeak, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoak ezartzen duenarekin bete beharko litzatekeelarik.
 - Higadura jasateko arriskua: Nekazaritza eta Basogintza LAP-k azaltzen dituen higadura arriskua duten eremuak eta %50 gainditzen duten maldak kontuan hartuz, azterketa-eremuek jasan dezaketen higadura-arriskua baloratuko da, gerora ere aurreikusitako garapenak aurrera eramateko baldintzatzaila izango ote den zehazteko.
 - Zarata: Ataungo udalerriko mapa akustikorik ezean, errepidearekiko esparruen hurbiltasuna baloratuko da.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: herrigunetik mugikortasunaren eta irisgarritasunaren beharraz ari gara, batez ere garapen berrietarako proposatutako eremuen garraio iraunkorrari dagokionez. Testuinguru horretan, proposatutako garapen eremuek Ataungo herriguneekin oinezkoentzako edo bestelako komunikazio modu jasangarria izateko aukera duten aztertuko da.
- Klima-aldaketa: aurreikusitako garapenek udalerriak klima-aldaketaren aurrean duen arriskua eta kalteberatasuna areagotzen duten aztertzen da, bai eta klima-aldaketaren balizko ondorioek azterketa-eremuari eragin diezaioketen ere. Lurzoruaren artifizializazioa baloratzen da, besteak beste.
- Jasangarritasun energetikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen arabera, hiri-antolamenduko plan orokorrek jasangarritasun

energetikoaren azterketa bat jaso beharko dute ingurumen-izapidetzean ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren barruan. Azterlan horrek honako alderdi hauek jasoko ditu:

- a) Jasangarritasun energetikoaren eskakizunetara egokitzearen ebaluazioa.
- b) Eraikinetan eta azpiegituretan energia berriztagarriak ezartzearen ebaluazioa.
- c) Mugikortasunaren azterketa, energia-kontsumoaren ondorioetarako, garraio pribatuaren erabileraren alternatibak eta motorizatu gabeko mugikortasuna eta mugikortasun eza bultzatzeko politikak barne.
- d) Kanpoko argiteria publikoaren azterketa, espazio publiko bakoitzerako argiztapen-maila eta -denbora egokiak ebaluatzeko.

Azterlan hori ingurumen-azterketa estrategikoaren eranskin gisa sartuko da.

Jarraian, alternatiba bakoitzaren azterketa egiten da, eskema honi jarraituz:

- Alternatibaren eremuei eragiten dioten ingurumen-baldintzatzaileak: goian aipatutako ingurumen-aldagaien arabera.
- Hautabideen ingurumen-balorazioa: taula batean jasotzen da, aldagai bakoitzaren inpaktua honela adierazita:
 - "-": ez da eragin aipagarririk aurreikusten.
 - "+": inpaktu positiboa aurreikusten da.
 - "bateragarria": eragina dago (negatiboa), baina txikia edo aringarria neurri zuzentzaileak hartzen badira.
 - "neurritzkoa": aurreikusitako inpaktua (negatiboa) nabarmena da eta proposatutako garapenak nabarmen mugatuko lituzke.
 - "larria": aurreikusitako eraginaren dimentsioa (negatiboa) larria da eta proposatutako garapenak zorrotz mugatuko lituzke.

6.2 ALTERNATIBEN AZTERKETA

Ingurumen-ebaluazioa HAPO-aren aurrerakinak proposatzen dituen hautabideetan zentratuko da (1., 2. eta 3. Alternatibak), horien artean eta egun indarrean dauden Arau Subsidiarioek (0. Alternatiba) planteatzen zutenarekin konparatuz. Beti ere, lurraldeak gaur egun duen ezaugarri eta baldintzatzaileei erreparatuz.

6.2.1 HIRI EREMUARI DAGOZKION ALTERNATIBAK

Atal honetan hiri eremuko Hirigintza Jardun Esparru (H.J.E.) bakoitzean proposatzen diren alternatibak aztertzen dira.

Arestian aipatu bezala, Arau Subsidiarioek ezarritako antolamenduari dagokionez (0 Alternatiba), badira bertan aurreikusitako zenbait garapen gaur egun oraindik gauzatu ez direnak. Honela, **0 Alternatiba** garapen horiek mantentzea suposatzen du.

Alternatiba honetan, orotara, hiri lurzoruak 253.701 m² okupatuko lituzke, 112 bizitegi berri proposatzen dira gauzatzeko, jarduera ekonomikoentzako eremu berria (10.553 m²) planteatzen da, eta baita zuzkidura berrientzako 1.770 m² eta espazio libre zein ibai-ibilguentzako 635 m² ere.

Bestetik, 1. 2. eta 3. Alternatibek, aurrekoan oinarrituta eta hau garatzeko asmoz, aldaketa desberdinak ezartzen dituzte.

1. Alternatibak aurreikusten duen bizitegi programa 19 etxebizitzetan handitzen da 0 hautabidearekin alderatzen bada, batik bat, jardun integratuetan aurreikusitakoak, hau da, bizitegi-ahalmenean zenbatzen direnak, 41 etxebizitzetan handitzen direlako. Aldiz, zuzkidura-jardunetan aurreikusitakoak 22 etxebizitzetan murrizten dira, bizitegi-ahalmenean zenbatzen ez diren arren.

Bizitegi-ahalmenari dagokionez, hazkundera batik bat Astigarraga (+21) eta Elbarrena ekialdea (+16) eremuetan gertatzen da, azken honetan bizitegi-programa osoa murrizten (-6) eta zuzkidurak zein espazio libreak nabarmen handitzen diren arren.

Hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzoruaren ia 3 hektarea handitzen da (+29.990 m²), jarduera ekonomikoetara bideratutako lurzorua (-8.331 m²) murrizten bada ere, bizitegi-lurzorua (+4.309 m²), zuzkidurako lurzorua (+5.339 m²), eta batik bat espazio libreen lurzorua (+19.502 m²) zein komunikazio sarearena (+9.171 m²) hazi egin baitira.

Azken honen hazkundera bidegorri edo ardatz nagusi berriaren egitasmoak arrazoitzen du, izan ere, San Martin eta San Gregorio auzuneak lotuko dituen bidegorria proposatzen baita. Zehazki, Elbarrena ekialdea eta Arrondo eremuen artean ardatzaren trazadura hiri-lurzorutik doa etengabe, errepideari paralelo edo Astigarraga eremuko bizitegi-garapenari atxikia, baina beti jardun integratuen babespean. Arrondo eta San Gregorio ekialdea eremuen artean aldiz, ardatzaren trazadura errepideari paralelo doa eta, Arinberriaga eremuan izan ezik, lur ez-urbanizagarriko jardun isolatu gisa ageri da; honek, zailtasun fisikoez harago, ardatza gauzatzeko kudeaketa zaildu dezake.

2. Alternatibak 1. Hautabidearen bizitegi bizitegi-ahalmena errepikatzen du ia (+2 etxebizitza), nahiz eta zuzkidura-jardunetan aurreikusitako etxebizitzak handitzen diren (+23, 0 hautabideko kopuru berbera), batik bat, Elbarrena ekialdea eremuan indarreko AIU11 unitateko bizitegi-garapena finkatzen delako.

Hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzorua ia beste 3 hektarea handitzen da 1 hautabidearekiko (+29.401 m²), batik bat Ajarresta eremua berreskuratu delako eta ondorioz, zuzkidurako lurzorua (+15.858 m²) eta espazio libreen lurzorua (+8.783 m²) dezente hazten baitira. Jarduera ekonomikoetara bideratutako lurzorua (+2.645 m²) eta komunikazio sarearena (+3.644 m²) apalago hazi dira, eta bizitegi lurzorua murriztu egiten da (-1.529 m²).

Kasu honetan ere, San Martin eta San Gregorio auzuneak lotuko dituen ardatz nagusirako 1 hautabideko irizpideak errepikatzen dira.

3. Alternatibak bizitegi-programa handiena proposatzen du, 260 etxebizitza berri, bai jardun integratuetan (169), baita zuzkidura-jardunetan ere (91, 0 eta 2 hautabideetan bezala). Bizitegi-

ahalmenaren handitzea, kasu honetan, Elbarrena ekialdea (+10) eta Astigarraga (+12) eremuetan burutzen da, San Gregorio mendebaldea eremuan aldiz bizitegi-ahalmena murriztu egiten baita (-8).

Hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzoruaren azalera murriztu egiten da 2. hautabidearekiko (-26.271 m²), eta 1 hautabideko hedapenera hurbiltzen da berriz ere. Izan ere, Ajarresta eta Aia ezabatuz, eremu kopuru txikiena baitu hautabide honek, eta gainera, San Gregorio mendebaldea eremuan ere sailkatutako azalera murriztu egiten baita.

Ondorioz, zuzkidurako lurzoruaren azalera nabarmen murrizten da 2. hautabidearekiko (-16.384 m²), baita gainontzeko erabileren lurzoria ere.

Azkenik, hautabide honek ere San Martin eta San Gregorio auzuneak lotuko dituen ardatz nagusirako 1. hautabideko irizpideak finkatzen ditu.

33. Taula HAPOaren Aurrerakinaren alternatiba ezberdinek ezartzen duten Hirigintza Jardun Eremuen azalaren konparaketa.

HIRIGINTZA JARDUN EREMUAK	0 Alternatiba (m ²)	1. Alternatiba (m ²)	2. Alternatiba (m ²)	3. Alternatiba (m ²)
Zubikoeta	17.384	17.384	17.384	17.384
Ajarresta	20.561	0	20.561	0
Elbarrena Ekialdea	78.486	76.281	76.281	76.281
Elbarrena Mendebaldea	24.180	24.180	24.180	24.180
Astigarraga	41.003	66.837	66.837	66.837
Arrondo	29.326	29.326	29.326	29.326
Arinberriaga	0	22.121	22.121	22.121
San Gregorio Ekialdea	17.219	19.068	19.068	19.068
San Gregorio Mendebalea	18.833	21.785	34.576	31.624
Aia	6.709	6.709	2.758	0
OROTARA	253.701	283.691	313.092	286.821

34. Taula Hiri lurzorian eta lurzoru ez urbanizagarrian antolamendu hautabideetan jaso diren aukeren konparaketa. (*): bizitegia-ahalmenaren gehikuntza gisa zenbatzen ez diren etxebizitzak.

Udal barrutiaren azalera m ² (l)	58.362.286						
	Hautabidea						
	0	1		2		3	
	Prop.	Prop.	+/-	Prop.	+/-	Prop.	+/-
Hiri Lurzoruaren azalera m ² (l)	253.701	283.691	111,82%	313.092	123,41%	286.821	113,05%
Bizitegiak							
Azalera m ² (l)	168.871	173.180	102,55%	171.651	101,65%	172.114	101,92%
Bizitegi ahalmena (*)	112 (91)	153 (69)	136,61%	155 (91)	138,39%	169 (91)	150,89%
Jarduera ekonomikoak							
Azalera m ² (l)	37.945	29.614	78,04%	32.259	85,02%	28.271	74,51%
Eraikigarritasun-hazkundera m ² (s)	10.553	3.120	29,57%	4.000	37,90%	2.400	22,74%
Ekipamenduak							

Azalera m ² (l)	22.603	27.942	123,62%	43.800	193,78%	27.416	121,29%	
Eraikigarritasun-hazkundera m ² (s)	1.770	5.460	308,47%	5.460	308,47%	4.270	241,24%	
Espazio libreak + ibai ibilguak								
Azalera m ² (l)	7.308	26.810	366,86%	35.593	487,04%	31.653	433,13%	
Komunikazio sarea								
Azalera m ² (l)	16.974	26.145	154,03%	29.789	175,50%	27.367	161,23%	
Lurzoru ez urbanizagarria								
Landa-guneak	Azalera m ² (l)	57.914	41.935	72,41%	41.935	72,41%	48.644	83,99
	Etxebizitzak (*)	(16)	(7)	-	(7)	-	(15)	-
Espazio libreen S.O. m ² (l)	32.281	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	
Ekipamenduen S.O. m ² (l)	34.783	34.783	100,00%	34.783	100,00%	34.783	100,00%	

Ondorengo ataletan Hirigintza Jardun Esparru bakoitzerako proposatzen diren hautabideen alderaketa eta ingurumen azterketa burutzen da. Lehenik, eremu osorako baldintzatzaileak izan daitezkeen ingurumen ezaugarriak identifikatzen dira, ondoren, proposatzen diren garapen zehatzek izan dezaketen balizko ingurumen eragin esanguratsuenak identifikatzeko. Azkenik, bildutako informaziotik, proposamen bakoitzaren balorazioa egiten da, emaitzak, konparatiboki, taula batean bilduz.


6.2.1.1 H.J.E. Zubikoeta

Alternatiba guztietan Zubikoeta eremua (AIU1) egungo ezaugarri berberetan finkatzen da, 17.384 m²-ko azalerarekin. Jarduera ekonomikoetara bideratuko eremua da, hein handi batean garatua dagoena, proposamen berririk planteatzen ez direlarik.


Ondorioz, ez da ingurumen inpaktu berririk espero hautabide ezberdinak eremurako finkatzen duten antolaketarekin.

6.2.1.2 H.J.E. Ajarresta

AA.SS.-ek Ajarrestan jarduera ekonomikoetara bideratutako lurzoru urbanizagarri bat aurreikusten dute (AIU2) oraindik gauzatu ez dena. 2. Alternatiban eremu hau ere finkatu egiten da, baina ekipamendu publikoen zuzkidurara bideratua, adineko pertsonen zaintza integralerako ekipamenduaren ordezkoko kokaleku gisa. 1. eta 3. Alternatibek ez dute garapenik aurreikusten eremu honetan, lurzoruak duen egungo erabilera mantenduko litzatekeelarik.



35. Irudia Ajarresta HJE-n identifikatutako ingurumen baldintzatzaile nagusiak.



36. Irudia Ajarresta HJE-n identifikatutako ingurumen arrisku nagusiak.

35. Taula Ajarresta HJE-rako hautabideen ingurumen azterketa.

	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Azalera m ²	20.561	0	20.561	0
Ingurumen baldintzatzaile nagusiak	-Eremua ekialdetik zeharkatzen duen Agauntza ibaiaren tarte a Oria Garaia KBE-ren parte da. -Batasuneko Intereseko Habitatak: <ul style="list-style-type: none"> • 6510: Segabelardi atlantiarrak. • 91E0*: Ibaiertzeko haltzadi eurosiberiarra. -Agauntza ibaia. -Fauna: Agauntza ibaiaren tarte hau bisoi europarrarentzako interes bereziko eremua da.			

	<p>-Basogintzako LPSaren arabera Balio estrategiko altuko lurzoruak azalera txikia hartzen dute eremuan. Naiz eta jadanik Hiri Lurzoru bezala klasifikatuta egon, gaur egun garatu gabe jarraitzen du.</p> <p>-Ingurumen arriskuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremuak. • Akuiferoen zaugarritasuna. • Zarata: GI-2120 errepidearen parean kokatua egoteagatik, bertatik sortutako zarata jasoko luke.
Balizko ingurumen-eraginak	<p>-Lurzoruaren okupazioa (hiri lurzoria).</p> <p>-Ahalmen agrologiko altuko lurrak galtzea.</p> <p>-Agauntza ibaiaren uren kalitateari kaltea.</p> <p>-Batasuneko Intereseko Habitategi kaltea.</p> <p>-Faunari eragina: Bisoi europarraren interes bereziko eremua.</p> <p>-Lurzoruaren erabileretan izandako aldaketek eragindako inpaktu bisuala.</p> <p>-Uholde-arriskua: eremuaren zona batzuk 500 eta 100 urteko errepikatze-denborarako uholde-arriskua dute.</p> <p>-Inpaktu akustikoa: zarata-maila handiekiko esposizioa areagotzeko aukera.</p> <p>-Giza habitataren gaineko eragina obretan zehar, zaratek, makinan eta materialen presentziak, lur-mugimenduek, hondakinen sorrerak eta abarrek eraginda.</p>
Balizko ingurumen-eragin esanguratsuenak	<p>-Interes agrologikoko lurren okupazioa.</p> <p>-Batasuneko intereseko habitategi eragina.</p> <p>-Uholde-arriskua.</p> <p>-Inpaktu akustikoa.</p>
Alternatiben balorazioa	<p>0 eta 2. Alternatibek bakarrik suposatuko lukete Ajarresta eremuaren garapena. Naiz eta erabilera desberdinetara bideratu, sortuko liratekeen ingurumen inpaktuak antzekoak izango lirateke, nagusiki, gaur egun landa ezaugarriak dituen eremu baten artifizializazioarekin loturik, non, batasuneko intereseko habitatak identifikatzen diren eta, orokorrean, jarduera agrologikoetarako baldintza onak dituen.</p> <p>Eremuan identifikatutako 6510 BIH-en azalera udalerrri osoan garatzen den habitat horren azaleraren % 0,5 baina gutxiago suposatzen du.</p> <p>Bestetik, Agauntza ibaiaren gertutasunak ere, obrek eremu urtarrari kalteak eragitea suposatu dezake, eta bertako landaredia zein faunari.</p> <p>Proposatutako garapenak EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatze LAParen eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren zehaztapenak bete beharko dituzte, ibilguak babesteari eta uholde-arriskuari dagokienez. Intereseko fauna-espezieei, haien habitat potentzialari eta intereseko beste habitat batzuei eragitea saihestu beharko da, eta, hala badagokio, eragindako biodibertsitate-galera konpentsatzeko neurriak ezarriko dira.</p> <p>Zaratari dagokionez, hau sakon aztertuko da ondorengo faseetan. Hala ere, aurreratu daiteke balitekeela GI-2120 errepidearen inguruan zarata maila altua izatea eta garapen berria baldintzatzaile honetara egokitu behar izatea.</p> <p>Azaldutakoarekin, eremu honi dagokionez, 1. eta 3. Alternatibak izango lirateke inpakturik sortzen ez dituztenak, gaur egungo erabilera mantentzen baitute.</p> <p>0 eta 2. Alternatibek ordea eremuaren garapena suposatuko lukete, deskribatutako balizko inpaktuak sortuz. Hala ere, aipatu beharra dago, eremuaren garapena jada gaur egun onarturik dagoen antolaketan aurreikusten dela (0. Alternatiba), eta ondorioz, 2. Alternatibak ez lukeela honekiko inpaktuak areagotuko.</p>

Hurrengo taulan alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak eta horien dimentsioa jasotzen dira. Horien ondorioak murriztu egin daitezke, neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaile egokiak hartuz gero.

Ingurumen eragina	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Lurzoruaren okupazioa	neurritzkoa	-	neurritzkoa	-
Lurzoruaren ahalmen agrologikoa	neurritzkoa	-	neurritzkoa	-
Lurrazaleko ur-ibilguak	bateragarria	-	bateragarria	-
Intereseko landaredia	neurritzkoa	-	neurritzkoa	-
Intereseko fauna	bateragarria	-	bateragarria	-
Paisaia	bateragarria	-	bateragarria	-
Zarata*	bateragarria	-	bateragarria	-
Kultur ondarea	-	-	-	-
Uholde-arriskua	neurritzkoa	-	neurritzkoa	-
Higadura arriskua	bateragarria	-	bateragarria	-
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	bateragarria	-	bateragarria	-
Klima aldaketa	bateragarria	-	bateragarria	-


6.2.1.3 H.J.E. Elbarrena Ekialdea

Eremu honetan alternatiba guztiak antzeko proposamenak biltzen dituzte, AASS-etan finkatutakoarekin jarraituz. Zentzu honetan, garapen alternatibek orokorrean, 0. Alternatibak ezarritako eta oraindik gauzatu ez diren garapenak mantentzen dituzte zenbait aldatetekin.

Aipatu, eremu gehienak jada hiritartutako zonekin kointziditzen dutela, hegoaldean izan ezik, Aitzarterrekaren inguruan. Hemen, 0. Alternatibarekin konparatuz, 1. 2. eta 3. Alternatibek, alde batetik, garapen alternatiben azalera murrizten dute, eta bestetik, hauen dentsitatea handitzen dute.



37. Irudia Elbarrena Ekialdea HJE-n identifikatutako ingurumen baldintzatzaile nagusiak.



38. Irudia Elbarrena Ekialdea HJE-n identifikatutako ingurumen arrisku nagusiak

37. Taula Elbarrena Ekialdea HJE-rako hautabideen ingurumen azterketa.

	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Azalera (m ²)	78.486	76.281	76.281	76.281
Bizitegi kop.	70 (53)	86(31)	58(53)	68(53)
Jarduera ekonomikoak m ² (s)	0	0	1.600	0

Zuzkidurak m ² (s)	640 m ² (s)	4.560 m ² (s)	640 m ² (s)	2.240 m ² (s)
Espazio libreak eta ibai ibilguak m ² (l)	0	3.387	1.272	1.272
Ingurumen baldintzatzaile nagusiak	<p>-Eremua mendebaldetik zeharkatzen duen Agauntza ibaiaren tarte Oria Garaia KBE-ren parte da. Bestetik, ekialdetik, Aralar KBE-rekin mugatzen du.</p> <p>-Batasuneko Intereseko Habitatak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 6510: Segabelardi atlantiarrak. • 91E0*: Ibaiertzeko haltzadi eurosiberiarra. <p>-Agauntza ibaia eta Aitzarterreka</p> <p>-Fauna: Agauntza ibaiaren tarte hau bisoi europarrarentzako eta muturluze piriniarraren interes bereziko eremua da. Aitzarterreka ere muturluze piriniarrarentzako interes bereziko eremua da.</p> <p>-Ingurumen arriskuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremuak. • Akuiferoen zaugarritasuna. • Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua. • Zarata: GI-2120 errepidearen parean kokatua egoteagatik, bertatik sortutako zarata jasoko luke. 			
Balizko ingurumen-eraginak	<p>-Lurzoruaren okupazioa (hiri lurzoru).</p> <p>-Agauntza ibaiaren eta Aitzarterrekaren uren kalitateari kaltea.</p> <p>-Batasuneko Intereseko Habitategi kaltea.</p> <p>-Faunari eragina: Bisoi europarra eta muturluze piriniarraren interes bereziko eremua.</p> <p>-Lurzoruaren erabileretan izandako aldaketek eragindako inpaktu bisuala.</p> <p>-Uholde-arriskua: garapen berri batzuk 500 urteko errepikatze-denborarako uholde-arriskua dute.</p> <p>-Jarduketa batzuk kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen gainean kokatzen dira.</p> <p>-Inpaktu akustikoa: zarata-maila handiekiko esposizioa areagotzeko aukera.</p> <p>-Giza habitataren gaineko eragina obretan zehar, zaratek, makinaren eta materialen presentziak, lur-mugimenduek, hondakinen sorrerak eta abarrek eraginda.</p>			
Balizko ingurumen-eragin esanguratsuenak	<p>-Lurzoruaren okupazioa.</p> <p>-Batasuneko intereseko habitategi eragina.</p> <p>-Intereseko faunari eragina.</p> <p>-Uholde-arriskua.</p> <p>-Inpaktu akustikoa.</p>			
Alternatiben balorazioa	<p>Aipatu bezala, Elbarrenan proposatutako garapen eremu gehienak jada hiritartutako lurzoruan kokatzen dira, eta ondorioz, ez dira natura elementuen gaineko inpaktu adierazgarriak aurreikusten, Agauntza ibaiaren gertutasunetik haratago, obrek honekiko erretiroak eta era uren kalitatea bermatu beharko dutelarik.</p> <p>Hala ere, badira zenbait ingurumen arrisku (uholde-arriskua eta balizko lurzoru kutsatuak) eremu gehienei eragiten diotenak, eta ondorioz, araudietan hauekiko ezartzen diren neurriak bete beharko dira.</p> <p>Bestetik, eremuaren hegoaldeko zonen garapenak, gaur egun landa lurren ezaugarria dituzten lurzoruak artifizializatzea ekarriko luke, ahalmen agrologiko ona izan dezaketenak, non gaur egun 6510 BIH-a garatzen den.</p> <p>Zentzu honetan, 1., 2. eta 3. Alternatibak 0 hautabidea baino aproposagoak kontsideratzen dira, Aitzarterrekaren iparraldeko garapena murrizten baitute, eta horietatik, gainera, 1. Alternatiba kontsideratzen da aproposena, Aitzarterreka hegoaldea espazio libre bezala izendatzen baitu, beste hautabideek proposatzen duten bizitegia garapenen aurka.</p> <p>Aitzarterreka inguruan ere garapenek EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze LARen eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren zehaztapenak bete beharko dituzte, ibilguak babesteari eta uholde-arriskuari dagokienez. Intereseko fauna-espezieei, haien habitat potentzialari eta intereseko beste habitat batzuei eragitea</p>			

	<p>saihestu beharko da, eta, hala badagokio, eragindako biodibertsitate-galera konpentsatzeko neurriak ezarriko dira.</p> <p>Zaratari dagokionez, hau sakon aztertuko da ondorengo faseetan. Hala ere, aurreratu daiteke balitekeela GI-2120 errepidearen inguruan zarata maila altua izatea eta garapen berria baldintzatzaila honetara egokitu behar izatea.</p> <p>Laburbilduz, garapen alternatibek AASS-ek jada onartutako eremuak garatzea suposatzen dute, antzeko ezaugarriekin, eta ondorioz, ez lukete hauek eragingo lituzketen inpaktuak areagotuko.</p> <p>Hala ere, eta inpaktu esanguratsuak aurreikusten ez diren arren, inpaktu handienak Aitzarterreka iguruko garapenak eragingo lukete, eta zentzu honetan 1. Alternatibaren proposamena kontsideratzen da egokiena.</p>
--	--

38. Taula Elbarrena Ekialdea HJE-n Alternatiben ingurumen-inpaktuen balorazioa


Ingurumen eragina	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Lurzoruaren okupazioa	neurritzkoa	bateragarria	neurritzkoa	neurritzkoa
Lurzoruaren ahalmen agrologikoa	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Lurrazaleko ur-ibilguak	neurritzkoa	bateragarria	neurritzkoa	neurritzkoa
Intereseko landaredia	neurritzkoa	bateragarria	neurritzkoa	neurritzkoa
Intereseko fauna	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Paisaia	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Zarata	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Kultur ondarea	-	-	-	-
Uholde-arriskua	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Higadura arriskua	-	-	-	-
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Klima aldaketa	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria



Aitzarterreka ipar (ezkerra) eta hegoaldean (eskuina) garapenak aurreikusten diren lursailak.


6.2.1.4 H.J.E. Elbarrena Mendebaldea

Eremu hau finkatutzat jotzen da alternatiba guztietan, eta ez da proposamen berririk planteatzen. Ondorioz, ez da ingurumen inpaktu berririk espero hautabide ezberdinak eremurako finkatzen duten antolaketarekin.



39. Irudia

Elbarrena Mendebaldea HJE-n identifikatutako ingurumen baldintzatzaile nagusiak.




40. Irudia Elbarrena Mendebaldea HJE-n identifikatutako ingurumen arrisku nagusiak.

6.2.1.5 H.J.E. Astigarraga


Eremu hau udalerriko bizitegi-programaren kokapen nagusitzat ageri da garapen hautabide guztietan. Zentzu honetan garapen proposamenek 0. Alternatibareriko bizitegi kopurua handitzea suposatzen dute, 3. Alternatiba izanik etxebizitza berri gehien proposatzen dituen.

Bestetik, adierazi, garapen hautabideak eremuaren hiri lurzorua zabaltzea proposatzen dutela, batez ere iparraldean espazio libreen eremu zabal bat barneratzeko asmoz.



41. Irudia

Astigarraga HJE-n identifikatutako ingurumen baldintzatzaile nagusiak



42. Irudia Astigarraga HJE-n identifikatutako ingurumen arrisku nagusiak

39. Taula Astigarraga HJE-rako hautabideen ingurumen azterketa.

	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Azalera (m ²)	41.003	66.837	66.837	66.837
Bizitegiak	20(6)	41(0)	65(0)	77(0)
Zuzkidurak m ² (s)	0	900	900	900
Espazio libreak eta ibai ibilguak m ² (l)	0	12.397	15.906	12.397

<p>Ingurumen baldintzatzaile nagusiak</p>	<p>-Ekialdetik, Aralar KBE-rekin mugatzen du. -Batasuneko Interesekeo Habitatak: <ul style="list-style-type: none"> • 6510: Segabelardi atlantiarrak. -Agauntza ibaia. -Fauna: Agauntza ibaiaren tarte hau bisoi europarrarentzako eta muturluze piriniarraren interes bereziko eremua da. -Ingurumen arriskuak: <ul style="list-style-type: none"> • 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremuak. • Akuiferoen zaurgarritasuna. • Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua. • Zarata: GI-2120 errepidearen parean kokatua egoteagatik, bertatik sortutako zarata jasoko luke. </p>
<p>Balizko ingurumen-eraginak</p>	<p>-Lurzoruaren okupazioa. -Batasuneko Interesekeo Habitategi kaltea. -Lurzoruaren erabileretan izandako aldaketek eragindako inpaktu bisuala. -Uholde-arriskua: garapen berri batzuk 500 urteko errepikatze-denborarako uholde-arriskua dute. -Inpaktu akustikoa: zara-maila handiekiko esposizioa areagotzeko aukera. -Giza habitataren gaineko eragina obretan zehar, zaratek, makinan eta materialen presentziak, lur-mugimenduek, hondakinen sorrerak eta abarrek eraginda.</p>
<p>Balizko ingurumen-eragin esanguratsuenak</p>	<p>-Lurzoruaren okupazioa. -Batasuneko interesekeo habitategi eragina. -Uholde-arriskua.</p>
<p>Alternatiben balorazioa</p>	<p>Alternatiba guztietan garapen berriak gaur egun hiritartuak ez dauden eremuetan proposatzen dira, egungo etxebizitzan atzealdeko lursailetan, 6510 BIH-arekin, eta baldintza agrologiko onak izan ditzaketelarik.</p> <p>Eremu honen garapenak, ondorioz, lursail hauen artifizializazioa eragingo luke eta landarediaren galera, 17.000 m² inguruko azalera. Honek udalerrri osoko 6510 BIH-aren azalaren % 0,04 baino gutxiago suposatzen du, baina, hala badagokio, eragindako biodibertsitate-galera konpentsatzeko neurriak ezarriko dira.</p> <p>Agauntza ibaitik aldentuta dagoenez ez da espero honi eragingo dioten inpakturik. Hala ere, uholdeak har ditzakeen lurak zabalak dira zona honetan, eta proposatutako garapenek baldintza hau izan beharko lukete kontuan Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren zehaztapenak betez.</p> <p>Zaratari dagokionez, ondorengo faseetan sakon aztertuko den arren, bizitegi garapen berriak errepide nagusitik aldentuta daudenez, hasiera batean, ez da espero hau eremuan garapenak baldintzatzen dituenik.</p> <p>Aipatu beharra dago, garapen alternatibek etxebizitzak proposatzen dituzten eremuen zati bat jada AASS jasotzen zutela, eta naiz eta gaur egun oraindik garatua ez egon, ez lukete hauekiko inpaktu berririk eragingo.</p> <p>Hala ere, garapen alternatibek egungo hiri lurzorua 25.800 m² handitzen dute, eta naiz eta parte (10.000 m² inguru) espazio libreetara bideratu, hau aldaketa esanguratsua kontsideratu daiteke, batez ere, Aralar KBE eta Parke Natural barneko lurzorua okupatzea suposatzen baitute.</p>

40. Taula Astigarraga HJE-n Alternatiben ingurumen-inpaktuen balorazioa.

Ingurumen eragina	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Lurzoruaren okupazioa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Lurzoruaren ahalmen agrologikoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Lurrazaleko ur-ibilguak	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Interesekeo landaredia	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Interesekeo fauna	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria

Ingurumen eragina	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Paisaia	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Zarata	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Kultur ondarea	-	-	-	-
Uholde-arriskua	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Higadura arriskua	-	-	-	-
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Klima aldaketa	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria




Eremuaren iparraldean espazio libreak aurreikusten diren lursaila.



Etxebizitza berriak aurreikusten diren eremua.


6.2.1.6 H.J.E. Arrondo

Eremu honetan AASS-ek zuzkidura jarduneko 14 etxebizitza aurreikusten dituzte, dentsitate baxukoak, eta sakabanatuta, errepidearen bi aldetan. Horren aurrean hiru garapen alternatibek proposamen berdina aurkezten dute, zuzkidura jarduneko 16 etxebizitza planteatuz, baina dentsitate handiagoarekin, etxebizitza guztiak bi eraikinetan kokatuz. Hauen helburua bidegorria gauzatzea ere bada.



43. Irudia

Arrondo HJE-n identifikatutako ingurumen baldintzatzaile nagusiak.



44. Irudia Arrondo HJE-n identifikatutako ingurumen arrisku nagusiak

41. Taula Arrondo HJE-rako hautabideen ingurumen azterketa.

	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Azalera (m ²)	29.326	29.326	29.326	29.326
Bizitegia kop.	0(14)	0(16)	0(16)	0(16)

<p>Ingurumen baldintzatzaile nagusiak</p>	<p>-Ekialdetik, Aralar KBE-rekin mugatzen du. -Batasuneko Intereseko Habitatak: <ul style="list-style-type: none"> • 6510: Segabelardi atlantiarrak. -Agauntza ibaia. -Fauna: Agauntza ibaiaren tarte hau bisoi europarrarentzako eta muturluze piriniarraren interes bereziko eremua da. -Balio estrategiko handiko lurrak. -Baliabide kulturalak: Iturralde baserria (interes lokala). -Ingurumen arriskuak: <ul style="list-style-type: none"> • 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremuak. • Akuiferoen zurgarritasuna. • Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua. • Zarata: GI-2120 errepidearen parean kokatua egoteagatik, bertatik sortutako zarata jasoko luke. </p>
<p>Balizko ingurumen-eraginak</p>	<p>-Lurzoruaren okupazioa. -Ahalmen agrologiko altuko lurrak galtzea. -Agauntza ibaiaren uren kalitateari kaltea. -Faunari eragina: Bisoi europarraren interes bereziko eremua. -Uholde-arriskua: garapen berriak 100 eta 500 urteko errepikatze-denborarako uholde-arriskua dute. -Inpaktu akustikoa: zara-maila handiekiko esposizioa areagotzeko aukera. -Giza habitataren gaineko eragina obretan zehar, zaratek, makinan eta materialen presentziak, lur-mugimenduek, hondakinen sorrerak eta abarrek eraginda.</p>
<p>Balizko ingurumen-eragin esanguratsuenak</p>	<p>-Interes agrologikoko lurren okupazioa. -Uholde-arriskua. -Inpaktu akustikoa.</p>
<p>Alternatiben balorazioa</p>	<p>Bizitegi garapen berriak egun hiritartu gabeko eremuetan proposatzen dira, naiz eta, orokorrean, jadanik hiri lur bezala izendaturik egon. Zentzu honetan, lurzoruaren okupazioa suposatuko lukete, eta zonalde txiki batean, balio estrategiko altuko lurren galera. Hemen, aipatu, hiru garapen alternatibek AASS-ek baino bi etxebizitza gehiago proposatzen dituztela, baina 0 Alternatiban ez bezala, hauek bi eraikinetan biltzen dira, eta ondorioz, indarrean dagoen antolamendua baino eragin txikiagoa suposatuko lukete lurzoruaren.</p> <p>Landarediari dagokionez, 0. Alternatiba izan ezik, beste garapenak ez dira intereseko landaredia dagoen eremuetan kokatzen.</p> <p>Agauntza ibaiaren gertutasunak baldintzak ezartzen dizkie garapenei, EAeko Ibaiek eta Errekak Antolatze LAParen eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren zehaztapenak bete beharko dituztelarik, ibilguak babesteari eta uholde-arriskuari dagokienez. Zentzu honetan aipatu, hautabide berriek, 0 alternatiba ez bezala garapen berriak ibaiaren lehentasunezko fluxu genetiko kanpo irudikatzen dituztela.</p> <p>Zaratari dagokionez, hau sakon aztertuko da ondorengo faseetan. Hala ere, aurreratu daiteke balitekeela GI-2120 errepidearen inguruan zarata maila altua izatea eta garapen berriak baldintzatzaile honetara egokitu behar izatea.</p> <p>Laburbilduz, 1. 2. eta 3. Hautabideek 0 alternatiba baino lurzoruaren okupazio gutxiago suposatzen dute. Era berean, bizitegiarako proposatutako eremuak orokorrean AASS-ek jada aurreikusitakoarekin bat dator eta partzialki garatuta daude. Horrela, ez lukete gaur egungo antolamenduaren garapenak eragingo lukeen inpaktuak areagotuko.</p>

42. Taula Arrondo HJE-n Alternatiben ingurumen-inpaktuen balorazioa.

Ingurumen eragina	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Lurzoruaren okupazioa	neurritzkoa	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Lurzoruaren ahalmen agrologikoa	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Lurrazaleko ur-ibilguak	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Intereseko landaredia	bateragarria	-	-	-


Ingurumen eragina	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Intereseko fauna	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Paisaia	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Zarata	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Kultur ondarea	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Uholde-arriskua	larria	larria	larria	larria
Higadura arriskua	-	-	-	-
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Klima aldaketa	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria

6.2.1.7 H.J.E. Arinberriaga

Arinberriaga indarrean dagoen plangintzaren arabera (0 Alternatiba) landa-gunea izendatuta dago non 9 etxebizitza proposatzen dituen, lau eraikinetan sakabanaturik.


Honen aurrean, garapen hautabide guztiak landa-gunearen mugaketa moldatzen dute, eremu honetan errepidea eta ibaiaren arteko lursaileri tratamendu bateratua emateko asmoz. Ondorioz, eremuaren azalera 6.000 m² inguru handitzen da, eta gainera, hiri-lurzoru gisa sailkatzen da.

1., 2. eta 3. Alternatibek proposamen berdina planteatzen dute, aurretik aipatutakoaz aparte, zuzkidura jarduneko lau etxebizitza aurreikusiz, eta eremuaren iparraldea lehen sektorerako garapenak behar dituen azpiegituretara bideratuz.



45. Irudia

Arinberriaga HJE-n identifikatutako ingurumen baldintzatzaile nagusiak.



46. Irudia Arinberriaga HJE-n identifikatutako ingurumen arrisku nagusiak.

43. Taula Arinberriaga HJE-rako hautabideen ingurumen azterketa.

	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Azalera (m ²)	16.000*	22.121	22.121	22.121
Bizitegiak kop.	0(9)	0(4)	0(4)	0(4)
Jarduera ekonomikoak	-	2.400	2.400	2.400
Ingurumen baldintzatzaile nagusiak	-Ekialdetik, Aralar KBE-rekin mugatzen du. -Batasuneko Intereseko Habitatak: <ul style="list-style-type: none"> • 6510: Segabelardi atlantiarrak. 			

	<ul style="list-style-type: none"> • 91E0*: Ibaiertzeko haltzadi eurosiberiarra. <p>-Agauntza ibaia. -Fauna: Agauntza ibaiaren tarte hau bisoi europarrarentzako eta muturluze piriniarraren interes bereziko eremua da. -Balio estrategiko handiko lurak. -Baliabide kulturalak: inguruan interes arkeologikoko eremuak kokatzen dira. -Ingurumen arriskuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremuak. • Akuiferoen zurgarritasuna. • Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruk. • Zarata: GI-2120 errepidearen parean kokatua egoteagatik, bertatik sortutako zarata jasoko luke.
Balizko ingurumen-eraginak	<p>-Lurzoruaren okupazioa. -Ahalmen agrologiko handiko lurak galtzea. -Agauntza ibaiaren uren kalitateari kaltea. -Batasuneko intereseko habitatei eragina. -Faunari eragina: Bisoi europarraren eta muturluze piriniarraren interes bereziko eremua. -Baliabide kulturei eragina. -Uholde-arriskua: garapenek 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborarako uholde-arriskua dute. -Inpaktu akustikoa: zarata-maila handiekiko esposizioa areagotzeko aukera. -Giza habitataren gaineko eragina obretan zehar, zaratek, makinan eta materialen presentziak, lur-mugimenduek, hondakinen sorrerak eta abarrek eraginda.</p>
Balizko ingurumen-eragin esanguratsuenak	<p>-Lurzoruaren eta Interes agrologikoko lurren okupazioa. -Uren kalitateari eragina. -Batasuneko intereseko habitatei eragina. -Interesko faunari eragina. -Baliabide kulturei eragina. -Uholde-arriskua. -Inpaktu akustikoa.</p>
Alternatiben balorazioa	<p>Hautabide guztiek gaur egun hiritartu gabeko lurren garapena aurreikusten dute, non 6510 BIH garatzen den, eta ahalmen agrologiko ona duten, Basogintzako LPS-ak landagunetik kanpo dauden lurak Balio estrategiko lurak izendatzen baititu. Garapen alternatibek naiz eta hein handi batean AASS-ek mugatutako eremuarekin bat egiten duten, eta ondorioz bertan aurreikusitako inpaktuak areagotuko ez luketen arren, hiri-lurzorua zabaltzen dute, landa lurak kontsumituz. Eremuan garatzen den 6510 BIH-aren azalera, udalerrri osoan habitat honen duen azaleraren % 0,4 baino txikiagoa da, eta ondorioz, bere galerak ez luke eraginik izango habitat honen kontserbazio egoeran. Hala ere, proposamenek eremuaren mugaketa Agauntza ibaiaren ertzeraino zabaltzen dute, eta horregatik garapenak EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatze LPAren eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren zehaztapenak bete beharko dituzte, ibilguak babesteari eta uholde-arriskuari dagokienez. Gainera, intereseko fauna-espezieei, haien habitat potentzialari eta intereseko beste habitat batzuei eragitea saihestu beharko da, eta, hala badagokio, eragindako biodibertsitate-galera konpentsatzeko neurriak ezarriko dira. Bestetik, inguruan identifikatzen diren interes arkeologikoko guneei eta balizko lurzoru kutsatuei dagokionez, hauei buruzko araudia errespetatuz, ez da hauekiko eragin nabarmenik espero. Zaratari dagokionez, aurreratu daiteke balitekeela GI-2120 errepidearen inguruan zarata maila altua izatea eta garapen berriak baldintzatzaile honetara egokitu behar izatea. Laburbilduz, 1. 2. eta 3. Hautabideek 0 alternatiba baino lurzoruaren okupazio handiagoa suposatzen dute, gaur egun landa-lurra izendatzen dena, eta inpaktu nagusia lur hauen birklasifikaziotik eratorriko da.</p>

44. Taula Arinberriaga HJE-n Alternatiben ingurumen-inpaktuen balorazioa.


Ingurumen eragina	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Lurzoruaren okupazioa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Lurzoruaren ahalmen agrologikoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Lurrazaleko ur-ibilguak	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Intereseko landaredia	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Intereseko fauna	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Paisaia	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Zarata	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Kultur ondarea	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Uholde-arriskua	larria	larria	larria	larria
Higadura arriskua	-	-	-	-
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Klima aldaketa	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria



Jarduera ekonomikoetarako bideratzea proposatzen den lursaila. Etxebizitza berriak proposatzen diren eremua.


6.2.1.8 H.J.E. San Gregorio Ekialdea

Eremua guztiz finkatutzat jotzen da eta ez da inolako esku-hartze berezirik proposatzen, eremuko muga erregularizatu eta ibai ertzeko sistema libreen sistema orokorra izendatzeaz gain. Indarreko plangintzak aurreikusten dituen zuzkidura-jarduneko 7 etxebizitza finkatzen dira.



47. Irudia

San Gregorio Ekialdea HJE-n identifikatutako ingurumen baldintzatzaile nagusiak.



48. Irudia San Gregorio Ekialdea HJE-n identifikatutako ingurumen arrisku nagusiak.

45. Taula San Gregorio Ekialdea HJE-rako hautabideen ingurumen azterketa.

	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Azalera (m ²)	17.219	19.068	19.068	19.068
Bizitegiak kop.	0(7)	0(7)	0(7)	0(7)
Espazio libreak eta ibai ibilguak m ² (l)	0	1.868	1.868	1.868

Ingurumen baldintzatzaile nagusiak	<p>-Eremua ekialdetik, Aralar KBE-rekin mugatzen du.</p> <p>-Agauntza ibaia eremuaren mendebaldetik igarotzen da.</p> <p>-Fauna: Agauntza ibaiaren tarte hau bisoi europarrarentzako eta muturluze piriniarraren interes bereziko eremua da.</p> <p>-Ingurumen arriskuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremuak. • Akuiferoen zaurgarritasuna. • Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua. • Zarata: GI-2120 errepidearen parean kokatua egoteagatik, bertatik sortutako zarata jasoko luke.
Balizko ingurumen-eraginak	<p>-Lurzoruaren okupazioa.</p> <p>-Agauntza ibaiaren uren kalitateari kaltea.</p> <p>-Faunari eragina: Bisoi europarraren eta muturluze piriniarraren interes bereziko eremua.</p> <p>-Uholde-arriskua: garapenek 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborarako uholde-arriskua dute.</p> <p>-Inpaktu akustikoa: zarata-maila handiekiko esposizioa areagotzeko aukera.</p> <p>-Giza habitataren gaineko eragina obretan zehar, zaratek, makinen eta materialen presentziak, lur-mugimenduek, hondakinen sorrerak eta abarrek eraginda.</p>
Balizko ingurumen-eragin esanguratsuenak	-Uholde-arriskua.
Alternatiben balorazioa	<p>Eremu honetan ingurumen eraginak sorrarazi dezakeen proposamena hiri-eremuaren mugaketaren erregularizazioa da, iparraldean, 1. 2. eta 3. Alternatibetan eremuaren azalera 1.850 m² inguru hazten delarik Agauntza ibaiaren ertzetaraino zabalduz.</p> <p>Dena dela, zonalde hau ibai ertzeko sistema libreen sistema orokorra bezala izendatzen da, egun duen erabilera eta ezaugarri orokorrak mantenduz, beraz, jarduketazuzenik planteatu gabe.</p> <p>Hala ere, bertako erabilerek ibaiaren presentzia eta honekin erlasionaturiko landaredia zein baldintzatzaileak (uholde-arriskua) kontuan hartu beharko dute.</p> <p>Bestetik, indarreko plangintzak aurreikusten dituen zuzkidura-jarduneko 7 etxebizitzak egungo hiri lurzoru hiritartuan kokatuko lirateke, eta ondorioz, ez lukete inpaktu berri esanguratsurik eragingo, ez baitira, ahalmen agrologiko lurrak edota intereseko landaredirik identifikatzen. Dena dela, besteak beste, zarata, uholde-arriskua eta eremu urtarraren babesaren inguruko araudia bete beharko dute.</p>

46. Taula San Gregorio Ekialdea HJE-n Alternatiben ingurumen-inpaktuen balorazioa.


Ingurumen eragina	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Lurzoruaren okupazioa	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Lurzoruaren ahalmen agrologikoa	-	-	-	-
Lurrazaleko ur-ibilguak	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Uholde-arriskua	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Intereseko landaredia	-	-	-	-
Intereseko fauna	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Paisaia	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Zarata	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Kultur ondarea	-	-	-	-
Higadura arriskua	-	-	-	-


Ingurumen eragina	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Klima aldaketa	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria

6.2.1.9 H.J.E. San Gregorio Mendebaldea


Eremu honetan indarreko plangintzak (0 alternatiba) 19 etxebizitza berri aurreikusten ditu eremu hiritartuaren barnean zein garatu gabeko hiri lurzoruetan. Hala nola, eraikin bat proposatzen da Aitxu erreka bazterrean, gaur egun gaztainondo landaketa batez okupatua.









Garapen hautabideek, aurreikuspen hauetan oinarrituta moldaketak proposatzen dituzte. Denek hiri-eremuaren mugaketaren zabalpena planteatzen dute, 2. Alternatibaren kasuan 34.576 m² izatera iristen delarik, gaur egun baino ia 1,6 hektarea handiago. Honekin batera, bizitegi kopuru handiagoa ere proposatzen dute, batez ere Aitxu erreka bazterreko lursailen garapenarekin. Bestetik, J.M. Barandiaran museoaren eta interpretazio zentroaren ingurunea hiri-lurzoruko ekipamenduen sistema orokor gisa izendatzen dute 1. eta 2. hautabideek, hiri-lurzorua hazkuntzan ere eragina duena.





49. Irudia San Gregorio Mendebalde HJE-n identifikatutako ingurumen baldintzatzaile nagusiak



H.J.E. SAN GREGORIO MENDEBALDEA	
	Garapen-eremuen proposamenak / Propuestas de ámbitos de desarrollo
	Kutsatuta egon daitezkeen lurrak / Suelos potencialmente contaminados
	Lehentasunezko fluxu-eremua
	10 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua
	100 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua
	500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua
	Akuiferoen zaurkortasun handia edo oso handia / Vulnerabilidad alta o muy alta de los acuíferos
	% 50 baino handiagoak maldak / Pendientes mayores al 50%

50. Irudia San Gregorio Mendebaldea HJE-n identifikatutako ingurumen arrisku nagusiak.

47. Taula San Gregorio Mendebaldea HJE-rako hautabideen ingurumen azterketa.

	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Azalera m ²	18.833	21.785	34.576	31.624
Bizitegia kop.	14(5)	22(5)	32(5)	24(5)
Zuzkidurak m ² (s)	1.130	-	-	1.130
Espazio libreak eta ibai ibilguak m ² (l)	635	702	8.254	8.187
Ingurumen baldintzatzaile nagusiak	-Agauntza ibaia eta Aitxu erreka. -Fauna: Agauntza ibaiaren tarte hau bisoi europarrarentzako eta muturluze piriniarraren interes bereziko eremua da. -Kultura intereseko elementuen presentzia: Errota eta Errotatxo errota (monumentu multzoa. EHAA 2003-09-11) -Ingurumen arriskuak: <ul style="list-style-type: none"> • 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremuak. • Akuiferoen zaurgarritasuna. • Zarata: GI-2120 errepidetik gertu egoteagatik, bertatik sortutako zarata jasoko luke. 			
Balizko ingurumen-eraginak	-Lurzoruaren okupazioa. -Agauntza ibaiaren eta Aitxu erreka-uren kalitateari kaltea. -Faunari eragina: Bisoi europarra eta muturluze piriniarraren interes bereziko eremua. -Lurzoruaren erabileretan izandako aldaketek eragindako inpaktu bisuala. -Kultura intereseko elementuei eragina. -Uholde-arriskua: garapen berri batzuk 500 urteko errepikatze-denborarako uholde-arriskua dute. -Inpaktu akustikoa: zarata-maila handiekiko esposizioa areagotzeko aukera. -Giza habitataren gaineko eragina obretan zehar, zaratek, makinan eta materialen presentziak, lur-mugimenduek, hondakinen sorrerak eta abarrek eraginda.			
Balizko ingurumen-eragin esanguratsuenak	-Lurzoruaren okupazioa. -Ibai ibilguen kalitateari eragina. -Uholde-arriskua.			
Alternatiben balorazioa	Garapen berriak, naiz eta partzialki egungo hiri-lurzoruaren barnean egon, hiritartu gabeko eremuetan jardutea suposatuko lukete, lurzorua artifizializatuz. Eragin hau nabariagoa izango litzateke, 2. eta 3. Hautabideetan non egun hiri lurrak ez diren eremuak ere okupatzen diren. Garapen berriak proposatzen diren eremuak ez dira balio agrologiko altutzak identifikatzen, hala ere, gaur egun Aitxu erreka bazterreko lurrak, ekoizpenerako bideratuko lirateke, gartzainonoz okupatuta daudelarik. Garapen proposamenek ez dute intereseko landarediarekin bat egiten.			

Agauntza eta Aitxu ibilguen gertutasunak baldintzak ezartzen dizkie garapenei, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LAParen eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren zehaztapenak bete beharko dituztelarik, ibilguak babesteari eta uholde-arriskuari dagokienez, baita bertan egon daitekeen babestutako faunari dagokionez.

Zaratari dagokionez, ondorengo faseetan sakon aztertuko den arren, aurreratu daiteke garapen proposamenak GI-2120 errepidetik aldentuta daudela eta, hasiera batean, ez dela espero zarata maila atak hauentzako baldintzatzaile izatea.

Laburbilduz, garapen alternatiba guztiek eragiten duten inpakturik nabarmenena lurzoruaren okupazioa izango litzateke. Zenbait eremu jada egungo plangintzak aurreikusten ditu garatzea, eta ondorioz, zentzu honetan, garapen alternatiba berriek ez lukete honekiko inpaktuak areagotuko. Hala ere, 1., 2. eta 3. Alternatibek gaur egun hiri-lurrak ez diren eremuak barneratzea proposatzen dute ere, garapena zenbat eta handiagoa izan, okupazioa eta artifizializazioa handiagoa izango litzatekeelarik, eta, ondorioz, inpaktua nabarmenagoa.

48. Taula San Gregorio Mendebaldea HJE-n Alternatiben ingurumen-inpaktuen balorazioa.

Ingurumen eragina	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Lurzoruaren okupazioa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Lurzoruaren ahalmen agrologikoa	bateragarria	bateragarria	neurritzkoa	neurritzkoa
Lurrazaleko ur-ibilguak	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Intereseko landaredia	-	-	-	-
Intereseko fauna	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Paisaia	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Zarata	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Uholde-arriskua	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Kultur ondarea	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Higadura arriskua	-	-	-	-
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Klima aldaketa	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria




Aitxu errekaaren parean etxebizitzak aurreikusten diren lursailak.


6.2.1.10 H.J.E. Aia

Egungo AA.SS.-ek eremua hiri-lurzoru bezala finkatzen dute, non 14 etxebizitza berri aurreikusten diren, eremua mendebalderuntz zabalduz.

1. garapen alternatibak eremuaren mugaketa mantentzen du, baina etxebizitza berrien kopurua txikitzen du, bertan aktibitate ekonomikoak ere sustatzeko.
2. alternatibak, eremuaren azalera txikitzen du, gaur egun garatua dauden lursailetara mugatuz.

Azkenik, 3. Alternatibak eremuaren egungo plangintzaren mugaketa mantentzen du, baina lurzoru ez-urbanizagarriko landa-gune gisa izendatzea proposatzen du.





51. Irudia

Aia HJE-n identifikatutako ingurumen baldintzatzaile nagusiak.



52. Irudia Aia HJE-n identifikatutako ingurumen arrisku nagusiak.

49. Taula Aia HJE-rako hautabideen ingurumen azterketa.

	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Azalera m ²	6.709	6.709	2.758	6.709 (landa gunea)
Bizitegia kop.	8(6)	4(6)	0(6)	Plan berezia
Jarduera ekonomikoak m ² (s)	-	720	-	-
Ingurumen baldintzatzaile nagusiak	-Aralar Parke Naturalaren barne dago eremua. -Batasuneko Interesekeko Habitatak: <ul style="list-style-type: none"> • 6510: Segabelardi atlantiarrak. -Fauna: Hegazti nekrofagoen interes bereziko eremua ea elikatzeko babesgunea. -Ingurumen arriskuak: <ul style="list-style-type: none"> • Akuiferoen zaugarritasuna. • Zarata: GI-3151 errepidetik gertu egoteagatik, bertatik sortutako zarata jasoko luke. 			
Balizko ingurumen-eraginak	-Aralar Parke Naturalaren barean egoteagatik mugak. -Lurzoruaren okupazioa. -Lurzoruaren erabileretan izandako aldaketek eragindako inpaktu bisuala. -Inpaktu akustikoa: zarata-maila handiekiko esposizioa areagotzeko aukera. -Giza habitataren gaineko eragina obretan zehar, zaratek, makinan eta materialen presentziak, lur-mugimenduek, hondakinen sorrerak eta abarrek eraginda.			
Balizko ingurumen-eragin esanguratsuenak	-Lurzoruaren okupazioa.			
Alternatiben balorazioa	<p>Eremua jadanik hiri-lurzoru bezala finkaturik egonda, garapen alternatibek ez dute azalera gehiago okupatzea aurreikusten. Zentzu honetan, ez da lurzoru ez urbanizagarri eragiten, eta 3. hautabidearekin gainera, honen azalera handitzen da, eremua landa gune bezala izendatuz.</p> <p>1. Alternatiban aurreikusitako garapenek gaur egun hiritartu gabeko lurak eraldatzea suposatuko lukete, dena dela jada indarreko plangintzan aurreikusitako lursailak dira (0 Alternatiba), eta ondorioz ez da kontsideratzen hauen proposamenekiko inpaktuak areagotuko direnik, ezta esanguratsuak izango direnik. Bertan garatzen den 6510 BIH-aren azalera, habitat honek udalerrian duen azalera osoaren % 0,08 baino txikiagoa da. Bestetik, Aralar Parke Naturalaren presentziaren eta izen bereko Kontserbazio Bereziko Eremuaren (Natura 2000 Sarea) ondorioz, zona honetan eremu babestuen araudia bete beharko da. Hurrengo ataletan, HAPOaren proposamenek Natura 2000 Sarean eragin ditzaketan inpaktuak aztertuko dira. Hala ere, aurreratu daiteke, Aian proposatzen diren hautabideek ez dutela espazio babestu hauen kontserbazio helburu diren elementuei eragiten eta ez dutela bertako baldintza ekologiko nagusiei zein kontserbazio egoera kaltetzen.</p> <p>Faunari dagokionez, Aia, hegazti nekrofagoen gestio planaren arabera, hauentzako interes bereziko eremuaren barruan kokatzen da, eta baita horiek elikatzeko babesgunean ere. Dena den, garapen berriak proposatzen diren zelaiak ez dira hegazti nekrofagoentzako habia-eremuak, eta egungo etxebizitzan parean egonda, ez da espero elikatzeko maiz erabiltzen dituztenik, giza presentziatik urrunago dauden eremuak lehenetsiz.</p> <p>Bestetik, zaratari dagokionez, aurreratzen da GI-3151 errepideak duen trafiko mugatuarengatik ez dela espero bertatik sortutako zarata garapen berrientzako baldintzatzaile esanguratsua izatea.</p> <p>Laburbilduz, ingurumen aldetik 3. Hautabideak 0 eta 1. Alternatiben antzeko eragina izango luke, hauekiko desberdintasuna landa gune izendatzen duela izanik.</p>			

	Ondorioz, 2. Hautabidea izango litzateke inpaktu gutxien eragingo lukeen alternatiba, hiri eremuaren limitea gaur egun garatua dagoen eremuari mugatuz.
--	---

50. Taula Aia HJE-n Alternatiben ingurumen-inpaktuen balorazioa

Ingurumen eragina	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba
Lurzoruaren okupazioa	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Lurzoruaren ahalmen agrologikoa	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Lurrazaleko ur-ibilguak	-	-	-	-
Intereseko landaredia	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Intereseko fauna	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Paisaia	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Zarata	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Uholde-arriskua	-	-	-	-
Kultur ondarea	-	-	-	-
Higadura arriskua	-	-	-	-
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Klima aldaketa	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria

6.2.1.11 Oinezkoen eta bizikletentzako ibilbidea

Azkenik, atal honetan hiru garapen alternatibetan aurreikusten den San Martin eta San Gregorio auzuneak lotuko dituen ardatz nagusiaren balizko eraginak aztertzen dira laburki. HAPOaren fase honetan irudikatutako oinezkoen eta bizikletentzako ibilbidea ez da behin-betikoa, baina, hasiera batean GI-2120 errepidearen ertzetik igarotzea aurreikusten da, Astigarraga auzunean izan ezin, non hiri eremua zeharkatuko lukeen.

Ardatz honen trazadurarentzat errepidearen antzeko ibilbidea aurreikustea oso egokia litzateke, hori gauzatzeko obrak eta lurzoru berrien artifizializazioa murriztuko bailitzateke. Hala ere, errepidearen gaur egungo egoerari erreparatuz, tarte askotan ez luke leku nahikorik izango kotxeen eta bizikleta edo oinezkoentzako mugimendua batera eta modu seguru batean ziurtatzeko. Horrela, ardatz hau gauzatzeko, errepidea zabaldu beharko dela aurreikusten da, gutxi gorabehera 2 km-tan zehar, honen pareko lursailak okupatuz.

Lur mugimenduak, orokorrean, zelai, eta baso zein fruta-arbola landaketei eragingo lieke, Aralar Parke Naturala eta KBE-aren mugan. Eremu hauen ezaugarrien arabera ez da espero, hasiera batean, inpaktu esanguratsutik natura intereseko elementuen gainean, eta bereziki positiboa kontsideratzen da ibilbide honek udalerriko mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetu eta errazteko. Hala ere, neurri babesle zein zuzentzaileak ezarri beharko dira obren inpaktuak murrizteko.

Proposamen honen eraginen azterketa ondorengo faseetan sakonduko da, ibilbidearen trazaduraren aurreikuspenekin.

6.2.2 LURZORU EZ URBANIZAGARRIARI DAGOZKION ALTERNATIBEN AZTERKETA

6.2.2.1 Lurzoru ez urbanizagarriaren zonakatzea


HAPOaren Aurrerakinak lurzoru urbanizaezinaren zonakatze globalerako proposamen bat aurreratu du, LAG eta Nekazaritza eta Basogintzaren LAPean xedatutakotik abiatuta, ondorengo faseetan zehaztuko dena (ikusi 3.2.1 atala).

Aipatu, Ataunen kasuan udal barrutiaren zati handiena (% 76) Aralar Parke Naturalaren barnean dagoela eta honek lurzoru ez urbanizagarriaren antolamendua baldintzatzen duela. Honela, HAPOak espazio babestua osatzen duen eremuari bere babes figura espezifikoak atxikitzen dio, eta honetatik kanpo dagoen lurzoru ez urbanizagarriari ondorengo kategoriak izendatzen dizkio:

- Nekazaritza-abeltzaintza eremua
 - Balio Estrategiko altua
 - Trantsiziozko Landa Paisaia
- Basoa
 - Basoa
 - Basoa-Mendi urria
- Ibai ibilgua eta bere ertzak babesteko eremua
- Sistema orokorrak

51. Taula Nekazaritza eta Basogintzako LPSak Ataungo udalerrian izendatutako lurzoru ez urbanizagarriaren kategorien azalera eta HAPOak definitutako arteko konparaketa.

Kategoria	Nek. eta Basog. LPS	HAPO
	Azalera (ha)	Azalera (ha)
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	37	43
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	327	220
Basoa	936	1.054
Basoa-Mendi Urria	39,81	34
Larre Menditarra	2,59	-
Ibai ibilgua eta bere ertzak babesteko eremua	-	239
Aralar Parke Naturala	4.449	4.449



53. Irudia *Nekazaritza eta Basogintzako LPSak eta HAPOaren Aurrerakinak Ataungo lurzoru ez urbanizagarriarako definitzen dituzten kategoriak.*

Nekazaritza eta Basogintzako LPSa onartu zenetik (2014) gaur egunera lurzoruaren erabilerak aldatzen joan dira eta hori HAPOak definitzen dituen kategorien azaleratan islatzen da.

Alde batetik, LPSak izendatutako “Trantsiziozko Landa Paisaia” nabarmen murriztu da, azkeneko urtetan lursail horietako batzuk basogintzara bideratu baitira, baso landaketetara zein bertako basoak kontserbatzera hain zuzen ere. Honela, gaur egun “Basoa” kategorian izendatzen diren eremuan nabarmen hazi dira.

Bestetik, LPSak “Larre menditarrak” izendatutako eremuei dagokienez, errealitatean murriztuzkoak dira, eta Idiazabal udalerrri mugan garatzen dira zerrenda estuak sortuz. Honela, lurzoru ez urbanizagarrien kategoriazioa bateratzeko helburuarekin, mendiko larreak Ataunen duten presentzia ez dela esanguratsua kontsideratu da, kategoria partikularra izateko.

Azkenik, aipatu behar da LPSak izendatzen dituen Balio Estrategiko Altuko eremuen kartografia moldatu dela, eta hiri-eremuetan ez dauden Agauntza ibaiaren ertzetako eremu lauak kategoriatan honetan barneratu direla, hauen azalera 6 hektareatan handituz.

Honela, orokorrean, HAPOaren Aurrerakinak lurzoru ez urbanizagarriarako definitzen dituen kategoriak, eta hauen mugaketa, egungo ezaugarrietara eta LAGek zein LPSak ezarritako baldintzetara hobeto egokitzen direla kontsideratzen da, ondorengo faseetan, eremu bakoitzaren araudia definitzerakoan osatuko dena.

Baita ere, adierazi, HAPOaren aurrerakinak lurzoru ez-urbanizagarriako antolamendu-aukera ezberdinak aurkezten dituela, hiri-lurzorurako eta urbanizagarriako aurkeztutako proposamenekin bat etorriz. Honela, lurzoru ez urbanizagarriaren azalera zertxobait aldatzen da hautabide batetik bestela. Hala ere, aldaketa hauek ez dute landa lurreko egitura globalean inpaktu adierazgarrikerik eragiten. Lurzoru ez urbanizagarrian eragiten duten garapen proposamen desberdinen inpaktu lokalak aurreko atalean aztertu dira (ikusi 6.2.1 atala).

6.2.2.2 *Landa gunek*

Aurrerakinak proposamen ezberdinak egiten ditu Arinberriaga, Ergoiena eta Aia auzuneen antolaketari dagokionez.

Hautabide guztietan Ergoiena landa-gune bezala mantentzen den bitartean, Arinberriaga landa gune izatetik, hiri-lur bezala finkatzea proposatzen da hiru garapen alternatibetan, eta Aia, aldiz, gaur egun hiri-lurzoru bezala izendaturik egonda, horrela mantentzea zein landa gune izatera pasatzera proposatzen da.

Proposatutako alternatibek eremu hauetan eragin ditzaketen inpaktuak aurreko atalean aztertu dira (ikusi 6.2.1 atala), esku hartze hauen ondorioz inpaktu esanguratsurik identifikatu ez delarik.

6.2.2.3 *Sistema orokorrak*

Azkenik, sistema orokorreari dagokienez, HAPOaren Aurrerakinak ez ditu biltzen egungo plangintzak (0 Alternatiba) lurzoru ez urbanizagarrian, Aralar Parke Naturalaren barean, proposatzen zituen Erremedio (380.573 m²), Marumendi (104.681 m²) eta Imatzeneako (42.119 m²) jarduera ekonomikoetarako sistema orokorrak. Eremu hauek ez dira gaur egun oraindik gauzatu, eta beraien desklasifikazioa eragin positiboa izango duela aurreikusten da, esku-hartze berriak ekidinez eta bertako egungo ezaugarri naturalak mantenduz, batez ere Aralar Parke Naturalaren barruan kokaturik egonda.

Bestalde, Lizarrustiko ingurua, jadanik aisialdirako azpiegiturak gauzaturik dituelarik, udalerrian natura aktibitateekin loturiko jarduera ekonomikoak bultzatzeko aukera egokia ikusten da, eta hau Aisialdiko eta ingurumen-zabalkundeko gunea gisa izendatzea proposatzen da, eta Antolamenduko Plan Bereziaren bidez garatzea.

Eremu honen proposamena ez da oraindik zehaztu, baina Parke Naturalaren eta Natura 2000 Sarearen araudia betez eta jada hiritartuta dagoen eremuaren inguruan kokatuz, ez da eragin esanguratsurik aurreikusten eremu babestu hauen kontserbazio helburu diren elementuen gainean.

7 NATURA 2000 SAREAREN GAINKO ERAGINA

Ataungo mugen barnean Aralarko ES2120011 Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) 4.455 ha-ko azalera dago, Natura 2000 Sareko gune honen % 41 inguru, orokorrean Parke Natural bezala izendatutako eremuarekin kointziditzen duena. Bestetik, Oria Garaiko ES2120005 KBEa ere 10 ha-tan barneratzen da udalerrian, Agauntza ibaiaren azken tartean zehar. Azalera honek, KBEaren azaleraren % 7 inguru suposatzen du.

Egungo egoerari dagokionez, Aralarko KBE Ataungo hiri lurzoruekin mugatzen du, hauek kanpoan utziz, Aiako herrigunea izan ezik. Oria Garaiko KBEari dagokionez, honen barnean sartzen den Agauntza ibaiaren tartea Elbarrena auzuneraino iristen da, hiri lurzoruen ondotik igaroz.

HAPOaren Aurrerakinak aurkezten dituen garapen alternatibei dagokienez (1., 2. eta 3. hautabideak) egungo plangintzan oinarrituz moldaketak proposatzen dituzte lortu nahi diren helburuak betetzeko asmoz. Zentzu honetan, AASS-ek aurreikusitako garapen batzuk mantentzen dira, beste batzuk atzera botatzen dira, edota berriak proposatzen dira. Honek, zenbait eremuetan hiri-lurzoruen mugaketa moldatzea suposatzen du. Hautabideen deskribapena eta hauek eragingo lituzketen inpaktuen azterketa orokorra aurreko ataletan burutu da (ikusi 3. eta 6. atalak).

Garapen proposamenek Oria Garaiko KBEan eragin ditzaketen inpaktuei dagokienez, arestian aipatu den bezala, HAPOak ez ditu garapen eremu berriak proposatzen espazio babestu honen barruan. Aurreikusten diren eremuak, jada AASS-ek proposatuak dira, hiri-lurzoruz bezala klasifikaturik daudenak, Ajarrestako eremua izan ezik, hiri-urbanizagarri gisa klasifikatzen dena. Esan bezala, klasifikazio hau AASS-etik dator, Oria Garaiko KBEa izendatu baino lehen.

Aipatu beharra dago, Ataunen zehar Agauntza ibaiak egoera ekologiko ona duela ikusi dela, naiz eta puntu askotan kanalizatuta egon (batez ere hiri-eremuaren inguruan), haltzadia mantentzen baitu ibaiertzeko landaredi bezala. Dena dela, garapenen ondorioz ez da espero eremu babestuan inpaktu zuzenik eragitea. Eragingo inpaktuak, zeharkakoak izango lirateke, obrekin loturikoak, puntualki uren kalitatea gutxitu dezaketenak, eta ondorioz, neurriak ezarriko dira hauen garapenerako.

Zehazki, inpaktu handiena izan dezakeen hautabidea Ajarrestako garapena aurreikusten duena da, (2. Alternatiba) hiritartu gabeko eremu batean jardutea suposatuko bailuke. Kasu honetan, errekarekiko erretiroa eta ibaiertzeko landaredia egoera onean mantendu beharko dira, lur mugimenduak ere murriztuz. Hala ere, adierazi, eremu honen garapena indarreko plangintzak jada aurreikusten duela, eta zentzu honetan, garapen hautabide honek ez lituzke bertan aurreikusitako inpaktuak areagotuko.

Laburbilduz, beharrezko neurri babesle eta zuzentzaileekin, ez da espero inpaktu esanguratsurik eragitea Oria Garaiko KBEaren intereseko elementuetan eta eremuaren kontserbazio egoera globalean.

Garapen proposamenek Aralar Parke Naturala eta KBEan eragin ditzaketen inpaktuei dagokienez, orokorrean planteatzen diren hiri-eremuaren mugaketaren moldaketa puntualek ez diote babestutako eremu honen barneko lurzoruei eragiten, eta ondorioz, ez lukete inpaktu zuzenik eragingo hemen. Egia da, aurreikusitako garapen batzuk Aralarrekin mugan daudela eta obrek zeharkako inpaktuak eragin ditzaketela, sortutako zarata, igorpen atmosferiko edo isurketen ondorioz. Hala ere, hiri-lurzoruen

gaineko jarduketak izanda, eremu babestuan eragindako inpaktuak eskasak izango direla aurreikusten da, eta inolaz ere Aralarren kontserbazio-helburu diren elementuetan esanguratsuak.

Bestetik, Astigarraga auzunean proposatuko garapenek bertako hiri eremua handitzea suposatzen dute, gutxi gorabehera 1,9 ha, Aralarko mugaren gertutasunaren ondorioz, honen barruan sartzea suposatuko lukeena. Zehazki, lurzoru hauek espazio libre zabal baterako eta bizitegi eremu berrientzako bideratuko lirarteke.

EAEko beste KBE batzuen aldean, Aralarkoan ez da zonakatzerik landu, soilik funtsezko elementuak identifikatu eta hauen kontserbaziorako kudeaketa irizpideak aipatu. Aralarko KBEren funtsezko elementuak honakoak dira: basoak, haltzadi kantauriarra, larre eta belardiak, harkaiztietako hegazti komunitateak eta saguzarrak. Aldiz Aralar Parke Naturalaren zonifikazioari dagokionez, eremu hauek "landazabal barrutia" kategoriari dagokie, eta Aralarreko Natur Baliabideen Antolamendurako Planak ondorengo ezartzen du eremu hauetarako:

A.– DEFINIZIOA.

Belardi, soro eta zuhaitzi txikiek osatzen duten mosaikoak dira hauek, baserri eta auzune inguruetan ematen direnak hain zuzen.

B.– HELBURUA.

Zona hauetako erabileren dibertsitatea mantentzea, paisaia eta fauna ikuspegietatik ekartzen duen aniztasunarekin.

C.– JARRAIBIDEAK.

1.– Inguru hauetako biztanleen bizimodua hobetzea, beharrezkoak gertatzen diren azpiegiturak sortzearen bidez eta lursailen emankortasuna handitzeko neurriak hartuz.

2.– Landatar paisaia mantentzea, inguru hauetara egokitzen ez diren eraikuntza eta azpiegiturak ekidinez, heskaiak, zapaldak, basotxoak eta bertako eraikuntzak mantenduz.

3.– Belardien hobekuntza eta mantendua bultzatuko dira, horiek mendizerraren ekoizpen sisteman ezinbestekoak baitira.

4.– Zonalde honetako erakargarritasun turistikoa areagotzea, behar diren azpiegiturak eta instalazioak sortuz, horrela bertako biztanleen diru sarrerak handiagotuko baitira.

D.– ARAUA. 1.– Zona hauetan aplikatu behar den arauteria, ukituriko udalerrri bakoitzeko ordezkoko arauetan jasotzen dena izango da

Bestetik, Astigarragan txertatuko lirartekeen eremu hauetan larrei eragingo zaie, 6510 Batasuneko Intereseko Habitatak direnak. Eragindako lursail hauen azalera Batasuneko intereseko habitatak udalerrian duen azaleraren % 0,4 suposatuko luke.

Beraz, azaldutakoarekin, ez da espero Astigarragako garapenak eragin esanguratsuak suposatuko dituenik Aralar KBE eta Parke Naturalaren kontserbazio egoeran.

Azkenik, Aiako herrigunea ere Aralar KBEaren barruan kokatzen da. Hemen Aurrerakinak ez du eremuaren zabalpen edo garapen eremu berririk proposatzen, AASS-etan jada aurreikusten ez direnak, eta, ondorioz, Aian proposatzen diren hautabideak eremu babestuan eraginik izango ez dutela kontsideratzen da. Gainera, azpimarratu, 2. Hautabideak hiri eremuaren azalera murrizten duela, gaur egun hiritartua dagoen eremuari mugatuz, inguruko zonaldearen kontserbazio egoeran eragin positiboak izan ditzakeelarik.

8 ERAGINDAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ETA HERRITAR INTERESDUNEN PROPOSAMENA

Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikulua ezartzen duenez, hasierako dokumentazioa aurkeztean, aurretiazko kontsulta-aldi bat irekiko da. Horretarako, ingurumen-organoak kontsulta egingo die eragindako administrazio publikoei eta herritar interesatuei. Zeregin hori betetzeko, eragindako administrazio publikoen eta herritar interesatuen zerrenda hau proposatzen da:

52. Taula Eragindako administrazio publikoak.

Eragindako administrazio publikoak	
	Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa URA-Uraren Euskal Agentziaren bidez
Eusko Jaurlaritza	Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza
	Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza
	Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza
	Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza
	Kultura Ondarearen Zuzendaritza
	Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
	Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza
	Garraio Plangintzaren Zuzendaritza
	URA
	IHOBE
	Energiaren Euskal Erakundea, EVE
	URA-Uraren Euskal Agentzia
	Gipuzkoako Aldundia
Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia	
Ingurumen Zuzendaritza Nagusia	
Kultura Zuzendaritza Nagusia	
Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia	
Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia	

53. Taula Herritar edo elkarte interesatuak (211/2012 dekretuko 8.1.b artikulua).

Herritar interesdunak	
Naturari lotuta lana egiten duten sektoreetako elkarteak	EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)
	ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna)
	Gipuzkoako Basogintza Elkartea
Naturaren babeserako sortutako elkarteak	Ekologistak Martxan Gipuzkoa
	Eguzki Talde Ekologista
	Landarlan Ingurumen Elkartea

Oiartzunen, 2024ko maiatza.



Fdo.: Ibai Alcelay Iglesias
-Biologian graduatua
-Zoologian masterra



Fdo.: Tomás Aranburu Calafel
-Nekazaritzako Ingeniaritza Teknikoan diplomatua
-Lurralde Azterlan eta Antolamenduko aditua



Fdo.: Alexandra Egunez Zalakain
-Biologia Gradua
-Biodibertsitate, Funtzionamendu
eta Ekosistemen Gestioa Masterra



Fdo.: Leyre Arteaga Lucas
-Ingurumen Zientzia Gradua

I. ERANSKINA: Planoak

Hasierako Dokumentu Estrategikoaren Planoak		
Zk.	Izenburua	Eskala
I.1	Kokapena	1:40.000
I.2	Maldak	1:40.000
I.3	Ahalmen agrologikoa	1:40.000
I.4	Hidrologia	1:40.000
I.5	Landaredia eta lurzorua erabilerak	1:40.000
I.6	Batasuneko Intereseko landaredia	1:40.000
I.7	Babestutako eta intereseko fauna	1:40.000
I.8	Babestutako Natur guneak	1:40.000
I.9	Onura Publikoko Mendiak	1:40.000
I.10	Ingurumen Unitate Homogeneoak	1:40.000
O.1	Zubikoeta	1:2.000
O.2	Ajarresta	1:2.500
O.3	Elbarrena Ekialdea	1:4.000
O.4	Elbarrena Mendebaldea	1:3.500
O.5	Astigarraga	1:5.000
O.6	Arrondo	1:3.000
O.7	Arinberriaga	1:3.500
O.8	San Gregorio Ekialdea	1:2.500
O.9	San Gregorio Mendebaldea	1:5.000
O.10	Aia	1:2.000
O.11	Zubikoeta	1:6.500
O.12	Lurzoru ez urbanizagarriaren kategoriak eta baldintzatzaile gainjarriak	1:40.000